

# EIBARRERA JATORRAREN BIDETIK

---

Imanol LASPIUR ZABALA



...eta kitto!  
Euskara Elkartea

# EIBARRERA JATORRAREN BIDETIK

---

Imanol LASPIUR ZABALA



...eta kitto!  
Euskara Elkartea

***Izenburua:*** Eibarrera jatorraren bidetik

***Egilea:*** Imanol Laspiur Zabala

***Argitaratzailea:*** ...eta kitto! Euskara Elkarte

***Testuen egokitzapena:*** Juan Andres Argoitia eta Serafin Basauri

***Diseinua eta maketazioa:*** Koldo Mitxelena Zumaran

***Argazkiak:*** Nagore Bengoetxea eta Oier Narbaiza

***Marrazkiak:*** Mikel Zendoia

***Inprimategia:*** Gertu kooperatiba

***Tirada:*** 800 ale

***ISBN:*** 84-89696-11-X

***Lege Gordailua:***

***1999ko apirila***

# AURKIBIDIA

<b>Hitzaurrea</b>	9
<b>Sarrera</b>	11
<b>1 - Eibarko euskera</b>	17
<b>2 - Entonaziñua</b>	21
2.1 Lehelengo arau edo erregelia: Agindukerak eta erreguak	21
2.2 Bigarren arau edo erregelia: Agurrak eta interjekziñuak	22
2.3 Hirugarren erregelia: Harriduretan / admiraziñuetan	22
2.4 Zenbait toki-izen edo toponimo	23
2.5 Izen propixuak	24
2.6 Deiturak - abizenak - apelliduak	26
2.7 Batzu - batzuk	27
2.8 Erderatiko berbak	28
2.9 Zenbait esaldiren azterketia	29
<b>3 - “-a” Artikulu mugatzaillia</b>	31
3.1 “-a” Artikulu mugatzaillia eta “-a organikia”	31
3.2 “-a” Artikulu mugatzaillia eta <i>-kerixa</i> atzizkixa	32
<b>4 - Fonetikia</b>	33
4.1 Amaierak : <i>-eo &gt; -eua ; -rio &gt; -rixo / -rixua</i>	33
4.2 Bokal artian: <i>d &gt; r</i>	33
4.3 <i>Bdg &gt; ptk</i>	34
4.4 Xixa-xixo.....	34
4.5 <i>Be (bere) &gt; pe</i> noiz gertatzen dan	35
4.6 Kontrakziñuak	36
<b>5 - Erakuslien errepikapena</b>	38
<b>6 - Gatzizen eta deitura femenino erromanikuak</b>	39
<b>7 - Gure zenbait esamolde jator</b>	41
Adarra jo, aida ta ixo, amaiñ emon, aren baten	41
Ariñ biharra, arriabarra batu, arrio eiñ/egiñ, bada ezpada (be), bai zera!, barren, ez bada (e)ze	42
Eze, ez eze, ez lakua, hari harira egon, harik eta, hartakotzat egon, ixak eta	43
Jakiña!, kontizu, lehenaz gaiñ, luak hartu (aditz lokuziñua)	44
Mehe hartu, nere baten	45

Nere kautan, oiñ ezkerik / -kan, on be, otxiñak egiñ, panpana hartu / panpandu	46
Pekiñera juañ	47
Pekora ibilli, ple-ple egin(da), tutuluko estratan egon, uste (e)ze, zegaittik eze	48
<b>8 - Argota</b>	51
Ababa, abospolua, aboziñaua, alperrontzixa, amama,	51
Amandria, anporra, ariapekua, ariña, arrio (egin), buztana, ekekei, erregiaren arpegixa, erretena, ganbaria, gaztaia	52
Haixe zulua, haixia, itturrixa, kalabazia, lafiâu, lafiua, lafiauta, makilla saldia, mozolua, narru gogorra, o(be)idu,	53
Perra-hotsa, pot egiñ, sapua, sojia, tanboliña, takian da potian / takian potian, tataia, tripa-zorrixak, txilibitua, txirtxilla, ukat egin, urebagixa	54
Zartadia, zurixa	55
<b>9 - Ume berbetia</b>	57
Aida-aida, apapa, apatx (egiñ), bekeke, bili-bili, guau-guau,	57
Kiki egiñ, kokole, Koko-marrua, Lolo, ma, ma emon/egiñ/bota, maiñak (egiñ), mama, Mamarrua	58
Mamelua, matxua, misi-misi, momúa, nanan (egiñ), papa, pa, patxua, pitxía, pupúa, purrak, purra-purra, taka-taka	59
Tas-tas (egiñ), tati (eiñ), tato (egiñ), tete egiñ, txalo-pintxalo, txintx egiñ, txio-txio, txitxi, txitxia, txunda-txunda	60
<b>10 - Metatesiak</b>	61
<b>11 - Onomatopeiak</b>	63
Ájaja, ájajia, apatx (egiñ), (h)árramarra / árramarria, arramúzka egin, arramúzkadia, arrámuzketan, arrápataka / arrápatakia, arratádia(ria), axaxa	63
Bar-bar, barra-barra, bix-bix-bix, blast / blasta, blastada / blastadia, blastateko / blastatékua, blastiádia, blástiau, blastíua, blis(t)-blas(t), blist eta blast, blisti-blasta	64
Bolo-bolo, bolo-bolua, bof!, bofadia, briz-briz, briztadia / briztaria, brizt egiñ, bro-bro, bru-bru, burrundaria, dan-dan, danba, danbadia, danga / dangatekua	65
Dar-dar, dart (egiñ), dartau, di-da, dilin-dalan, dinbi-danba, dri-dra, dringili-drangala, drungun-drungun, dum!, dun-dun, dza-dza	66
Eju-eju!, farra-farra, farrast, farrastadia, firin-faran (ibilli), firin da faran, firi-firi, furrust (egiñ), furrustadia, glok, glu-glu, irrist, irristadia	67
Karras, Karrask, karraskadia, karraspadia, klik-klik, kirri-karra, kirrikarria, kirri-korro, kirrikorra, kirrizkadia, klok, korrosk, korroskadia	68
Krak, krakadia, kri-kri, Kris-kras, kukurruku, kukurrukua, kurrin-kurrin, larrapast, larrapastadia, miau, mor-mor, mormorixua, mormorra,ñi-ñi, parra-parra	69

Parrast / parrastadia, pil-pil, pirri-pirrixa, pitx, pitxada, plisti-plasta, plost, plost egiñ, plost-plost, pospolin, puf (buf), pum-pum!, purra-purra, —————	70
Purrust, purrustada, purrut, rrrrr, sarra-sarra, sits eta bits, tarrat, tarratadia, tart (egiñ), tak, taka, takadia, takatekua, taka-taka, tan-tan —————	71
Tapa-tapa, tarrat egiñ, tarratadia, tas-tas, taupa-taupa, taupadia, tikili-makala, tilin-talan, tipirri-taparra, tirri-tarra —————	72
Trak, trak (egiñ), trakadia, traka-traka, trakatan-trakatan, triki-traka, tripili-trapala, tripili-trapalia, tun-tun, tuntuna, txalan-txalan, txilin-txilin, txin-txin, txintxiña, —————	73
Txio-txio, txipli-txapla, txipli-txaplia, txipli-txaplaka ibilli, txirrist, txist, txistadia, txitxi-potxuak, txist, txorrost, txorrostadia, txost —————	74
Txurru, txutxu-putxu, txutxu-putxuka, ujuju!, ujujua, xorrost, xorrostadia, xurru, xurruadia, zapla, zapladi / zaplatekua, zart, zartadia, zartatekua, zartau —	75
Zipli-zapla, zirrin / zirindaria, zirrin-zarran, zirt edo zart, zirti-zarta, zorro-zorro, zurrumurru, zurrut, zurrutada, —————	76

<b>12 - Jolas eta jokuak</b> —————	77
12.1 Bat, bi, hiru eta lau —————	77
12.2 Afariketean ibilli / jardun —————	79
12.3 Asajietan egin / tortolasetan egin —————	80
12.4 Astoka —————	82
12.5 Astoka-2 / “saltalásoka” —————	83
12.6 Medioka —————	84
12.7 Astoka-txixaka (astoka-3) —————	84
12.8 Begi-itxuka —————	85
12.9 Burruketan —————	86
12.10 Ezpatetan / ezpata jokuan —————	87
12.11 Fueraka —————	88
12.12 Goitti-beheran —————	89
12.13 Harrapatzen —————	90
12.14 Kateka —————	90

\*\*\*\*\*

## ERANSKIÑAK

I Argitaratu gabeko lanak —————	93
II Lan eta artikulu argitaratuen bibliografia —————	97
III Beste paper batzuk —————	107



## HITZAURRIA

Eibarko euskeriakin ikasteko eta gozatzeko liburua da *...eta kitto! Euskara Elkarteak*, Imanol Laspiurren lan eskerga eta bikaiñari esker, kaleratu dabena. Zintzo-zintzo, kolaboratzaille arduratsuen modura, hamabostero jasotako artikuluak eta, Serafin Basauri bere lagunaren sarrera eta lan bibliografikuak osatzen dabe edukixa.

Era honetako materixalekin, poliki-poliki, badihardugu eibarreraren corpora osatuz eta dibulгатzen, gure herriko berbetiak dagokixon lekua hartu deixan.

Esan biharrik ez dago, eibartarron oroimen historikuari eta geure izaeriarri ziharo lotuta dagoenez, makiña bat komentarixo eta berbakizun sortutakoak dirala hónek artikuluok eta, jakiñaren gaiñean gaoz, batek baiño gehixagok, koleziñua be eginda daukala.

Ez da legunkerixa kontua. Zergaittik eze, honek liburuonek, bere orrixetan zihar dakazen saillekin: bestiak beste, entonaziñua eta fonetikatik ekinda; esamolde, argot eta ume berbeta jatorrekin jarraituz eta onomatopeiak eta jolas-jokuekin amaituz, aukeria emoten dau, gozatuz ikasteko eta ikasiz gozatzeko. Hortik ideiatik hartuta jarri detsagu “Eibarrera jatorraren bidetik” izenburua.

Era horretako bihar baten inguruan benetalari baten konpromisu sendua dago: artikuluak osatzeko eibartar peto-petuekin grabaziñuak eta berbaldi mordua egin, horko kontuetatik entresakia gertau, bestiak beste “Lexikoia” kontsultatuz, eta, amaitzeko, publikaziñuaren behar izanetara egokittu. Ahalegiñ politta.

Hala eta guztiz be ez da hori Imanolek lagatako opakizun bakarra, liburu honen atzekaldeko gehigarrixan ikusi leikenez. Horregaittik guztiorregaittik, eibarrerari eta euskeriari bere osotasunian emondako zerbitzuagaittik, eskeiñi gura detsa, *...eta kitto! Euskara Elkarteak*, omenaldi modura, berak egindako artikuluuekin osatutako liburua.

**...eta kitto! Euskara Elkarteak**







## SARRERIA

**L**

iburutxo honen sarreriak aukeria emoten desta, gaiñetik bada be, Imanol Laspiurrek euskeriaren aldeko mogimentuan izan daberen eragiña, haren bizitza eta garaiko zenbait alderdi jakingarri azaltzeko. Euskaltzale haundia, idealista eta sasoi oso illun eta gogorretan bere konbikziñuekin beti leixal izan danak, merezi dau gure esker ona.

Imanol, euskaltzalion ikuspuntutik ikusitta, bidegiña, bide-zabaltzaillia izan dala esango neuke. Gure euskal-munduan, batez be Deba-arruan, Eibarren, Juan San Martiñekin batera aurrenengo lekuan ikusi izan dogu beti. Juan San Martin adiskidia bestelako jardunbide batian, euskaltzaiñ egin-biharrereri, kultura alderdixari eta literarixuari emonda gehixago. Imanol, euskeriaren irakaskuntzan eten barik, zenbait urtetan militanzia politikuari lotuta, ikastoliaren finkatze prozesuan eragille, euskera batuaren defendatzaillie, hizlari bikain, konzienzi-biztaille; 60. hamarkadaren atzeneko eta 70eko euskeriaren eta ikastolen inguruko debate ideologikuan, beti jarriko zan, bero-bero, euskaltasunaren alde.

1952-53. urtietan hasi zan Eibarren, gerra-osteko euskal mogimentua sortzen, Juan San Martin, Imanol Laspiur, Bittor Kapanaga otxandixarra, Jabier Zubiaurre, Jose Luis Ugarteburu, Jose Antonio Eizagirre, Paulino Larrañaga eta beste batzuen eskutik. Sasoi haretan, andrazkuen artian eta neska-mutillen artian euskerarik erabiltzen ez bazan be, Eibarren euskaria bizi-bizi eguan: lantegixetan, tekniko eta taillarretako bihargiñen artian euskaraz egitten zan batez be eta kalia eta lagun artian be bai, gehixenetan, gizonetzken artian. Baiña garai gogorra euskeriandako: bizitza publiko osuan debekauta, komunikabidietatik eta eskoletatik kanpuan, euskaria goittik behera zapalduta eguan, elizan be ez eukan-eta euskeriak lekuri<sup>(1)</sup>. Yon Etxaide ekarri eben 1955.ian Eibarrera euskal literaturaz hitzaldi bat emoteko<sup>(1)</sup>, nun eta Egotxiagako pagadipian emon be, klandestinoki, bestela ezin zan-eta, badaezpada inguruetan zaintzailliak jarritz. Halatxe ziran gauzak orduan. Zapalketa horrek eta gerra-ostian kanpotik heldu jakun jente ufalak kontrako eragiña agirixan izan badabe be, txarrena, gerra-osteko guraso belaunaldixak euskeriaren transmisiñuan huts egiñ eta behia-jotia izan da; belaunaldi horrek, etsi-etsitta, ez dau ez jakiñ izan beriarri eusten. Huskerixak eta bitxikerixak kontatzen jardutzia dirudi, baiña ez pentsau: orduan neskekiñ erderaz egittia araua zan, eta euskeraz egittia araua eta ohitturia apurtzia; neska-lagunakin be euskeraz egittia korrontiaren kontra juatia zan, fanatiko, euskeromano eta jente raro txamarren kontua. Esan deigun, bihargiñak haundikixak baiño askoz be hobeto eutsi etsela euskeriari. Harrokerixa tonto batek jarriko dau jente “dotoria”, banaka batzuk ezik, erderia darixola euskaria baztartuz. Abertzaliak jeneralian euskaltzaliago izan badira be, arazua ez zan politikoki abertzalia izan ala ez; zegaittik eze “nazionalista” batek baiño gehixagok egingo eban huts euskera kontuan, guzurra badirudi be. Euskeriaganako desprezio ofizialak berandura arte iraungo dau: 60. hamarkadaren atzenian, oindiokan, etxian euskaria besterik egitten ez eben umieri burla egitten jakuen erdal eskoletan, erderaz txarto egitten ebelako.

Ze esanguratsua, egoera horren aurrian, erbestetik itxultzian, Toribio Etxebarriaren<sup>(2)</sup> hónek berbok erakusten daben barruko miña: *Nun (da) a danen euskera? / Euskeraz Katekismua / euskera maittien izketia / ta euskeraz Sozialismua!* Ba horrek guztiorrek eragitten dau euskaltzale talde horrengan: alkartu egingo dira, antolatu egingo dira eta euskeriaren aldeko lanari ekingo detse.

Eibarko euskaltzale talde horrek, Euskal Herriko hainbat talde eta personakiñ izango dittu harremanak: irakaskuntza-esperienziak alkarrekin trukatzeko, Euskal Herriko arazuak aztertzeko edo literaturaz jardutzeko. Frankismuaren garai gogorak ziran eta mendixan alkartzen ziran iñoiz: Urbixan, Antzuolako Usarragan, Arraten...baitta behiñ Oiartzungo Ugaldetxon be Iparraldekuekin (billera honetan egindako bertso batzuk gordeta eukazen Imanolek, Arestirenak dirurixenak); *Eusko Gogoako* Jokin Zaitegi, Alfonso Irigoien, Yon Etxaidekiñ, orduan nik neuk be ezautu nittuanak; eta Txomin Peillen, Karmele Rotaetxe, Txillardegi, Aresti, Balendiñ Aurre-Apr aiz, Nemesio Etxaniz, Charrittonekin..., hórrekin guztiokiñ eukezen harremanak. Mogimentu euskaltzalia indartzeko hain premiñazkua zan harreman saria moldatzen juango da. Imanol hor egon zan danian.

Euskaltzale mogimentu horren hasieratik bertatik ekitzen detsa Imanolek euskera erakustiari: Zabala Aranaren gramatikiaren bidez lehelengo, hurrengo Xabier Peñaren ikasbidiakin. Euskaltzale talde horrek bultzauta eta Urkixo Mintegiaren babesbian, Andoni Urrestarazuren gramatika, “UMANDI”rena, argittaratzen da 1955. urtian. Irakasbide hori erabilliko dau bere irakaskuntza jardunian, 1968tik aurrera euskara batura makurtuaz zihero. Rikardo Arregi (Imanolen berbetan probidenziala zana) datorkigu gero euskalduntze-alfabetatziaren aldi berri bati ekiñez eta prozesu horretan be hartuko dau parte. Urte askotako esperenzian oiñarrittuta bere *EUSKARA IKASBIDEA* deritxon euskara-hobekuntzarako metodoa osatuko dau, makiñaz idatzittako 546 orrialde-multzua, eta ikasbide honekin segiduko hainbat eta hainbat taldekin, bere euskara-irakaskintza lan emankorrian; irakasliak sortuko dira hortik gau-eskoletarako. Deba-arro osuan, pare bat urtetan bai, ikastoletako andereño eta irakaslieri euskera-ikastaro laburrak ematen jardungo dau. AEK modu profesionalago batian eratu ostian laga zittuan bere euskera-erakustaldixak, 20 urtetik gora horretan jardun ondoren. Duan jardun be.

Imanolen beste alderdi bat aipatu barik ezin ba laga: 50. hamarkadako egoera ittogarrixak eruango dau erakunde abertzale klandestinetan burrukan egittera. Makiña bat illuntze eta domeka goiz egingo zittuan hara eta hona Deba-arro guztian militante gaixak formatzen. Kultura edukiñ haundixa euken hórrek prestakuntza-berbaldixok: historixia, eskubide historikuak, gure naziñotasunaren osagarrixak, politikia....; hórrek guztiok erakusteko itturrixak eta liburu guztiak erderaz egon arren, gaixa estudixau eta mamurtu ostian euskeraz emoten ziran. Oiñarrizkua zan euskera formaziño tresnatzat erabiltzia; euskera elementu zentraltzat eban-eta gazte belaunaldi horrek. Lehenengo EKIÑen eskutik, gero EGIñ eta atzenengo ETA erakundian jardungo dau 1961ian preso hartzen daben arte. Tortura ikaragarrixak sufridu-eragiñ etsezen komisarixan, seiñaliak agirixan lagatzeko iñungo ardura barik; a zelako zarraria haren gorputza goittik behera ubelduta ikustian!. Lau urte egin zittuan gartzelan. Harrezkero ez dau politikan parte zuzenik

hartuko, ezta 1977 ondorengo garai barri honetan be, nahiz eta beti jarki izan dan injustiziaren kontra. 1968xan Granadako Zafarraya herritxuan egon zan desterrauta<sup>(3)</sup>. Konponbide baketsu, demokratiko, justu eta adostuaren aldekoa zan.

Ikastolen Gipuzkoako Federaziñoko talde bateragilleko partaidia izan zan 1971an Guraso Heziketa saillian. Hainbat eta hainbat hitzaldi emon zittuan sasoi horretan, gurasoen konzienziak bizte eta astintze aldera<sup>(4)</sup>. Eibarko ikastolako presidente be izan genduan aldi batez.

Euskaltzaindiko urgazle izendatzen da 1975.eko ekaiñaren 27xan eta 1976.eko martxuaren 27xan irakorriko dau “*Azentu diakritikoa Eibarko euskarari*” bere sarrera-hitzaldixa. Euskera kontuan, beti Euskaltzaindiaren arauen kunplitzaille zintzo, segiduan onartuko dittu Arantzazuko billeraren erabagixak eta harrezkerokuak. Ama eskoriatzarra eban eta aitta bergararra, eta bera Bergaran jaixua izan arren ume-umetatik Eibarren, ondo ezautzen zittuan Deba-arroko euskalkixak<sup>(5)</sup>. Euskera batuaren zalia zan baiña Eibarko euskaria ikaragarri maitte eban. Makiña bat lan egiñ izan dau Eibarko euskeriaren berezittasunak argitzen, bai hitzaldixen bidez, bai idatziz, azken aldi honetan ...*eta Kitto!* gure aldizkarixan eta liburutxo honetan biltzen diran 72 lanekin. Gaur egun, gaztien artian euskeriaren erabilleria asko gehittu bada be, ez eukan Eibarko euskeriaren etorkizunakiñ esperantza haundirik; kezkatuta gaztien artian entzuten dan nolabaitteko *pidgin* horrekin. Komunikabidietan entzuten dan euskeriaren kalidadiakin be oso arduratuta, gehixen errepikatzen diran akatsen zerrendak eginda zittuan. Udaleko Euskara Batzordeko Eibarko euskera mintegixan partaide, *Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak* jartzeko be emon eban bere partaidetza. Heriotzara eruan daben gaitx zittal hori dala-eta operau aurretxoan, eskuartian erabixazen lanen azken apuntiak ordenadorean, uztaillaren 23 eta 24kuak: *Eibarko euskeriaren deklinabidia* eta *Eibarko euskeriaren entonaziñua*. Egoki datorkitt *Bitoriano Gandiagarena*<sup>(6)</sup>: ***Hasi. Egunari heldu / eta segi. Ahal dudan arte / ekin. Eta etsi / ezin dudan unean***; horixe izan da bihargiñ apart honen jokamoldia, azkenera arte segi.

Idatzitta laga deskunaz, ikusi aparteko haren lanen bibliografixa-zerrendak. Argittaratu diranak zeñ ez diranak, danak dira interesgarrixak Imanolen ekarpena ezagutzeko eta sasoi haren barri jakitzeko. Dana dala, aittatu deirazen, gaiñetik bada be, argittaratutako haren lan idatzixak: *Mila Euskal Olerki Eder*, *Euzko Gogoa* eta *Olertin* dittu zenbaitt bertso *Maitale* eta *Lastarri* izenordez. *Jakinen* badittu saiakera batzuk, hala nola, *Euskal-joskera*, *Ikastola eta gurasoak*, Eibarko “*Maquinas de coser Alfa S.A.*”, “*Kooperatibak*” ale berezixan. *Euskera* Euskaltzaindiko boletiñian lehen aittatutako sarrera-hitzaldixa, eta *Eibarko ikastolaren historia txikia*. Itzulpenetan, *Munduan zehar*-eko 8. liburukixa. Aldizkari eta egunkarixetan artikulu egille: *Zeruko Argia*, *Eibar aldizkaria*, *Kezka*, *Anaitasuna*, ...*eta Kitto!*, *Egin*, eta *Euskaldunon Egunkarian*. Haren *Zeruko Argia* eta *Egineko* artikuluetan zerbaitt nabarmentzekotan: euskaltasunaganako leixaltasuna, zapalkuntza guztien kontrako jarrera eta gertakizunen aurrian bihozkadak eta sentimentuak eraginda idazten ebalu sarri; zenbaitt pertsona maitte eta miretsiren hilbarrixak, hala nola *Edurne* bere arrebarena, *Indaleki Ojangurenena*, *Monzonena*, *Iñazio Gaztelurrutiarena*, *Santi Brouard* hil ebeneko *Independenzia!* deritxon artikulu, horregaittik ia auziperatu ebena, *Txopirena*, *Juan Jose Etxabe* Eibarren euskara ikasle izan ebanarena, *Egunkarian Eusebio Osa* eta *Estitxurena*, *Erronkariko uskararena*; gartzelaz eta torturaz...; bai eta toponimiaz; industriaz; kirolaz; euskaria eta ikastoliaz....Euskera ederrian beti.

Hitzaldixak, asko emon zittuan, bai ikastoliaren<sup>(4)</sup> eta bai euskeriaren<sup>(7)</sup> inguruan. Batzuk makiñaz idatzitta laga dittu eta gehixen-gehixenak eskuz eta txukun. Hor dago hitzaldi zerrendia, bai eta zein herrittan emon zittuan be.

Azken aldi honetan, Eibarko zenbaitt pertsona adiñekori alkarrizketa grabaketak egitten ziharduan: badau bat, oso luzia, Candido Eguren 92 urteko bere lagun miñ eta sozialista zahar bizkorrari egindakua, baitta beste bat Zatixa elkartian 80 urtetik gorako beste eibartar talde bati egindakuekin be. Besterik be izango da seguru. Aztertu egin bihar, laga dittuan zintta pilluaren artian.

Argittaratu bako "*Euskara Ikasbidea*", "*Morfo-sintaxia*" eta "*Beste paper batzuk*" izenburupian bildutako dokumentaziñuakiñ eta grabaketekiñ, informaziño-fondoren bat eratu biharko litzake Eibarko Udalaren "Ego-ibarra" batzordian.

Euskaltzaindixa, ikastolak, unibersidadia, herri-mogimentu eta Gobernu erakunde, hórren guztien lanari esker, aurrera-pauso nabarmenak emon dittu euskeriak azken 30 urtietan. Gaur egunian, euskaltzale mogimentua sendo antolatuta dago, indartsu; konparau gaurko Kontseilua eta berroren inguruan biltzen diran hainbat herri-erakunde eta komunikabide, lehen aittatu doran 50eko hamarkadaren atzenetako harreman sariakin. Gaur egunian, ondo idazten da lehengo aldian eta jente asko dago euskaria sakon estudixau dabena eta asko dakixana. Eta hori danori eziñezkua izango zan, baldiñ eta oiñarrixan, herrixetan, Imanolen moduko bidegiñ, animatzaille eta bultzatzaillerik izan ez balitz. Batez be, erabilleran eta euskera mintzatuaren kalidadian daukagu arazua, arazo latza euki be. Baiña arazueri heltzen bajakue, aurkittuko jakue erremedixua. Borondatian dago koxkia, horretarako jarri bihar diran bittartekuetan, eta gutariko bakotxak egin bihar daben ahalegiñian.

Imanolen jardunbide guztian garrantzi haundixa euki daben beste alderdi bat aittatu barik ez dot amaittuko: famelixia. Gaztetan amets eban famelixia bete-betian lortu eban, Arrate bere emaztia izango zana, "Deportibo"an, Santi Arizmediren<sup>(8)</sup> esperanto klasietan (norberarena eta unibersala batu nahixan-edo) ezagutu ebanetik. Harrezkero, batasun estuan beti alkarrekin izago dira, bai euskeriaren aldeko lanetan baitta militanzia politikuan be, pozaldi eta sufrimenduak alkarrekin eruanaz. Personiaren gizartiaganako ekarpena aztertzerakuan ez da ha bakarrian ikusi bihar, etxe-inguruak be sekulako eragiña daukalako personiagan. Eta Imanolengan be bai; giro berua, laguntzia eta animuak ez jakozen falta izango Arrateren eta seme-alaben aldetik, ez horixe!.

Imanol euskaltzale, bihargin nekaeziña, kirolari, natura-zale, Club Deportiboko tertulixa<sup>(8)</sup> háretako solaskidia, maitte-maittia genduan Eibarren. Azken agur zarragarri eta samurra egin jakon Natibittate egunian Orbeaneko frontoian bai eta bixamonian be, "Euskarari bai" ekittaldixan bilduta egozen milaka eta milaka euskaldunekin batasunian eta momento berian izan genduan elixako hilletan.

Onenak emateko zanian joan jaku Imanol. Ez da ez erreza izango laga daben hutsunia betetzia, ezta amets eban utopixa ederrera hurreratzia be. Baiña ahaleginduko

gara, lehen aittatu doran Bitoriano Gandiagaren poemaren azkena lagun: **Beti egiten dut irrist / helburua baino lehen / eta hurrengo eguna / beste kukaina bat da.**

**Serafin Basauri**

Oharrak:

(1) Ikusi: Juan San Martin : "Yon Etxaide, idazle bikain eta adiskide minaren oroitzapenez", in JAKIN 110, 50. orr.

(2) Toribio Etxebarria 1959xan Hendaia-araño hurreratu zan erbestetik, baiña ez eban mugarik pasau. Urte horretako udan bisittau eban Juan San Martinek Hendaian eta argazki bat egin bere *Escritores euskericos* liburuan argittaratu ebana, nun agertzen dan Luis Ormaetxea eta Edorta Alberdirekin. 1964ko ekaiñian bueltau zan erbestetik Eibarrera (berriro Caracaseru juateko) eta herrixan ikusi dittuan aldaketa ikaragarrixak eraginda idatziko dau *Aldenduan itxulitzia*, nundik hartu dittugun samintasunezko berbok. Ikusi: *Ibiltarixanak* 162. orrialdia. (Juan San Martin adiskidiari zor detsaraz ohar honetako argibidiak).

(3) Ikusi: Hegatsez-en eta "Beste paper batzuek"en, *Z.Argiara* bialtzekotan-edo baiña argittaratu direnentz ez dakigun 5 artikulu *Desterrutik* izenburuakin.

(4) Ikusi: "Beste paper batzuek"en: *Ikastola. Txostenak eta hitzaldiak*.

(5) Ikusi: "Beste paper batzuek"en, eskuz idatzittako hónek bi hitzaldixok: *Leniz-tik Deba arteko ibarreko euskara eta Euskara Eibarren* (1973).

(6) " Denbora galdu alde ", *Erein*-135. orrialdia.

(7) Ikusi: "Beste paper batzuek"en : *Hitzaldi eta mahai-inguruak euskararen inguruan*.

(8) Santi Arizmendik esperantoko eskolak emoten zittuan Club Deportibuan. Sapatu gabetan Deportibuan tertulixak izaten ziran, oso interesgarixak. Gustora batzen ziran han: Santi Arizmendi bera, Irisarri zaharra, eta Juan San Martin, Imanol, Bittor Kapanaga, Paulino Larrañaga, Serafin Basauri, .... eta beste euskaltzale eta mendizale batzuk, jeneralian, gai politiko, kultural eta Euskal Herriko arazuen gaiñian berba egitteko, ohera juateko iñungo prisa barik.



## 1.- EIBARKO EUSKERIA

Zer da Eibarko euskera eta noiztik dator guganaiño? Hona hemen hasteko moldau geinkezen galderak.

Zer dan? Ehundaka eta, akaso, millaka urtetan Eibar hirigune eta inguruko mendarte esparruan berba egin dan berbetia da. Eibarko berbetia, hau da, eibarrera. Baiña batez be geure artian berba egitteko, alkar ulertzeko eta alkarren artian konpontzeko erabili dogun tresnia da, urte askotan geure arteko berbeta propixo eta bakarra be izan da.

Baiña, ondiok gehixago: ez da erreminttia bakarrik, alkar ulertze eta konpontzetik kanpora, eibartarrak bere barruan eruan eta erabili izan dittuan kezka, maittasunak, (gorrotuak be bai), ametsak, siniskerixak, bildurrak, jaixotza eta heriotzako misterixuak, beste mundu eta jainkuekiko siñismenak, ... sorgiñak, basajaunak, lamiak, ... mitologixa bat... kultura bat... NORTASUNA...NITASUNA eta abar egiñ eta eratu dittu.

“Ni euskalduna naiz” eta “eibartarra naiz” esaldixak aditzen emoten dabe ehundaka urte luzetan gure kolkotik ataratako arnasaren muiña dirala.

Eibarko berbetiak eman detsa eibartarrari beti izan daben hain nortasun berezi eta sendua. Eibartarra edonun da ezaguna Eibarko euskera jatorra darabilenian, eta nortasun horri esker da inguruko eta urriñagoko herritarren artian desberdin, “diferente”.

Eibartarrari, beste euskaldun batzueri moduan, euskeriak emon detsa bizitza eta mundua bera ikusteko eta ulertzeko era berezi eta propixua. Begira: Amerikaren aurkikuntzaren V. mendeurrena ospatzeko REAL ACADEMIA ESPAÑOLA-k gaurkotuta eta osatuta etara daben “DICCIONARIO DE LA LENGUA ESPAÑOLA” bikaiñaren hitzaurrian holatxe diño argitalpen barri horri buruz: *“Lo hace para cooperar al mantenimiento de la unidad lingüística de los más de trescientos millones de seres humanos que, a un lado y otro del Atlántico, hablan hoy el idioma nacido hace más de mil años en el solar castellano y se valen de él como instrumento expresivo y conformador de una misma visión del mundo y de la vida”*. Euskaldunontzat euskera, eta eibartarrantzat Eibarko berbetia, horixe bera izan da, baiña gaztelania sortu baiño millaka urte batzuk lehenago. Gure zaharrak ez dabe erderarik ezagutu ehundaka urtetan eta euskara izan dabe euren berbeta bakarra. Horrek moldau dau gure nortasuna.

Noiztik datorren euskera? Horren aztarrenak historixa-aurrian galtzen jakuz. Gitxienez, Koldo Mitxelena hizkuntzalarixak, zuhur izanda, bost bat mila urte emoten detsaz euskariari, baiña Jose Migel Barandiaran jakintsuak askoz be gehixago emoten detsaz.

Eibarko euskera ona da ondo egitten danian eta txarra txarto egitten danian eta hori hizkuntza guztietan pasatzen da. Beraz, gaurkoz, hórrek idiok euki daiguzen buruan eta aurrerakuan egingo ditturan artikulotxuetan zabalduko dittugu eibarreraren gaiñeko zelanbaitteko gogoetak eta, ahal dan neurrixan, eibarreraz egitten ahaleginduko naiz.



Lehenago esan doten moduan, Eibarko euskeria ona dala ondo berba eitten danian eta txarra txarto jarduten danian. Eta egixa da, baiña ez dittugu gauzak bere neurritik atara bihar. Igezko San Andres bezperako afari batian honela esaten estan mahaiko batek: “Hi, egixa dok, ezta, Eibarko euskeriaren berbua onena dala?”. Ezin izan nintzan egon barre algara bat bota barik. Kontuz! Eibarko euskal aditz edo berbua ez da, seguru asko, Euskal Herrixan txarrena izango, baiña ezta, iñundik be, onena. Ez dittugu hankak lurretik galdu bihar.

Gauza bat dago garbi: eibartarrak, ehundaka urtietan eibarrera berbetia izan dau nahiko, eta erabili dau bere bizitzako gauza guztietarako: giza hartu-emonetarako, mendi eta laborantzako bihar guztietarako eta, baita lantegixetan be. Eibarko euskal lexiko hori eibartarrak asmautakua izan da bere eguneroko bihar teknologikuaren eboluziño barruan eta alboko herrixak zeozer kopixau deskue, baiña asko ez. Gu geu, gaztetxo giñala oindiok, Armerixa Eskolatik urten eta mekaniko zaharregandik entzunaz ikasten genduan: “hi, hori ez dok zerria, hori epaikixa dok”, “hi, ez dok esaten rebenidu, suberatu baiño”, “hau ez dok sojia, urebagixa dok izen jatorra”, “Ez egik esan fragua, sutegixa dok-eta berba jatorra” eta abar. Eta ez genduan problemarik eukitzen berba teknologiko unibertsalak erabiltzeko be. Eibarko geure berbetaren erara moldatzen genduazen berbarik gatxenak, esate baterako: “hi, pieza horrerri metrika 8-ko harixa emoixok” eta ez genduan “rosca” esango, harixa baiño. Eta ez giñan kokiltzen bestelako zenbait erdal berba tekniko euskera barruan emoteko orduan; dana egitten genduan euskeraz: “Ikusik zela etaratzen jakon bisektriza konpasakin honi anguluoni” eta aurrera. Honekin esan gura dot, eibartar euskal berba petorik ez gendunian be euskeraz segitzen genduala bildur eta lotsarik barik. Berba batian: euskeraz bizi giñan.

Eibarko berba teknologiko petuok Juan San Martiñek dakaz batuta (EUSKERA - “Eibar’en erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikuak” III - BILBAO - 1958) eta horren gaiñeko atala datorrenian, zeozer emongo dogu.

ADAM SCHAFF Poloniako hizkuntzalari famatuak esaten eban “Hizkuntziak, berbetiak, gordetzen dau herrixaren kulturia” eta hori egixa izanda, eibartarron kulturia Eibarko euskeriak gorde dau, eta ez dago beste bueltarik. Honako beste hau be esaten eban: “Hizkuntziak pertsoniaren ekintza, jokabidia eta konportamentua bera be moldatzen dau”. Dударik ez dago, berbetia zentzunaren frutua dala eta, horregaittik gure buruaren eta ekintzen bittarteko egitten dau hizkuntziak, bixen arteko tresna eta loturia dalako.

Gaur pentsamentu honekin amaittuko dot: Eibartarren euskal berbetia hil deiñian, eibartar nortasun berezixa hilgo da. Ez deilla holakorik gertatu.

BERTIL MALMBERG hizkuntzalari ospetsuari irakorritta dakat honako hau: “Hizkuntziak gizondu dau gizona” (BERBETIA ETA GIZONA liburuan. Jatorrizko edo titulo originala “Spraket och människan”. Estokolmo)

Zer esan nahi dau esaldi horrek? Gizonaren edo gizakiaren eboluziño barruan animalixa hutsa izatetik urten eta pixkanaka-pixkanaka gizakitzen edo humanotzen hasi zanian, beste animalixa eta friztixa danen artian bera bakarrik izan zala hizkuntzia edo berbetia erabiltzen. Orruak eta urrumak laga eta berba bakar batzuetatik hasitta apurka

apurka aurrera jo eban berbetia aberastuz, baiña bere berbetia aberasten eban neurrixan aberasten eban bere buru, adimen eta inteligentzia eta, horrekin batera, bere eskuen eta gorputzaren trebetasuna eta abildadia be bai.

Horretara bi funtziñoren arteko hartu-emon estuak jardun eban lanian: eskuak trebetu ahala, burua trebetzen eban eta burua intelegentetzen zan neurrixan berbetia aberasten eban, baina berbetia zenbat eta aberatsagua izan, orduan eta gizakiago edo humanuagoa bihurtuz etorri zan lehelengo animalixa eta geruagoko gizona. Horrekin batera ekarri eban bere aurrerapena. Eskerrak berbetiari, alkarren arteko gauzarik premiñazkuenak asmau eta sortu ahal izan zittuan: sua, erroberia, edozein tresna eta tramankulu, txabolak, etxiak eta abar, baiña gehixen bat euren arteko maittasun, asmo, gogo eta bizitzaren filosofixia erabiltzeko kapaz gertau zan berbetiari esker.

Horretxegaittik, ha lehenengo animalixia, apurka apurka “gizondu” (eta emakumetu, jakiña) egin zan; eskerrak berbetiari. Baiña hori millaka eta millaka urtetan formatzen juan zan.

Erregela hori erabilliz (eta hori, gaur, munduko hizkuntzalari guztiak dake onartuta) oker barik esan geinke eibartarra eibartar zaharregandik jasotako berbetiak gizon-emakumetu edo humanotu dabela. Eibarko berbetiak pertsonatu gaittu.

B. Malmberg-ek berak diño hau be: “Gero eta garbixago dago ikertzaillientzat berbetia eta pentsamentua gauza bera dirala”. Gizarte baten pentsamentuak sortu dau bere hizkuntza edo berbetia eta eibartarrena “eibartarra” edo “eibarrera” da.

Holaxe, hizkuntziak adimentsu bihurtu dau pertsonia. Baina berbeta guztiak ez dira bardiñak eta horrek esan gura dau gizarte batek edo herrialde batek beran erara moldau dabela berba egitteko modua. Euskeriaren barruan bertan, itzelezko berezitasuna dakagu eibartarrok geure “eibarrera” egitten dogunian. Eta antzerakua gertatzen jakue beste euskal-herrixeri be. Esate baterako, plaentxiarrak eta eibartarrak ezin dogu ukatu nundarrak garan euskeraz dihardugunian. Antonio Retenagak kontau zestanau da politta. Bazoian behin batian aittakin Alemaniako Düsseldorf-ko kalietan eta euron atzekaldian bateronbatzuk euskeraz berbetan etozen. Aittak esaten detsa Antoniori: “Etxakixat zeintzuk diran gure atzian datozenak, baiña, duda barik plaentxiarrak dittuk”. Bueltia emon eta egitten detse.- “Nunguak zarie zuek?”- “Ene! gu plaentxiarrak”.

Aurrerago ikusi dogu zelan hizkuntza edo berbeta bakotxak beran izate apartekua dakala eta, baitta, euskalki edo dialekto eta azpidialektuak be, bakotxak beria dabela. Eta zer esan eibartarron euskeriagaittik? Guk eibartar (eibarreraz) dihardugunian ezin dogu iñun ezkutau nunguak garan eta hori benetan da harrotzekua. Geure berbetiak emoten desku eibartarrok dakagun nortasun berezixa. Kardantxillua kantuan entzun eta aittu batek zer txori klase dan igartzen ez badau, ez da kardantxillo ona edo ez da kardantxillua. Bakotxak beran kantua dakan moduan, eibartarrok geure euskeria dakagu.

Berbeta bakotxak badittu oso beriak diran aditz edo berbojoko jatorrak, lexikuan diran berba berezixak, esaera petuak, beria bakarrik daben entonaziño aparta eta abar.

Lehenago esana dogu hizkuntza eta berba-modu bakotxak badakala norberan ideia eta esangurak azaltzeko era propixua eta Eibarko euskeriak badittu, euki be, beriak bakarrik dittuan peto-petuak. Esate baterako erderaz “está lloviendo a cántaros” forma jatorra entzun eta ez dogu, guk, “ontzikadaka eurixa da” esango, hori erderaz pentsatzia izango litzake-eta. Eibarren, jator, “truxalak botatzen dihardu” edo “truxalak dira” esango genduke. Eta hau Resurrección Maria de Azkuek berak ez daka, bere hiztegi ikaragarrixan hola jasota, Bizkaixan erabiltzen ei dan “truisu” baño: “Onek dira euri-truisu ederrak!”. Orduan, guk geure forma berezixak dittugu. Eta hau: “Gaur Astelena frontoia inkillauta jeuan” (hiketari). Hori Eibartik kanpora ez dot uste inork erabiltzen dabenik. Gaur, txarto berba eginda “abarrotauta” be esaten dau batek baño gehixagok eta hórrek erderakadok baztatu egin bihar dittugu. Baita “hori ulia hartzen dabil”, esate baterako, erderaz berba eittia da, ze euskeraz, jator, “hori adarra jotzen dabil” edo “horrek adarra jotzen dihardu” esan bihar da, horixe da-eta euskera jatorra, Eibarren beti egin dan moduan.

Eibarko euskeran nahikua aberats gara modismuak, lokuziñuak eta esamolde jatorrak erabiltzen be. Geruago ikusiko dittugu batzu-batzuk, baiña, esate baterako, gaur ez dira entzutzen “horrek arrio egin dau” eta holakuak. Eta zer esan gura dau horrek? Ba, zoritxarrez, gaur, postura edo lehiaketa baten aurrian “atzera jo” edo “rajau egin” dala esaten dabe.

Gure gurasuengandik guregana euskera asko galdu dogu eta guregandik gure seme-alabengana beste mordo bat. Zer esan, orduan, hurrengo belaunaldira zer galdu leikian benetan lehengo zaharren berbeta aberatsa jasotzen eta erabiltzen ahalegintzen ez bagara? Gertatzen dana hau da: Koldo Mitxelena gure hizkuntzalari haundixak esaten ebanez, euskera osua ez dakixala inork eta, jakiña, Eibarko euskera osua edo dana be ez dakigu inork, baiña benetan ahalegindu biharra dakagu.

Eibarko euskeriaren ezaugarri peto eta konstantiak edo iraunkorrak asko dira: Entonaziñua (oso garrantzitsua), aditz edo berbo jokaldi berezixak, laburdurak edo kontrakziñuak, berbo nominalizatuak, -ka/-ke atzizki pribatibuak, femenino erromanikuak, lexiko edo bokabularixua eta abar, baiña hori dana poliki-poliki ikusixaz juango gara hurrengo ataltxuetan.

## 2.- ENTONAZIÑUA

“Entonaziño” kontu hau Eibarko euskeriari buruz dihardudan nere emonaldi guztiaren atzenian emoteko asmotan nintzan, baiña ointxe bertan, asko sakondu barik bada be, emotia erabaki dot. Asko sakondu barik diñot ze, bestela, gai luze eta teknikuegixa izango litzake zenbait irakorlerentzat eta ez dot nahi iñor larregi nekatu, ez aspertu. Horregaittik, entonaziñuaren ataurrian bakarrik geldittuko naiz, aurreregi jua barik.

Azentuaziñua eta entonaziñua ez dira gauza bera. Euskeran, gaurkoz behintzat, zorionez, ez dakagu azentu grafiko edo idatzirik eta gure azentu danak, prosodia barruan, akustiko hutsak dira. Espaiñolez azentu batzuk idatzixak dira, grafikuak, baina guk ez dakagu holakorik. Horregaittik, gure euskal azentuaketa belarriz ikasi eta erabiltzen dira. Baiña azentuak zela erabilli, entzunaren entzunaz ikasten dira eta horren erabillera jatorrak entonaziño jatorra erabiltzia be eragitten dau.

Berba batian, esaldi edo frase batian azentu desberdiñak dagoz, batzuk azentu nagusixak dira eta beste batzuk nagusixen azpiazentu edo mendekuak. Azentu desberdiñok sortzen daben soiñu moltsuak “andana” edo berba talde fonikoa eratzen dau eta hori dana entonaziño barruan sartzen da.

Hortan, nahiz berba, nahiz frase baten barruan erabiltzen dittugun azentu desberdiñak, batzuk altuak eta beste batzuk bajuaguak, halako modulaziño edo “melodixa” bat sortzen dabe eta horixe da entonaziñua. Eibarko euskeriak bere beria daben entonaziño aparta daka, baiña betiko eibarrera jatorrak diñot, ze gaur askok eta askok darabilen euskeriak erdal entonaziño kalkaua daka-eta. Esate baterako “gaur mendixan ibilli gára” esaten bada erderazko “hoy hemos andado en el monte”-ren entonaziño berbera daka, baiña hori ez da sekula eibartar jatorra izan, beste hau baiño: “gaur mendixan ibilli gará” azentu prosodikua atzian dabela, “agudo” egiñaz. Baiña gauzak hobeto ikusteko ejenpluak sailkatu egingo dittugu:

### 2.1. Lehenengo arau edo erregelia: agindukerak eta erreguak

Agindu edo erregu bat emoten danian, beti “agudo” moduan entonauko dogu esaldixa, hau da, azentu nausixa atzenengo silaba gaiñian indartuaz.

#### **Eibarrera jatorrian**

- Emoidazu ogixá.
- Geldi egon zaittez mesedéz.
- Etorri zaittez bixar goixián.
- Ezeizu holakorik esán Jesúsá.

#### **Ez -jatorrian**

- Emoidazu ogíxa.
- Geldi egon zaittez mesédez.
- Etorri zaittez bixar goixián.
- Eseizu holakorik ésan Jesúsá.

Hobeto ikusteko, azentu nausixa grafikoki jartzen juango naiz eta beran silaba azpimarratu egingo dot.

Kanpoko batek beste berbeta bat entzutzen dabenian, lehenengo, entonaziñuan konturatzen da; berbuak zela erabiltzen ditudan, ahoskera (pronunziaziñua) zela darabilen edo beste ezer baiño lehen, haren “berba-kantuan” konturatzen da. Nork ez dau, esate baterako, ondarrutar bat urriñera entzunda, zer esaten daben jasotzen ez badau be, haren “berba-kantu” berezixagaittik ondarrutarra dala ezagutzen? Gauza bera gertatzen da eibartarokin be. Eibartarrok, berez, alde batetik, zaratatsuak gara berbetan, bihar bada, zenbait gizalditako lantegi zaraten artian ohittuta edo, baiña, zaratatsuak gara eta, bestetik, geure entonaziño berezixa dakagu.

Entonaziño kontu horretan agindukeran eta erreguetan zelako joeria dakagun ikusi dogu, asko ez bada be, baiña beste esaldi bat edo beste jarriko dogu:

### **Eibarrera jatorrian**

- Kontuz ibilli hadi neská horrekín.
- Etorri zaittiez nerekin.
- Ataraizu txakurrá kalerá.
- Argí ibilli zaittez geró, neská.
- Guaziak mendirá, mutillák.

### **Ez -jatorrian**

- Kontuz... neska horrékin.
- Etorri zaittiez nerékin.
- Ataraizu txakúrra kaléra.
- Árgi ibilli zaittez géro néska.
- Guaziak mendíra, mutíllak.

Hauxe da agindu eta erreguetan erabiltzen dan entonaziño joera jatorra. Badira beste desberdin batzuk, baiña ez dot nahi gehixegi nahastu irakorlia. Dana dala, lehenengo entonaziño jator hori errekuperatu biharra dakagu eta ez erderazko tonuan erabilli gure esaldixak.

## **2.2.- Bigarren arau edo erregelia: Agurrak eta interjeziñuak**

Agurretan eta zenbait interjeziño erabiltzen danian be, “agudo” moduan entonatzen da eibarrera jatorrian eta ez gero eta gehixago entzutzen dan erderazko modulaziñuan. Ikusi:

### **Eibarrera jatorrian**

- Egunón Mariá, ondó zabíz.
- Kaixo, Felipé.
- Aupa mutillák! Aupa Txomín!
- Gero arte Josú.
- Oso ondo, Edurné!
- Agúr Mariá, graziáz betiá.
- Eup, Bixenté, argí ibillí!
- Aupa, Marínó, saka gogór!
- Agur, Matildé, eta ondó bizí!.
- Kaixo, Aná, zer modúz?

### **Ez -jatorrian**

- Egúnnon Mariá, óndo zábiz.
- Kaixo, Felipe.
- Aupa mutíllak! Aupa Txómin!
- Gero arte Jósu.
- Oso ondo, Edúrne!
- Agur Mariá, graziaz betiá.
- Eup, Bixénte, árgi ibíllí!
- Aupa, Maríno, saka gógor!
- Agur, Matíilde eta óndo bizi!.
- Kaixo Ána, zer modúz?

## **2.3.- Hirugarren arau edo erregelia: harriduretan / admiraziñuetan**

Harridura edo admiraziñuetako esaldixetan, eibartar jatorrak “agudo” moduan entonatzeko joeria daka, zera, atzenengo silabetan indartzen dittu tonu altuenak. Ikusi adibide batzuk:

**Eibarrera jatorrian**

- Ené, ze mahai luziá!
- Hau egin dá mutíll ederrá!
- Horí dá gauzá ederrá!
- Ai, hau bai ogí gozuá!
- Ené, ze barregarríxa zuk esán dozuná!
- Enebá, horí dá gizúr garauá!

**Ez -jatorrian**

- Ene, ze mahai luziá!
- Hau egin da mutill ederra!
- Hori da gauza ederra!
- Ai, hau bai ogi gozúa!
- Ene... zuk esan dozúna!
- Enebá, hori da gizur garaúa!

**2.4.- Zenbait toki-izen edo toponimo**

Toki-izen edo toponimuak erabiltzerakuan, lehengo zaharrek ez moduan, gaur egun, gero eta gehiago darabill eibartarrak erderazko entonaziñua eta penagarríxa da, ze, eibarrera jatorrian beti erabilli izan da doiñu berezi batez eta bide horretan bagoiaz erderatuz daroiagu betiko eibartarren “berbakántua”. Ikusi adibide batzuk.

**Eibarrera jatorrian**

- Apálategi, Apálategin, Apálategira...<sup>(\*)</sup>
- Árraten egualdi txarra da. (árraten)
- Élgeta. Élgetan egon gara.
- Ermúa. Ermúan ibilli gara gaur.
- Ábontza. Ábontzan etxe asko egin dabe.
- Amezábalegi. Amezábalegikua da hori.
- Árragueta. Árraguetakua.
- Élgoibar, “Élgoibarkua”, Élgoibartik...
- Élgetakalia, Élgetakaletik...
- Galdarámiño, Galdarámiñon, Galdarámiñora.
- Ibárkurutzia, Ibárkurutzian...
- Íbargaiñ, Íbargainekua, Íbargañetik...
- Jardiñeta, Jardiñetan, Jardiñetatik...
- Bidebárrixeta, Bidebárrixetakua...
- Mékola, Mékolan, Mékolakua, Mékolatik...
- Kálamua, Kálamuatik, Kálamuara...
- Úbitxa, Úbitxan, Úbitxakua, Úbitxara...
- Aretxábaleta, Aretxábaletakuak...
- Ólrerega, Ólreregakua, Ólreregara...

**Ez -jatorrian**

- Apalatégi, Apalatégin, Apalatégira...
- Arráten egualdi txarra da.
- Elgéta. Elgétan egon gara.
- Érmua (érmua). Érmuan ibilli.
- Abóntza. Abóntzan etxe asko...
- Amezabalégi. Amezabalégikua da hori.
- Arraguéta. Arraguetakua.
- Elgoíbar, Elgoibarkua, Elgoibartik.
- Elgétakalia, Elgétakaletik...
- Galdaramiño, Galdaramiñon...
- “Ibarrekrúz, , Ibarrekrúzen...”
- Ibárgaiñ, Ibárgainekua, Ibárgañetik...
- Jardiñéta, Jardiñétan, Jardiñetatik...
- Bidebarriéta, Bidebarriétakua...
- Mekóla, Mekólan, Mekólakua...
- Kalamúa, Kalamuatik, Kalamúara...
- Ubítxa, Ubítxan, Ubítxakua, Ubítxara...
- Aretxabaléta, Aretxabalétakuak...
- Olerreága, Olerreágakua, Olerreágara...

\*Eibartarrak, laburtuz, Apálatei, Apálatein, Apálateira, Apálateikua eta abar esan izan dau.

**Eibarrera jatorrian**

- Aiagá-érreka ez dogu gaur ezagutzen
- Aiagáldea be izen zarra dogu
- Aldapáldea, Aldapáldera, Aldapáldetik
- Aldazábalenekua
- Amañáburu, Amañáburura, Amañáburukua

**Ez jatorrian**

- Aiaga-erréka ez dogu gaur ezagutzen
- Aiagaldéa be izen zarra dogu
- Aldapaldéa, Aldapaldéra, Aldapaldétik
- Aldazabalenékua
- Amañabúru, Amañabúrura, Amañabúrukua

- Amañá-érreka, Amañá-érrekan
- Amañáldea, Amañálderá, Amañáldetik
- Amuátegi, Amuátégikua, Amuátégirutz
- Aranérreka, Aranérrekara, Aranérrekatik
- Aráneta, Aránetan, Aránetara, Aránetatik
- Áreta, Áretan, Áretara, Áretakua
- Áreta básarrikuak dira hórrek
- Aríkitxa zubixa ezagutu genduan
- Aríkitxanékua, Aríkitxanera
- Asoláérreka, Asoláberri, Azuáérreka
- Ázítain, Azítainera, Azítaindik
- Barrénkalia, Barrénkaletik, Barrénkalera
- BÍlbozar, BÍlbozarrera, BÍlbozarretik
- Billábellanekua, Billábellanetik
- Élgetakalia, Élgetakaletik, Élgetakalera
- Fróntoizarra, Fróntoizarrera, Fróntoizarretik
- Amaña-erréka, Amaña-errékan
- Amañaldéa, Amañaldéara, Amañaldetik
- Amuatégi, Amuatégikua, Amuatégirutz
- Aranerréka, Aranerrékara, Aranerrékatik
- Aranéta, Aranétan, Aranétara, Aranétatik
- Aréta, Arétan, Arétara, Arétakua
- Aréta basárrikuak dira horrek
- Arikítxa zubixa ezagutu genduan
- Arikítxanekua, Arikítxanera
- Asolaerréka, Asolabéri, Azuaerréka
- Azítain, Azítainera, Azítaindik
- Barrenkália, Barrenkáletik, Barrenkálera
- Bilbózar, Bilbózarrera, Bilbózarretik
- Billabéllanekua, Billabéllanetik
- Elgétakalia, Elgétakaletik, Elgétakalera
- Frontoizarra, Frontoizarrera, Frontoizarretik

- Fróntoizarra eta frontoí zárra ez dira bardiñak, lehenengua “toponimo” bihurtu da eta. Horregaittik desberdin entonatzan dau eibartarrak.

- Íbargain, Íbargainekua, Íbargainera
- Lézeta, Lézetatik, Lézetara, Lézetakua
- Tútulu, Tútulunekua, Tútúlura
- Asóligartzá, Asóligartzakua, Asóligartzara
- Ibárgain, Ibárgainekua, Ibárgainera
- Lezéta, Lezétatik, Lezétara, Lezétakua
- Tutúlu, Tutúlunekua, Tutúlura
- Asoligártza, Asoligártzakua, Asoligártzara

- Gure denboran “Asóligartzá” baserrixa “Asóliartzá” moduan ezagutu dogu eta hangua dogu Migel Gallastegi pelotari kanpeoi haundixa. Berari be askok “Asóliartzá” deittu izan detsa.- “Asóliartzá” lako pelotaririk ez da izan.

Kanpoko toki-izen edo toponimuak be geure erara entonau izan dittugu eibartarrok, baitta erdalerrixetakuak be. Hau da, eibartarrak beran tonadía erabili izan dau beti kanpoko izenak erabiltzerakuan be. Ikusi:

- Guadalájara, Sierranéveda, PuenteLárreina, Casalárreina, Torrelávega, Torreláguna, Calcul-Mécana, Montecásino. Eta polidéportibua, unibérsidadia eta abar.

## 2.5.- Izen propixuak

Eibartar petuak, egoki eta zuzen, tonadía deittu izan detsa “entonaziñuari”. Bateronbat eibartar berbeta raruan edo entonaziño desegokixan entzun ezkeriok, entzutzen dagon eibartar petuak berihalaxe esan izan dau: “Hori ez dok Eibarko euserkia; horren tonadía ez dok hemengua”.

Pertsonen izen propixuak erabiltzerakuan be, eibartarrak bere-beria daben tonadía emon izan detsa; nahiz eta erderazko izena izanda be, erderazko tonadiari kasurik egin

barik eibartar entonaziñoz esaten dau, hau da, eibarrera jatorrera aldatuta.

Esate baterako, erdal santoraleko honek izenok “aguduak” dira gramatikalki, zera, atzenengo silaban kargatzen da azentua. Ikusi: Simón, Andrés, Inés, Ramón, Pilar, Román, Sansón eta abar. Hau da, bi silabatako erdal izen aguduak, eibartarrak beran euskeran “lano” bihurtzen ditu, honela:

— Símon, Ándres, Ínes, Rámon, Pílar, Róman, Sánson,...

Adibide edo ejenpluak:

— “Nor etorri da? Ramón etorri da”	Baina: “Ramón, goiz ibili haiz.”
— “Zeintzuk dira, ba zure anai-arrebak?”	— “Róman, Ándres eta Pílar”.
— “Badakizu nor zan Dalilan gizona?”	— “Bai horixe: Sánson”.

Kontuan euki bihar da agindu eta erreguetan “agudo” modura entonauko dirala. Ikusi deiguzen beste izen batzuk, tartian konposatu edo konpuestuak dirala:

Eibarrera jatorrian: **Isábel, Marísol, Anábel, Seráfin, Anaísabel, Josemánuel, Joserrámon, Joseándres, Josejábier, Mariélena, Mariájose, Joséluis, Joseántonio, Josefrántzisko, Andólin, Baléndin, Errámun, Mariaísabel, Mariajésus, Garíkoitz, Gótzon, Háritz, Íbon, Ígor, Imánol, Asier, Martxélin, Nikólas, Mítxel, Mígel.**

Hemen bada kontuan eukitzeko gauza bat: izen soil edo bakarrekuak diranian, bakotxaren deklinabide edo deklinaziñua “absolutuan” agudo dan moduan deklinatzen da, baiña izen konposatuak deklinaziño osuan beran tokixan mantentzen dau azentu nausixa eta honetan ikusten da eibartarron entonaziñuaren “esdrujulotasuna”. Ikusi, esaldi batzuk:

— “Isábel dator”, baina “Isabélekin ibili naiz”; “Serafínegana doia”. “Anabélek esan dau”. Eta izen konposatuekin, azentu nausixa beti beran lekuan mantenduz:

— Jose Rámonek egixa esan dau. Jose Rámonekin ibili gara. Jose Ramónengana goiaz.

— Anaísabel emakume politta da. Ana Ísabelekin berba egin dogu.

— Jose Mánuel, Jose Mánuelek, Jose Mánuelen, Jose Mánuelekin, Jose Mánuelgana.

— Jose Ántonio, Jose Ántoniok, Jose Ántonion, Jose Ántoniokin, Jose Ántonionaga.

— Mariélena, Mariélenak, Mariélenan, Mariélenakin, Mariélenagana, Mariélenagaittik.

Izen konpuestuetan, batzuetan izen bixak alkartuta ipiñi dittut eta beste batzuetan bananduta. Horrekin agertu nahi dot, esate baterako, **Jose Mígel, Jose Mígelekin** eta abar entonaziño edo tonada aldetik ikusteko hobeto dala **Josemíel** edo **Joxemíel, Maria Élena = Mariélena, Maria Jesús = Mariájesus** eta abar.



## 2.6.- Deitturak - Abizenak - Apelliduak

Gure euskal deittura edo abizen asko erdal entonaziñoz ahoskatzen dabe erdaldunak. Esate baterako, honela esaten dittue: Gallastégi, Arruabarréna, Odriozóla, Aranbúru, Balenziága eta abar, eta txarrena da Eibarko “gaurko euskera eskaxian” be holaxe entonatzen dabela askok baiño gehixagok, baiña eibartarrak beran tonada jator eta propixua dakanez, hori mantentzen eta erabiltzen saildu biharra dakagu. Hortan, aurreko tonadok txarto dagoz eibarrera jatorrian berba egin nahi bada eta ondorengo hónek izango dira jatorrak:

— Gallástegi, Arruábarrena, Odriózola, Aránburu, Balenziága, Abarrátegi, Aberásturi, Aginágalde, Agiriano, Agirrébena, Agirrégabiria, Agirrégomezkorta, Agirrésarobe, Agirrezabal, Agirrezabalaga, Aizpúrua, Aldabáldetrekú, Alzuáran, Alzugárai, Amundárain, Anabítarte, Anaságasti, Andikó(e)txea, Añíbarro, Amuátegi, Amutxástegi, Apaólaza, Aperribai, Arakístain, Arízaga, Aritxúlegi, Arizméndiarrieta, Ariznábarreta, Ariztímuño, Arriáran, Arruábarrena, Artolázabal, Astabúruaga, Balenziága, Barandíaran, Barínaga, Barruétabeña, Basterrétxea, Beaskoétxea, Begirístain, Beíztegi, Bengoétxea, Berasátegi, Berasáluze, Bereziartua, Bilbátua, Kaperótxipi, Kortabérria, Kortabítarte, Kortajárena, Danborénea, Dorregárai, Ezénarro, Etxábarri, Etxebárrieta, Etxebérria, Etxezárraga, Etxezárreta, Egiágarai, Errandónea, Garaikóétxea, Garziárena, Gaztelúbide, Gaztelúmendi, Gaztelúrrutia, Goikoétxea, Gorostíaga, Gorrotxátegi, Goienétxea, Geredíaga, Gerrikábeitia, Hernandórena, Hormaétxea, Idiázabal, Illarrámendi, Iparrágirre, Ira(ó)lágoitia, Irurétagoiena, Jauregíberri, Larreátegi, Lasagábaster, Letaméndia, Lizarríturri, Madinábeitia, Madinágoitia, Mallagárai...

Ez noia jarraitzen, bestela luziegixa egingo jaku listia-eta. Horregaittik, erregela batzuk emongo dittut. Eibartarrok “esdrújuluak” gara eta badakagu halako joera bat berbak esdrújulo eta sobresdrújulo egitteko. Gure deittura, abizen edo apelliduon entonaziñua zela gertatzen dan ikusteko, hiru sailletan banatuko dittut: 4 silabakuak, 5 silabakuak eta 6kuak. Hiru atalotan, hasierako hirugarren silaban kargatzen dogu azentu nausi edo indartuena. Ikusi:

<u>4 silabakuak</u>	<u>5 silabakuak</u>	<u>6 silabakuak</u>
Ma-lla-gá-rai	Li-za-rrí-tu-rrí	Ma-di-ná-bei-ti-a
A-ra-kís-tain	Le-ta-mén-di-a	Ma-di-ná-goí-ti-a
A-rrí-á-ran	A-pa-ó-la-za	Gaz-tel-ú-rru-ti-a
Do-rre-gá-rai	La-rre-á-te-gi	A-rru-á-ba-rre-na

Baiña, 4 silabakuetan, beste hónek be bai: A-rí-za-ga, Al-bís-te-gi, A-rán-bu-ru, Ga-lás-te-gi, Bil-bá-tu-a, E-zé-na-rro.

Kontuan euki bihar da, bakotxaren deklinabidian, absolutuan dakan leku bertan mantentzen dogula azentu nausixa. Begira: Mallagáraikin egon gara. Apaólan lehengusua da hori. Larreátegigana goiaz. Arízaganian egon gara.

## 2.7.- Batzu - batzuk

Abizenak.- Aurreko atalian 4, 5 eta 6 silabatako euskal deitura edo apelliduak aztertu genduzen eta hirukuak ikutu barik gelditu ziran. Hiru silabako abizen edo apelliduak ez dake bape problemarik eta hasieratik bigarren silaban kargatzen danez, azentu nausixa, edozeiñek be ondo entonatzten dittu. Ikusi:

- Arósa, Betóño, Cendóya, Etxániz, Egíno, Gastézi Larréa, Madína, Narbaíza, Orózko, Pagóla, Retégi, Sagárna, Ugárte, Zarraúa, Zalbíde...

Eta deklinabide osuan toki bertan mantentzen dau azentua: Orózkokin, Pagólanera, Ugártenetik eta abar.

- Baiña: Gúrpide. Biharbada, Obispuagandik nahiko jaso barri dogulako, entzunda moduan jasota-edo. Baiña, gure zaharrak ezagutu balebe, bihar bada, antxina, Gúrpide esango eben.

- Baiña, goguan euki bihar dogu lehenago ikusi doguna, hau da, agindukeran, agurretan eta abarretan atzenengo silaban kargatzen dala azentua:

- *Kaixo, Narbaizá, bahator gurekín?*
- *Kantaik zeozer, Orozkó.*

**Ikastola.-** “Ikastóla”, “ikastólia”, “ikastólara” eta beran deklinabide osuan txarto darabixe entonaziñua gaurko gazte gehixenak, eta gazte ez diran beste askok be bai, tartian irakasle eta andereñuak dirala. Etxeko tonada jatorra galdu eta belarrixetan miñ emoten daben faltsu bat erabiltzen da. Ikusi, bixen arteko aldía:

ESAN BIHAR DAN JATORRA	ESAN BIHAR EZ DAN FALTSUA
ikástola	ikastóla
ikástolia	ikastólia
ikástolara	ikastólara
ikástolakua	ikastólakua
ikástolak	ikastólak
...	...

Hor ikusten da tonada jatorra esdrújula moduan erabiltzia dala, “apóstolu” eta “epístola” entonatzten diran moduan.

**Esdrújuluak:** Lehenago esanda dakagu eibartarrok esdrújulotasunerako joeria dakagula, eta holaxe da. Esate baterako, erderazko berba esdrújulo(a) guztiak esdrújulo mantentzen dittugu eta erderaz “agudo” eta “llano” diran mordua be esdrújulara bihurtzen dittugu. Mantentzen dittugunak: “esdrújula” = esdrújulia, “mátrikula”= matrikulia, “termómetro” = termómetrua eta abar. Eta esdrújulara bihurtzen dittugunak: “solicitud” = solizítudia, “habilidad” = abilídadia, “normalidad” = normalídadia... “comunicación” =

komunikaziñua, “metrología” = metrológixia, “filosofía” = filosofíxia eta abar. Baiña hurrengo atalian aztertuko dittugu hónen legiak.

## 2.8 Erderatiko berbak

Eibartarron entonaziñuan esdrujuletarako joera haundixa dakagula esana dot. Erderazko berba esdrujula guztiak esdrujula mantentzen dittugu Eibarko euskeran, baiña erderaz esdrujula ez dan beste berba mordo mordua be esdrujula bihurtzen dittugu eibarrerazko tonadia emonaz eta zera esango neuke, geure tonada horrekin euskaldundu egitten dittugula erdal berbok. Ikusi, esate baterako: erderazko estación, ambición (aguduak) edo temperatura, acupuntura (llanoak) eta abar, bergararrak “llano” moduan erabiltzen dittue estaziñúa eta anbiziñúa eta tenperaturía eta akupunturía esanaz, baiña eibartarron esaera petuan esdrujula egitten dittugu: estaziñua, anbiziñua..., tenperáturia, akupúnturia.

Nahiz eta erderatik hartutakuak izan, erderazko tonadaz esaten diranian euskeraz, min emoten detse belarrixetan eibartar petueri. “Solizítudia egin dot” edo “informaziñua eskatu dogu” esaten diranian raro eitten dabe eibartar petuen belarrixetan, ze jatorrak beste hónek dira-ta: “solizítudia egin” eta “informáziñua eskatu”. Horretarako, kontuan euki deigun eibartarron gramatikazko entonaziñuaren erregela hau: berba hasieratik hirugarren silaban kargatzen da azentu prosodiko nausixa. Nahiz 5, 6, 7 edo 8 silabatako berbia izan, danetan hasierako hirugarren silaban indartzen da azentua eibarrera petuan:

5 silabatakuak: estaziñua, anbiziñua, obsesiñua, oraziñua, ilusiñua, probidéntziala, residéntziala, asisténtziala, oríginala, obaziñua, tenperáturia, akupúnturia..., zera, euskarazko aizkoláritza, nekazáritza, bertsoláritza, zuzendáritza, misioláritza moduan.

6 silabatakuak: informáziñua, federáziñua, operáziñua, abiáziñua, kontestáziñua, kongeládoria, solizítudia, abilídadia, normalídadia, barbarídadia, konplizídadia, eternídadia, justifikantia, tonifikantia, gratifikantia, edifikantia, mortifikantia, tenperáturia, akupúnturia, graduáziñua, normalídadia, filosofíxia, filológixia, geográfíxia, etnológixia, etnográfíxia, metrológixia, astrológixia, astronómixia, ekológixia, ekográfíxia...: erreméntarixa euskal berba zaharra moduan.

7 silabatakuak: komunikaziñua, zibilizaziñua, konsidéraziñua, konfedéraziñua, antizípaziñua, partizípaziñua, ebalúaziñua, amabilídadia, anormalídadia, estabílidadia, bipoláridadia, kapiláridadia, kasuálídadia, ideológixia, terminológixia, radiógrafíxia, osteóporosisa...

8 eta 9 silabatan: oríginalídadia, autodéterminaziñua, deskalzífikaziñua.

Berba batzuk teknikuak eta beste batzuk zientifikuak dira, internázionalak, eta txarto entonatzen edo dudia dakanak, badaka, hor, nun ensaiu.

## 2.9 Zenbaitt esaldiren azterketia

Hizkuntza baten entonaziñuaren azterketia, oiñ arte ikusi dogunaren apurra baiño askoz be zabalagua eta konplejuagua da. Gure lan honetan berba soil edo bakarrak ikusi dittugu, baiña berbaldi batian berbak alkarri lotuta doiazenian, agertzen da, zera esango gendukiana: berba jarixo fonikua; horixe da berbetiari benetan beran melodixa edo berbakantua emoten detsana. Hara, frase edo esaldi errezenian be ikusi zela aldatzen diran azentuak: ardaúa bakarrik esaten badogu, ú letriaren gaiñian daroiagu azentua, baiña beste berba batekin lotuta datorrenian, lekuz aldatzen dau azentuak. Ikusi:

- *ardaúa*. Baiña: “*Zuk ekarri dozun ardaúa oso ona da*”.

Eta zela izango litzake frase osuaren modulaziñuak sortzen daben berba jarixo fonikua? Ba, tren batek alkarri lotuta dittuan illara moduan agertuko da. Ikusi zela agertzen dan esaldixa “barra-barra” berba egitten dogunian:

- “*Zukekarridozúnardauá osoonadá*”.

Hori, eten batekin konsiderauta, baiña, sarri, etenik barik esaten dogu eta orduan honela izango genduke esaldi fonikua:

- “*Zukekarridozúnardauosoonada*”.

Hau danau hobeto ikusteko musikako pentagraman silaba bakotxari nota bat jarritta agertuko neuke, baiña badakitt askorentzat kriston saltsia izango litzakiala eta, beste barik, dagon dagonian lagako dot, ze nere irakurliak nahikua eutsi dau oiñ artian be. Eta beste barik, Toribio Echebarriari jasotako esaldixak azentuatuko dittugu eibartarren entonaziñua nola edo hala ikusteko:

- “*Edertzia gurán, askotán alperrik galdú*”.
- “*Andrazkuán edergárri, urriá baño obe zintzotásuna*”.
- “*Munduán ziar zabaldúta dirán euskáldunak bíltzia*”.
- “*Errikó tabernía erremátera atára dabé*”.
- “*Erramú árboliá, ostruá gáltzen ez dabén zugatzá da*”.
- “*Antxiñáko esákeriá, éúzkixa nora dan, ara zapíxak*”.
- “*Arén jakittásunak ez éukan néurririk*”.
- “*Átzetik gaizki esatiá, ez dágo ondó*”.

Hórrek azentuok ez dabe izaten beti altura bardiña eta hori ondo ikusteko pentagrama baten bidez ikusiko genduke zela diran, baiña bada kontuan euki biharreko beste gauza bat be: hasarrian esan, edo esaldixa indartu nahi edo egoera animiko berezi batian agertu, tonada desberdinak sortzen dira. Orduan, aurreko esaldixen azentuaqueta orientabide moduan hartu bihar dogu. Eta lehenago esanda doran moduan, gehixago aurrera joteka, beste barik, entonaziñuaren ate aurrian geldittuko naiz, entonaziñua bera amaierabako mundu haundixa da-ta.



### 3. *-a* ARTIKULU MUGATZAILLIA

#### 3.1 *-a* artikulu mugatzaillia eta “*-a* organikia”

Euskeriak badittu, beste erdera batzuen modura, izena eta izenondo edo adjetibua mugatzen dittuan artikulu mugatzailliak eta, jakiña, Eibarko euskeriak be badittuanez, zelan erabiltzen diran ikusiko dogu lantxo honetan.

Euskarazko artikulu mugatzaillie singularra *-a* da eta plurala *-ak* (ez gara sartuko zenbait euskalkittako eta euskera batuko *-ek* ergatibo pluralakin, bizkaiera osuan erabiltzen ez dalako). Hortara, adibidez, *asto* mugatu batu bako izena da eta *astua* (*asto+a*) mugatu edo determinaua. Baiña badira berez *-a* letraz amaitzen diran hitzak, zera, artikulua hartu baiño lehen, berez, *-a* letraz amaitzen diranak: AMA, GAUZA, eta abar, eta amaierako *-a* letria ez da, beste barik, artikulua, “*-a* organikua” edo euskera batuko gramatikaz “*-a* itsatsia” deitzen dana. Eibartarrok, esate baterako, jator esaten dogu GAUZA BAT, eta ez gipuzkuar askok “gauz bat” txarto diñuen moduan, ze, berez, izena *gauza* da ta ez *gauz*.

Eta guazen, beste barik, bost bokalotan amaitzen diran izen batzuk ikusten eta *-a* artikulu mugatzaillia hartzeruzkuan zelan bihurtzen diran.

a + a = a: ama, aitta, amama, aittitta, industria... Hortan bardin Eibarren: ama bat (mugatu bakua), gure ama (mugatua); industria asko (mugatu bakua) eta Eibarko industria (mugatua). Beste leku batzuetan “idustri asko” esaten bada be, guretzat “*-a* organika” bihar dau.

- Baiña nota/nótia, gauza/gauzía, beka/békia, abarka/abarkía, álbata/álbata, txalaparta/txalapartía, eúskera/eúskeria, fristixa/fristixía, kofradixa/kofradíxia eta abar.

- Eta eibartar petuak ez dau sekula esan “gure industríxia” ezta “gure industríxia” be, beti GURE INDUSTRIA baiño; halaxe, bardin, GURE INDUSTRIA ARMERUA.

e + a = ia: etxe/etxía, eme/emía, luze/luzía, haixe/haixía, urpe/úrpa, bake/bakía, kafe/kafía, abade/abadía, aterpe/atéripa.

i + a = xa: ogi/ogixa, mendi/mendixa, begi/begixa, busti/bustixa, arpegi/arpegixa, ezti/eztixa, Mari/Marixa, afari/afarixa.

o + a = ua: asto/astúa, oso/osúa, atso/atsúa, bertso/bértsua, potolo/potolúa, arto/artúa, potxolo/potxolúa, basto/bastúa...

- Baiña: bideo (video) bídeua, bídeuak, eta ez “bidixua” gazte batzuk idazten hasi diran moduan.

u + a = mamu/mamúa, katu/katúa, amu/amúa, pekatu/pekatúa, erramu/erramúa, sakatu/sakatúa, intzentzu/intzentzúa...

### 3.2 *-a* artikulu mugatzaillia eta *-kerixa* atzizkixa

Aurrera jo baiño lehen parka eskatzen detsat irakorle sufriduari iñoiz agertzen diran huts eta faltegaittik, ze behin baiño gehixagotan —nik ondo idatzitta emon arren honek lanok—, batzuetan edo letra bat edo berba bat jaten deste inprentan, edo behin idatzittakua errepikatuta ipiñi. Edozein modutan be parkatu.

Aurreko lanari jarraituz gauza bat edo beste gehixago aztertuko dogu *-a organika* kontuan eta zelan erabiltzen dogun Eibarko euskeran ikusi.

Hainbat giputz entzungo dogu halakuak esaten: “peri ederra izan da”, “Igo zazu mail bat”, “kabi polita egin du txoriak”, “animali asko zegon han”, “pizti txarra da hori” eta abar. Hor berba danotan ikusi geinke *-a organika* edo berbiak berezko daben atzen *-a* jaten dabela eta hori ez da jatorra. Euskaltzaindiak berak be ondo sailkatuta jarri dau *-a organikia* bihar daben berben zerrenda edo listia eta hortik ikusi geinke Eibarren jator erabili izan dala berbiaren atzenengo berezko *-a* hori. Lehen aittatutako giputzok peria (feria), maila, kabia (habia), animalia, piztia eta abar esan bihar littukiez, ze amaierako *-a* letria ez da artikulu mugatzaillia, agertu dogun *-a organikia* baiño. Eta, begira zelan esango gendukezen, jator, lehengo hitz edo berbok: ferixa ederra, mailla bat, habixa polita, animalixa asko, fristixa txarra. Hortan eibartartarrok Euskaltzaindiakin bat gatoz edo bera gurekin, nahiz eta danok dakigun *-xa* hori, *-xa* egin amaieran, Bizkaiko beste herrialde askotan moduan. Hola esango gendukez, eibartarrok, mugatu barik eta mugatuan: ferixa/ferixia, mailla/maillia, habixa/habixia, animalixa/animalixia, fristixa/fristixia.

#### ***-kerixa* / *-kerixia* (*-a organikaduna*)**

Beste euskalki batzuetan eta euskera batuan erabiltzen dan *-keria* atzizki edo sufijua Eibarren *-kérixa* egitten dogu mugatu bakuan (indeterminauan). Hemen be Euskaltzaindiak onartutako bidian etorri gara eibartarrok lehendik be, ze *-keria* (*-a organikaduna*) Eibarren *-kerixa* egitten dogu eta hori jatorra da. Beste zenbait lekutan “astakeri bat”, “alperkeriz betea”, “gaiztakeri itsusia” eta abar esaten dittuen bittartian, Eibarren, jator, “astakerixa bat”, “alperkerixaz betia” eta “gaiztakerixa itxusixa” esan izan da beti. Hortara ba, Eibarren, mugabakuan eta mugatuan honela esango gendukez: astakerixa/astakerixia, alperkerixa/alperkerixia, tontokerixa/tontokerixia, gaiztakerixa/gaiztakerixia...

Esan biharrik ez dago *-keria* edo *-kerixa* sufijuak izen sustantibo bati eta adjetibo bati lotuta-, zentzun abstrakto batian esangura txar, negatibo eta peioratibua agertzen dabela.

## 4. FONETIKIA

Aurreko astietako atal bixen ondoren fonetika kontuan sartzen gara zuzen-zuzenian. Hala eta guztiz be, asko sakondu barik, gaintxotik pasauko naiz.

### 4.1 Amaierak

Zenbait eibartar gaztek “bidixu” eta “bidixua” esan eta idazten dabela ikusiz eta horren ordeztu bideua (erderazko video) bihar leukiala kontuan hartuta, noiz izen berbiaren -rixo/-rixua amaiera eta noiz -eo/-eua esan bihar dan azalduko dogu gaurko honetan. Zera, amaiera hori eibartar jatorrian erabiltzen jakitzeko modu bakoitzaren oiñera joko dogu, bata eta bestia zertatik eta nundik datorren garbi ikusi deiguzen eta, beste barik, eibarrera edo eibartar gramatikazko legetzat lagako dittugu.

<b>-eo</b>	→	<b>-eua</b>	<b>-rio</b>	→	<b>-rixo/-rixua</b>
<b>oleo</b>	→	<b>oleua</b>	<b>rosario</b>	→	<b>errosarixo/-xua</b>
<b>gasoleo</b>	→	<b>gasoleua</b>	<b>serio</b>	→	<b>serixo/-xua</b>
<b>mausoleo</b>	→	<b>mausoleua</b>	<b>armario</b>	→	<b>armarixo/-rixua</b>
<b>video</b>		<b>bideua</b>	<b>dinosaurio</b>		<b>dinosaurixo/-rixua</b>

### 4.2 Bokal artian: $d > r$

Euskerian fonetika legien eragiñez D letria R bihurtzen da sarri eta Eibarko euskeran ejemplo asko badakagu be, batzu-batzuk emongo dittugu.

DITTUT = DORAZ (DODAZ) : Nere ustez dittut da eibartar aditz laguntzaille forma jatorra, baiña “doraz” (dodaz) be erabiltzen da, nahiz eta forma hau Ermu aldetik etorrixa izan. Dana dala, morfologixa aldetik DODAZ bada be, DORAZ esaten dabe aditz forma hori darabixenak: “Nik ekarri doraz”, “dodaz”en ordeztu. (Baiña ez ahaztu *dittut* eibartarragua dala).

Aittatu dogun aditz laguntzaillia lehenengo persona singularrari dagokixon “NOR” edo “OBJETO” pluralekua da eta “dittut” esaten dan moduan “ditturaz” be esaten da, zera, bi bidar pluralizauta, -it- erdi eta iparraldekuaz gain mendebaldeko edo bizkaierazko -raz (=daz) be gaiñeratuaz. Hortan, bizkaierako -daz hori -raz esaten dau forma hori erabiltzen daben eibartarrak.

Holaxe dira, baitta, aldatuak: *jarioaraz/jaroiadaz*, *dakaraz/dakadaz*, *dare/daude*, *erozenbat/edozenbat*, *deiran/deidan*, *deirala/deidala*, *erozer/edozer*, eta abar.

Eibartar zaharrak erderaz berba egitteruzkuan normala izan da -d- letriaren ordeztu -r- ahoskatzen entzutzia, esate baterako: “Le ha mordiro el perro”, “no tengo ninguna dura” (duda), “no he poriro venir” eta abar.



Juan dan egun batian gelditzen nau batek kalia eta esaten desta: «"...eta kitta!"ko zure atzenengo artikuluan irakorri detsut zelan, batzuetan, D letria R bihurtzen dan Eibarko euskeran, baiña jartzen dittuzun ejenpluetatik aparte ez da beste askorik egongo ezta?» Ba bai, badira han jartzen nittuanak baiño gehixago eta iñok horren dudarik badauka beste batzuk jarriko dittut ondoren:

Abare/abade, abixaria/abixadia, eran/edan, erarixa/edarixa, arabakiña/adabakiña, dardaria/dardadia, zartara/zartada, zartaria/zartadia, pitxaria/pitxadia, patxara/patxada, patxaria/patxadia, tarratara/tarratada, tarrataria/tarratadia, mararixa/madarixa, merikua/medikua, moruan/moduan, morukua/modukua, piñarixa/piñadixa eta abar.

### 4.3 Bdg > ptk

Fonetika legien eragiñez, sarritan, B, D, G letrak P, T, K bihurtzen dira edo, batzuetan, bestaldera. Ikusi zelan egiñ izan dittuan eibartarrak:

<b>B</b>	-----	<b>P</b>	-----	<b>D</b>	-----	<b>T</b>	-----	<b>G</b>	-----	<b>K</b>
bagoa	----	pagua	----	danboliña	----	tanboliña	----	gurutze	----	kurutze
barkatu	----	parkatu	----	ditia	----	titixa	----	geriza	----	keriza
ebagi	----	epaikixa	----	tornua	----	dornua	----	erabaki	----	erabagi
galtzarbe	----	galtzarpe	----	torniua	----	dorniua	----	giputza	----	kiputxa
*buruan	----	puruan	----	ez daki	----	eztaki	----	goilare	----	koillara

Aurreko adibide edo ejenpluetan, esate baterako, "buruan" berbia erderazko "a fuerza de" edo "de tanto..." esangurakua da eta Toribio Etxebarriak honako ejenpluau dakar: "Jardunan puruan atara zetsan bayetza" (LEXICON)

**Ebagi/epaikixa**, esan biharra ete? "Epaikixa", Eibarren, taillarretako eskuzerriari esaten jako eta ebagi-ttik dator.

"Tornua" eta "dornua", bixak erabilli izan dira Eibarren, zera, mahai gaiñeko dornua, eta ez da nahastu bihar "torniua" berbiakin, hau erderazko "torno mecánico" edo litzake-ta.

Ezezko esaldixetan EZ adverbixuaren ondorengo aditz edo berbo jokatua *d*- letraz hasten darian, *d*- hori *-t*- bihurtzen dogu aurrerago ikusi dogun erregliagaittik, zera orduan, *ez + d = ezt*. Begira: *ez dakitt = eztakitt*, *ez dakigu = eztakigu*, *ez dakazue = eztakazue*, *ez dake = eztake*, *ez doiaz = eztoiaz*, *ez dabil = eztabil*, *ez dirudi = eztirudi...*

### 4.4 "Xixa-xixo — Xixa-xixo..."

Zenbait kanpotarrek esaten deskue eibartarron euskeria "xixa-xixo, xixa-xixo" dala eta antzera esango leukie Bizkai aldeko herri askotako jentiagaittik be, baitta Azkoitti, Azpeitti eta holako herrialdekuegaittik. Baiña begira zer gertau jakun oin dala urte batzuk Cantabriako Isla herritxuan giñala. Bagoiaz andria eta bixok Arantzako napar euskaldun

jator bikote batekin eta Eibarko Ovidio Lopez-ekin eta Eulogio Plaentxiarrakin tope egin genduan. Laurok jota-ke ekin zetsagun geure euskeran eta naparrok ixillik, geuri entzutzen. Bost-hamar bat minutuan berbetan egon ondoren, amaittu genduan eta agurtzeruzkuan “bixar eongoaittuk” esan genduan. Aldendu giñan eta napar andra-gizonok guztiz harrittuta egitten deskue: “Arraioa, ez dizuegu deus konprenitu, hitz bakarra baizik: bizarra”, andriak okotzera eskua eruanaz. Kriston barriak egin genduzen laurok, eurak ulertu eben “bizarra” guk esan genduan “bixar”, euren “bihar”, zala azaldu zetsegunian.

**-i = -xa**

Aurreko atalari jarraituta, izan be, -i letraz amaitzen diran izen guztiak -xa egiñaz eratzen dittugu Eibarren, izenak, adjetibuak eta abar mugatzen edo determinatzen dittugunian. Ikusi:

mendi = mendixa	irabazi = irabazixa
ogi = ogixa	bizi = bizixa
arpegi = arpegixa	begi = begixa
iturri = iturrixa	busti = bustixa

Kontuz baiña, *guzti* = *guztia* eta ez “guztixa”. Eta *industria* eta ez “industrixa”, atzen honen amaierako -a hori “a organikia” dalako. Ez da harritzekua, zenbait kanpotarrek guri ezer gitxi ulertzia, batez be geure artian barra-barra dihardugunian. Gitxiago oindiokan geure aditz edo berbojoku berezixetan sartzen garanian. Zer ulertu bihar deskue honakuekin ekitzen detsegunian?: ezeixozuesan (ez eixozue esan), emoixozue, banerabixan, banajekixan, enajekixan, banajerabixan, eznejerabixan, jarabixazen, neskixo eta abar, zera, gure “xixa-xixo, xixa-xixo”.

## 4.5 Be (Bere) > «pe» noiz gertatzen dan

Gauza biren arteko antzerakotasuna, berdintasuna edo aurrez esandako gauza baten eta ondorengo baten arteko relaziñua baiezteko erabiltzen dan adverbixua BE da Eibarren, BERE Bizkaiko zenbait lekutan eta ERE Gipuzkoan eta beste herrialde batzuetan, zera, espaiñolezko *también* edo frantsesezko *aussi* esaten dana.

Hola, esate baterako, “Joxe jatorra da, baiña beran anaia BE bai”. Halata guztiz be, fonetikaren eragiñaz, sarritan *be* esan biharrian “*pe*” bihurtzen dala diñogu: “*horrek pe berba asko baiña gauza gitxi egin*”. *Baiña noiz gertatzen da hori?*

Gehixenetan, bokal baten edo kontsonante bigun baten atzian datorrenian esaten dogu *be*, eta kontsonante gogor baten atzian doianian erabiltzen dogu *pe*, ixa beti -k letrian atzian. Hortan, aurreko berbia -k letraz amaitzen danian, ondoren *pe* ahoskatzen dogu eibartarrok *be* adverbixoa hau. Ikusi:

<b><u>BE</u></b>	<b><u>PE</u></b>
- hau <b>be</b> mutil ona da ba.	- amak moduan, aittak <b>pe</b> bihar asko.
- aitta etorri da, ama <b>be</b> bai.	- honek <b>pe</b> ez dau ezer ikasi.

- esanak esanda **be** bardin da.
- ni **be**, zu **be**, Aitor **be**...
- Eibarren kaliak **pe** beti zikin.
- Gure lantegixak **pe** txarto dabiz.
- Ni **be**, zu **be**, danok **pe**...

Elgoibarren, esate baterako, ez da halakorik gertatzen, *be* = *pe* erabili biharrian *ere* darabixelako: “Amaiak *ere* berdina esaten du”.

Bizkaiko zenbait tokittan *bere* esaten dabe. Ikusi, bestela, gure Juan Antonio Mogel haundixak beran PERU ABARKA nobela ederrian zelan erabiltzen daben: “Obeto egingo zenduban zeuk bere lo egin bazendu”. (Zeuk *pe* esan nahi dau).

Hemen ikusi dogun fonetika legia zelan betetzen dan (4.3) atalian emonda dago. Ba han azaldutako legietako bat dogu gaurko *be* = *pe*.

Baiña gauza bat da ahoskatzia eta beste bat idaztia. Hortan zer egin *be* adverbixoa honekin, idazteruzkuan, nahiz eta *-k* letra baten atzian doianian? Egixa esan, nere ustez, halata guztiz *be* nik beti *be* idatziko neuke, hori da-ta forma jatorra, nahiz eta ahoskeran, fonetikazko fenomeno horregaittik *pe* bihurtu. Berba batian: nik beti *be* idatziko neuke eta gero ahozko berbetan *pe* esaten dala? ba bardin da. Mogelek berak *be* “zeuk bere” diño, zera, idazten dau, eta ez *zeuk pere*, *-k* kontsonantian ondoren izan arren.

## 4.6 Kontrakziñuak

Guk eibartarrok kontrakziñoaz eta laburduraz beteta berba eitten dogu. Beste euskal herrixak *be* bai, gehixago edo gitxiago, baiña guk geure era peto-petuan dihardugu. Hau hizkuntza danetan gertatzen da. Espaiñiako Estatu barruan bertan, alde haundixak dira espaiñolezko kontrakziñuetan. Esate baterako, Andaluziako erdera, horren ejemplo aparta da. Begira nik neuk Granadako mendi artian dan Zafarraya izeneko herritxuan jasotako esaldi hau: «Hemo ío polaverea y hemo yeao hata lo zumieo». Eta esaldi horrek hauxe esan nahi dau: «Hemos ido por la vereda y hemos llegado hasta los sumideros». Ez zan erreza lehelengo egunetan eureri aitzia.

Eibarko euskal berbetan letrak, berba zatixak eta silabak janda barra-barra jardutzen dogu eta hori geure era propixo eta petuan. Batez *be* berbo-jokuetan ikaragarritzko loturak eta laburdurak egitten dittugu, zati bat bestiari lotuta eta berbo nausixa laguntzaille edo auxiliarrakin bat egin da. Hau azkenau zelan erabilli? “bat eiñda” pronuntziau eta “bat egin da” idatzi? Atzenian, erreka harririk moduan, ibillixan-ibillixan biribilduta, gastauta erabiltzen dittugu berbok. Ez naiz hemen lege gramatikaletan sartuko, luze, astun eta aspergarri izango litzakialako, baiña ikusi deiguzen adibide edo ejemplo batzuk, berbo moduak eta aldixak nahastuta emongo badittut *be*.

**NOR-NORK**

- “esateitxue (z)” = esaten dittue(z)
- “eztakau” = ez dakagu
- “einbiou” = egin bihar dogu
- “einbiozuela” = egin bihar dozuela
- “noakik” = nork jakik
- “etxakik” = ez jakik
- “etxakixek” = ez jakixek
- “etxaukanaz” = ez jaukanaz
- “etxakanaz” = ez jakanaz

**NOR-NORI**

- “jua-ako” = juan jako
- “etorri-ata” = etorri jata
- “etxata etorri” = ez jata etorri
- “jua-atzun” = juan jatzun
- “juan biazatu” = juan bihar jatzu
- “emoakon” = emon jakon
- “galdu atzuen” = galdu jatzuen

**NOR-NORI-NORK**

- “emoetse” = emon detse
- “emoestaz” = emon destaz
- “emoetsut” = emon detsut
- “emoixuaz” = emon egioxuaz
- “emongeunat” = emongo deunat
- “emoixuek” = emon egixuek
- “esaetse” = esan detse
- “esaetsen” = esan zetsen
- “esaeskuen” = esan (z)eskuen
- “esaetsanat” = esan jetsanat
- “esangeuat” = esango deuat
- “esaestanan” = esan jastanan (harek)
- “esajestan” = esan hestan (harek)
- “esaestan” = esan hestan (hik)
- “hartukotsut” = hartuko detsut
- “hartukeuat” = hartuko deuat
- “ekarrixozue” = ekarri egiozue
- “erosikeuaraz” = erosiko deuaraz

Jatorrizko formak nundik eta zela datozen ikusteko, morfologixia aztertuz eta orraztuz garbixago ikusiko genduke, baiña nahikua dala deritxot.

## 5. ERAKUSLIEN ERREPIKAPENA

Eibarko euskeran bada beste joera nabarmen eta berezixa erakusliak (demostratibuak) erabiltzeruzkuan, zera, erakuslia bera errepikatuz esaten dogunian, uste ze esaldixa indartzen dogula.

Euskeran, jakiña da, erakuslia izenaren atzian juaten dala beti: “gizon hori”, “etxe hau”, “emakume horiek” eta abar. Baiña Eibarren era bittara erabiltzen dogu: batzuetan erakuslia atzian bakarrik jarritta eta, sarri, bai aurrian eta bai atzian, bixetan, indargarri moduan. Ez dakit noiz eta zela sartu zan hori bikoxtasunori, baiña, edozein modutan be, jatorra dogu Eibarren eta gure konstantietako era berezi bat da.

Gaztia nintzan Jon Etxaide Donostiako euskal idazle bikaiña ezagutu nebanian eta harek esan zestan oso atsegiñ ebala erakusliak erabiltzeko eibartarron era propixo eta berezixa; harrigarri egitten jakon, baiña interesgarri be bai.

Eibartarra noiz eta zergaittik hasi zan forma bikotx hori erabiltzen? Batek daki. Bihar bada, erakuslian eragiña indartu nahi zanian errepikatuz (repetiduz) erabiltzen hasi zan eta, geruago, esaldi arrunt eta normaletan be mantendu egiñ eban, gaur arte. Baiña kontuan euki bihar dogu, erakuslien errepikatze hori ixa deklinabide osuan erabiltzen dogula gaiñera. Begira, gure esaldi tipiko batzuk:

- *Hau mutillau; honeri mutilloneri (honeri = honi); hari mutillari.*
- *Hori neskiori; horren neskiorren; hónek gizonok (hauek).*
- *Hónek mutillok jatorrak dittuk; esaioxue háreri ándreri...*
- *Hau bizikletiau hórrena mútillona da.*

Badirudi aurrekaldian ipintzen dogun erakuslia izenordain edo pronombre moduan darabigula eta atzekua izenondo edo adjetibo antzera. Batzuetan hurbiltasun zentzunezko itxura be hartzen dau. Ikusi Toribio Etxebarriaren esaldi hau:

- *“Orrek biarrok denda baten eingo bazenduz, zenbat bolibar!”*

Baiña, ikusi beste honek (hónek béstiok):

- *“Iragorriko abeletxian izan giñan egun artan”.*
- *“Makiña arek agindun errobera asko dittu”.*
- *“Ollotoki onetan ibilli dan aixerixia... anka bikua”.*

## 6. GATXIZEN ETA DEITTURA FEMENINO ERROMANIKUAK

Eibarren tipikua izan da gizonezkuan izen, deitura edo gatxizena hartu eta, *-sa* atzizki edo sufijua jarritta, andriaren deitura eta gatxizen femeninua eratzia. Hala dittugu apellidutik, baserri izenetik edo, beste barik, gatxizen batetik eratutako femenino erromanikuak. Lehen ugarixa izan badogu be deitura femenino erromaniko hau, gaur egun geuk oindiok ezagutzen dittugun batzu-batzuk gelditzen jakuz, baiña era hau ixa galdua da. Ikusi deigun zenbat sartzen jatazen folixo batian:

**ALKATESIA.-** Alkatiaren andria beti izan da alkatesia. Baiña alkatetzan ezagutu dogun Aurora Baskaran bera izan da Eibarko Alkatesia.

**BIRIÑAOSIA.-** “Biriñao” baserriko gizonari “Biriñao” deitzen zetsen eta beran andriari BIRIÑAOSIA. Nere osaba baten ama Biriñaokua zan eta “Biriñaosia” moduan ezagutzen zan.

**CAROSIA.-** CARO abizen edo apellidodun gizonaren andriari CAROSIA deitu jako.

**TXANBOLIÑESIA.-** “Txanboliñ” gatxizenezko gizonaren andria TXANBOLINESIA zan.

**TXIKERRESIA.-** “Txikerraren” andria TXIKERRESIA. Famelixia Txikerranekua.

**TXALTXESIA.-** Nork ez dittu ezagutu Txaltxanekuk? Eta jatetxia bera? Ba hango etxeoandria TXALTXESIA zan.

**TXOKOLOSIA.-** Txokolonekuk be famauak ziran. “Txokoloren” andria TXOKOLOSIA.

**GOINESIA.-** GOIN apellidodun gizon maittatuaren andriari GOINESIA deitu jakon.

**HERMOSOSIA.-** Bazan “Hermoso” gatxizenezko gizona; haren famelixakuk “hermosonekuk” ziran eta emaztiari HERMOSOSIA deitzen zetsen.

**KATILLUSIA.-** Nork eta zeinek ezagutu ez Kátillunekuk? “Katilluren” andria KATILLUSIA.

**KERIDOSIA.-** Keridotarrak eta Keridonekuk famauak dira Eibarren. Ba “Keridoren” andria KERIDOSIA izan da.


**MARKESIA.-** “Markexa” deitzen detsen gizonaren andriari markesia.

**MOZOLOSIA.-** Ba ei zan “Mozolua” deitzen zan gizona eta haren emaztia MOZOLOSIA.

**PAJAROSIA.-** “Pájaro” deitzen zetsen gizonaren andria PAJAROSIA izan da eibartarrentzat. Baiña emakume haren alaberi be halaxe deitzen jakue eta edozeinek daki nor dan “Pakita Pajarosia” edo “Pepita Pajarosia” edo “Felisa Pajarosia” eta abar.

Eta halaxe dira beste batzuk be: “Paketonen” andria PAKETONESIA, “Panporen” andria PANPOSIA, Badeteneko emazia BADETESIA, Satorranekua SATORRESIA, GALLERRESIA, BARONESIA, BARRIKETOSIA ...eta abar.

**Toribio Etxebarriak  
idatzitako Lexikoia;  
eibartar guztiontzat  
konsulta-liburu  
zoragarrixa dana**



## 7. GURE ZENBAITT ESAMOLDE JATOR

Eibarren badittugu —batzuk ixa galdu samar badira be— zenbaitt esamolde (esapide, lokuziño eta era adverbial) jator. Aittatuko dittugunetatik bat edo beste nahiko egunero darabiguz, baiña bestiok ixa galduta edo noizian behin bakarrik entzutzen dira eta penagarrixa da. Edozein modutan, berriro eskuratu bihar gendukez, indartu eta barra-barra erabilli. Hona hemen, banan-banan:

**ADARRA JO.-** Aditz edo berbo forma hau jatorra izan da betittik Eibarren. Honen pareko HARPIA JOTEN be jasota dauka beran LEXIKONian Toribio Etxebarriak, baiña ez dot uste aurrekuen jatortasunik daukanik Eibarren, ze gure zaharrengan beti adarra jo, adar joten, adar jotzaillia eta abar entzun izan dittugu. Baiña zer gura dau esan eta noiz erabilli bihar da? Ba, beti beti, bateronbatekin zirika, txantxetan edo brometan jarduten danian. Batzuetan burla moduan be bai. Ikusi:

- *Ez eixozu kasurik egiñ, adar joten dabill-eta.*

- *Hori da adar jotzaillia hori, ezin leikixo ezer sinistu.*

Penagarrixa da, baiña, gaur egunian erderazko “ulia hartu” nagusittu dala, zera (tomar el pelo), eta hau baztertu biharra daukagu eta ADARRA JO berreskuratu berriro. Orduan, hemendik aurrera danok adarra joten! eta “ulia hartu” baztertu. (ADARRA JO, azken batian, aditz lokuziñua da).

**AIDA TA IXO.-** Honek esamoldionek “trikili-trakala” edo “halaz moduz” esan gura dau, zera, erderazko “a trancas y barrancas”.

Gaur egunian zaharren batek edo bestek iñoiz esaten dau, baiña ixa galduta daukagu, zihero, eta, penagarrixa bada be, txarrena da erderazko bera erabiltzen dogula: «Ze moduz habil?» —«Ba! a trancas y barrancas, bagoiazak aurrera». Holakotxe astakerixak esaten dittugu. Esaera jatorrian, ostera, honela genduke:

— *Horrek be, bost seme-alabakin, badaroia, aida ta ixo, bizimodua aurrera.*

— *Zela zabizie lanteixan? —Dana biharrian, aida ta ixo, nahikua larri.*

— *«Aida ta ixo, ba'goyaz zartuaz». (Toribio Etxebarriak. Lexicoian).*

**AMAIÑ EMON.-** Hau bai dala politta eta jatorra. Nik ez dot sekula iñun entzun esamolde jator hau Eibartik kanpora. Harrapauta, gordeta edo barruan dagoan pertsona edo animalixa bat libre lagatzia adierazten dau. Gaur “libre laga”, “librau” eta euskera batutik hartutako “askatu” erabiltzen dau eibartar euskaldun gehixenak, baiña guk beti “amaiñ emon” ikasi genduan. Datibuan erabiltzen da. Ikusi:

— *Kaixolan zeukan txorixari amaiñ emon detsa.*

— *Nahixago neuke gaur bertan amaiñ emongo baletse Aldaiari.*

**AREN BATEN.-** Askok pentsauko dabe hau ez dala eibartar esamoldia, baiña nik ezagutzen dot sarri darabixan bat eta, iñoiz, han edo hemen entzutzen dot, baiña, bestela, kitto, ixa zihero galdua dogu. Baiña ikusi nola darabixan Toribio Etxebarriak beran LEXIKONian:

- *“Bata katu eta bestia txakur, bixak aren baten dabiz”.*



**ARIÑ BIHARRA.-** Gaur egunian ez da entzutzen halakorik eta, horren orde, “prixia” esaten dogu beti. Baiña ikusi adibide batzuk:

- *Joxek darabill ariñ biharra; ipurdixa galdu biharrian doia.*
- *Don Pedro Zelaia beti ariñ biharrian ikusten genduan kalián.*

**ARRIABARRA BATU.-** (Zoritxarra ekarri, desgrazia, “ruinia”).

— *«Arriabarra batu detsa bere buruari jokuakin». (Toribiok).*

**ARRIO EIÑ/EGIN.-** Hau bai jator erabiltzen genduana gaztetan, gure eibartar zaharrendik ikasitta! Gaur “atzera jo” eta “rajau” erabiltzen dira, baiña berriz eskuratu biharra dogu. Aurretik egindako postuari edo hartutako konpromiso bati atzera jotzen jakonian esaten jako arrio egin dala. Hona, esaldi batzuk:

- *Azken orduan ez dozula jokatu nahi? Hori arrio egittia da.*
- *Arrio, arrio, arrio! bildurtu egin zarie!*
- *Ez eixozu arriorik egin, eixozu aurre, bildur barik.*

**BADA EZBADA (BE).-** Oindiok erabiltzen da Eibarren BADA EZBADA eta BADA EZBADA BE, baiña ikaragarritzko indarra hartu du erderazko “porsiakaso”k eta erderakada hau baztertu biharra genduke. Hona adibide bat:

- *Bada ezpada jua zaittez goiz, trena galdu ez deizun.*

**BAI ZERA!-** Guztiz aspertuta nago gaur sartu jakun “ke ba, ke ba!” erderakadia entzutzen. Mundu guztia “ke ba” (erderazko ¡qué va!) esaten. Gu gaztetxuak giñanian Eibar osuak BAI ZERA! eta BAITTA ZERA BE! esaten eban eta beste erderakada hori gaurko gauzia da, euskeriaren kaltetan, euskeria pobretzen dihardugu. Neri ez deste, behintzat, sekula entzungo *ke ba* madarikatu hori; ez dot horren premiñarik be sentitzen. Neretzat askoz indartsuagua da BAITTA ZERA BE esatia. Ia, esaldi bat edo beste:

- *Hori zure andriá dá? — Bai zera! hau nere arrebía da.*
- *Hik esan zuan horí? — Baitta zera be! Nik ez diñot holakorik.*

Nere ustez, BAI ZERA eta BAITTA ZERA BE erabiltziaren aldeko kanpaiñia egin bihar genduke eta “ke ba” erderakadia baztertu.

Toribio Etxebarriari berari ez detsagu “ke-ba”rik ikusiko beran euskal lanetan, baiña bai BAI ZERA! beran lexikoian. Hona hemen:

— *Bai zera! ¡Ez da urrik be, ez zagoz ondo!*

**BARREN.-** Nork ez dau ezagutzen gure eibartar esamolde jator hau? Kanpoko ez gitxi, harrittuta gelditzen da bizi-bizirik daukagun hau esapidiau entzutzerakuan. Hemen esakera batzuk:

- *Erlojuaren billa zabiz?, eskuturrian dakazu barren!*
- *Nora zoiaz hain goiz, oindiok seirak dira barren.*

**EZ BADA (E)ZE.-** Beste euskalki batzuetan erabiltzen dan BAIZIKen antzerakua dala esango neuke. Ikusi deiguzen adibide batzuk:

- *Ezta nahikua euskaria jakitzia, ez bada ze ahal dogun guztian erabilli bihar dogu.*

- *“Ez bakarrik zan zatarra, ez bada ze gaiztua be bai” (Toribiok)*

**EZE.-** Bizkaiera euskalkiko formia da. Iparraldeko zenbait euskalkittan EZEN izango litzake haren pareko. Eibarren EZE ordez ZE hutsik be entzutzen da. Dana dala, menpeko frase eta kausaletan erabiltzen dogu. Ikusi:

- *Gizon hori hain da jatorra, eze danak dabe maitte.*

- *“Hainbeste bidar esan zetsan eze, ziñuan guzurra sinistra jarri eban” (Toribio Etxebarriak)*

**EZ EZE.-** Hau esamoldiau juntagaillu edo konjunziñuaren parekua da eta esangura berdintsua dauka *ez eze*-kin. Ia esaldi bat edo beste:

- *Suertia euki ez eze, lana be gogor egin dau..*

- *Dirua ez eze, bizixa be an laga biar izan eban.*

Horren ordez, baitta lana be, baitta bizixa be dira

**EZ LAKUA.-** Esamolde hau pertsona nausixak bakarrik darabixe gaur egunian eta berriz gogor heltzen ez badetsagu, galdu egingo dogu: erabilli deigun ba. Horren esanguria nahikua garbi dago: iñor ez lakua, besterik ez lakua, parekorik ez, horren maillakorik ez, bera lakorik ez... Ikusi:

- *Nere ustez, Migel Gallastegi pelotari ez lakua genduan.*

- *Saralegi bai mutilla! Perurena kenduta, iñor ez lakua.*

**HARI HARIRA EGON.-** Toribiok “al filo”, “en un hilo” itzultzen dau:

- *“Arira egon, ill edo bizi”.*

Gaur, kalia, “txiripaz”, “por txurro”, “por los pelos” eta halako erderakadak esaten dira, zoritxarrez. Baiña gure etxian oindiok “harittik” edo “hari harittik” formak erabiltzen dittugu. Esate baterako:

- *Ze larrittasuna; hari harittik urte dau.*

- *Granuja horrek harittik ez dau miñik hartu.*

**HARIK ETA.-** Ikusi adibide batzuk:

- *Harik eta ahal dogun arte bizi gaittezen.*

- *Harik eta biharra dozun bittartian ez zara txarto.*

- *Harik eta berriro ikusi arte, ondo izan!*

**HARTAKOTZAT EGON.-** Esamolde honek aditz eragiña dauka. Zera esan gura dau: batek beran burua, edo nor(k) beran burua hartakotzat daukala, zera, bat norberan buruakin sinistuta dagola. Esan geinke, hartakotzat egon eta hartakotzat euki, bixak dirala bardintsu. Adibide edo ejenplo bat edo bestekin hobeto ikusiko dogu:

- *Ze, argixena dala uste dau horrek? - Ene, hartakotzat dago ba!*

- *Zu ez zara zuzena, nahiz eta hartakotzat euki zeure burua.*

- *Eibartarrak, bihargiñ fiñak; hartakotzat gagoz behintzat.*

**IXAK ETA.-** Gure zaharrak asko erabiltzen eben esamolde hau, baiña gaur ixa zihero galduta dago. Idazkeran, azken aldi honetan, D. Pedro Zelaiak bakarrik erabiltzen eban. Esapide jatorra bada be, ez neuke ukatuko erderazko ya que lokuziño konjuntibotik ez

datorrenik. Dana dala, esaldi kausaletan darabigu. Txarrena da, gaur bertan erderazkua bera erabiltzen dabela jente askok, honela: «ya que aitta etorri dan, bazkaldu egingo dogu», eta holakorik ez genduke iñoiz be esan bihar.

Harrigarrixa bada be, ez dauka Toribio Etxebarriak beran hiztegixan jasota. Dana dala, badaukagu ixak-eta adierazteko beste era jator bat be: ezkerro/ezkerik (-Z GERO).

Ikusi lehengo esaldixa: «Etorri dan ezkerro (edo ezkerik) bazkaldu egingo dogu». Baiña guazen, *ixak-eta* zela erabilliko gendukian ikusten:

- *Ixak eta aitta etorri dan, bazkaldu egingo dogu. (etorri dan ezkerro).*
- *Ixak eta ondo portau zarien, pagia emongo detsuet.*

**JAKIÑA!.-** Adierazpide edo expresiño hau, aurretik esan dan zerbait baiezteko eta indartzeko erabiltzen da, edo erabiltzen genduan? eze, ixa gehixenak euskerazko JAKIÑA! bikaiña baztatu eta erderazko «klaro!, klaro ba!» madarikatua esaten dihardue. Uste dot gitxi gelditzen garala JAKIÑA! esaten jarraitzen dogunok. Ia ba, jatorki darabigun:

- *Berba hori «klaro ba» baiño jatorragoa da ala? - JAKIÑA BA!*
- *Laiño itzala eguan eta, jakiña, galdu egin giñan.*
- *Ez dozu, hori, zure alabia izango? -jakiña baietz!*
- *Ez dozu zeuk apurtu? -jakiña ezetz.*

**KONTIZU.-** Ez dot sekula uste izan adierazpide adverbial hau eibartar jatorra danik. Beti pentsau dot Ondarru, Berritu eta inguru hortako expresiñua dala. Lehengo batian, larogei urtetik gorako eibartar peto batek esan zestan baietz, eurak «bai erregular» esatia moduan erabiltzen ebela, esaten dana baieztu moduan dala. Edozein modutan be, badirudi kontu egizu-tik KONTIZU sortua dala. Gaur ixa entzutzen ez bada be, idazkietan Antxon Narbaizak behintzat badarabill eta, bera bakarrik izango da. Baiña Toribio Etxebarriak be jaso eban beran lexikoian eta, itxura danez, Eibarkotzat dauka. Ikusi:

- «*Bai kontizu; atzo ill ei da Erregiña*».

**LEHENAZ GAIÑ.-** Zelako atsegiña dan gu baiño askoz nagusixago diran eibartarrekin berbetan jardutzia; takian-potian tipi-tapa botatzen dittuen esamolde eta berbamodu jatorren artian honako LEHENAZ GAIÑ hauxe dogu bat. Heldu samar askok be eztarabixe eta, zer esanik ez gaurko gaztiak. Berreskuratu deigun, ba, berbamodu jator eta esanguratsu hau. Zela erabilli?, ikusi:

- *Kritikak hartzen aspertuta zagozela? Ba, lehenaz gain, neriak entzun bihar dittuzu.*
- *Semia galdu eban. Gero andria gaixotu eta, oiñ, lehenaz gain, lanteixa itxi detse.*

### **LUAK HARTU (ADITZ LOKUZIÑUA)**

LUAK HARTU esamoldia, dakizuen moduan, aditz lokuziñua (lokuziño berbala) da eta Euskal Herri osuan erabiltzen bada be —Eibarren be oso jatorki gaiñera— gaur egunian beran jatortasuna galdu eta geruagoko era batian erabiltzen dau jente askok, eta horixe nahi dot argittu.

LUA eta LUAK HARTZIA, edozein modutan be, kristona zan antxiñako jentiarentzat, zera, norberan zentzuna, konszientia eta sena galdu eta, hildakuan antzera, lotan gelditzia, momo baltzak bere atzamarretan hartu baleu moduan, benetan izango zan misteriosua. Gaur eguneko zientzi jakitunendako be nahikua misterioso dan gauzia da eta zer esan antxiñakuendako? Ez dakit gure mitologia zaharreko dibinidaderen bat edo ez ete zan.

Luaren inguruan hainbat era, modu eta esamolde dittugu: lo/lua, lo egiñ, lo eragiñ, lotara juan, lotatik etorri, lo egon, lotan egon, lo-zurrunka ederrian egon, lo-zorruan egon, lokamusa egiñ, lo ariña eta lo astuna euki/egiñ, loguria eta logosia euki, lo-erria euki (umiak lo-erria daka), erdi lo egon, erdi lotan egon, lo esna-esna egon, loaldi luzia egiñ, lo geldittu, lo jaiki (lo jaiki da eta lelotuta moduan dago oindiok), lo jarua egiñ, kuak egiñ (a zelako luak egitten genduzen gaztetan!), lo-zurrutzadak eta abar, eta, zelan ez, nik gaur aztertu doten LUAK HARTU.

Baiña ze aditz-jokabide edo konjugaziño modutan erabilli bihar dogu LUAK HARTU? Gramatikalki zein da NOR eta zein NORK? Ondo ete dago «umiak lo hartu dau» esatia? Umiak hartzen al dau, ba, lo, ala luak hartzen dau umia? Guk hartzen dogu, lo, benetan, ala luak hartzen gaittu? Dударик ez dago hau azkenau dala zahar eta jatorra, eta geruago beste eria sortu dala gure artian. Poesian eta filosofia munduan honakuak esan izan dira: *luak bere besuetan hartu ninduan...*, *heriotzak bereganatu eban* esan izan dan letz. Badirudixanez, bai *luak* eta bai *heriotzak* hartu egitten gaittue, eta ez geuk *lua* eta *heriotzia*. Orduan, ez genduke dudarik, NORK gramatikalian erabilli bihar gendukiana LUA(k) dala, eta gu NOR edo akusatibo kasuan egongo garala. LUA(k) sujeto logikua izango litzake eta predikatuen eta saltsetan sartu barik, berba batian esango dogu GU osagarri edo konplemento zuzena dala. Eta E. Sapir-en, O. Jespersen, Filmore-n, Chomsky-n eta abarren teorixetan sartu barik, jarri deiguzan, ondoren, adibide edo ejemplo batzuk:

- *Umia oheratu dogu eta berihala hartu dau luak.*
- *Oiñ kafe bat hartuko baneu ez ninduke errez luak hartuko.*
- *Mendikara garau haren ondoren zapla hartu ginduzen luak.*
- *Ezer egin barik jarraitzen badozu, luak hartuko zaittu.*

Eta nere iritxixen ondoren Toribio Etxebarriari pozik jaso detsaten esaldi zoragarri hau irakorri deigun:

- *«Arduratan bizi dana, ez dau, errez luak artzen».*

**MEHE HARTU.**- Ez dakit zelan ez daukan esamolde hori jasota T. Etxebarriak bere lexikoian, oso jatorra izan da-ta gure artian. Harritzen nau. Dana dala, esamolde horren esanguria zera da, norbaitt engaiñatzia, gitxiagotzat hartzia edo tontotzat hartzia edo antzerakuak. Ikusi:

- *Horrek esan deskuz guzurrak horrek; gu mehe hartzia pentsau dau ala?*
- *Kontuz ibilli zaittie Joxekin, mehe hartuko zaittue bestela.*

Gramatikalki hartuta «Nor-Nork» aditz jokabidian izan bihar leuke jator, zera, mehe «hartu zaittu» «hartu gaittu» eta abar, baiña nik asko ta asko «nor-nori-nork» eran entzun izan dot: «mehe hartu detsue», «mehe hartu zeskuen» eta abar. Zein da jatorra?

**NERE BATEN.**- Honek egoera adberbial bat adierazten dau: nasai, patxadan egon. Eta Eibarren jatorra izan dan esamolde hau be ixa galduta daukagula esan geinke, baiña ikusi deigun zela darabixan Toribio Etxebarriak:

- *«Nere baten banenguan, eta batera batera jausi naiz».*

**NERE KAUTAN.-** Esamolde honek badauka bere aldakiña: = NERE KAUTAKUETAN. Honen esanguria interesgarria da: norberan buruakin berbetan jardun, edo sentiberatasun guztiak aldamenara lagata norberan buruakin bakarrik jardun; horregaittik esaten da NERE KAUTAN NIHARDUAN, edo NERE KAUTAKUETAN EGOTEN NAIZ sarri askotan. Ikusi adibide batzuk:

- *Nere kautan neguala, zarata batek esnatu moduan egin ninduan.*
- *Nere kautetan niharduan eta ez zaittut ixa ikusi be egiñ.*
- *Horrek bere kautetan diharduanian ausente dagola dirudi.*
- *Sarri, nere kautan diñot: eta Eibarko euskeria hilgo balitzok?*
- *Bakarrik nagonian, ixa beti nere kautetan jardutzen dot.*
- *«Nere kautakuetan nindoyan mendixan ziar...». (Toribiok).*

**OIÑ EZKERIK / -KAN.-** OIÑ EZKERIK eta OIN EZKERIKAN modu adberbialak benetan dira jatorrak Eibarren. Bixak dira bardiñak eta esangura berbera dake, nahiz eta OIÑ EZKERO formatik datozen bixok. Hirurok erabiltzen dira, baiña, esango neuke, lehelengo bixak badakela halako jatortasun bitxi bat eta oso eibartar petuak dittugula. Ia adibide bat edo beste:

- *Ez dut hartu erlojorik, baiña oiñ ezkerik badira bostak.*
- *«Oiñ ezkerikan aberastuko zan». (T. Etxebarriak. LEXICON).*

**ON BE.-** Hau esamoldiau nohizbehinka entzutzen jako pertsona nagusiren bati, baiña ixa galduta dago, zihero. Hala ta guzti be benetan da politta eta esanguratsua. Berorren esanahixa zera litzake: hobe gaiñera, hobeto gaiñera, askoz hobe...

- *Atzenian operau egin zan, eta bai on be, berihala osatu jakun.*
- *Ez genduan hartu abioia, eta ez on be, aberixauta ibilli zan-eta.*

Ikusi dogun moduan, BAI eta EZ adberbixuekin darabigu egoki ON BE.

**OTXIÑAK EGIÑ.-** Esamolde honen esanguria: dirutzia egittia, aberastia gura dau esan. Itxura danez, «otxiña» antxiñako txanpon bat zan eta gaur arte etorri jakuz horrekin eratutako esaldixak:

- *Eibarren jende askok otxiñak egin dittu negoziuekin.*
- *«Zuen ama, bere denda zoztorrakin, otxiñak eitten dago». (Toribiok).*

Gaur egunian euskeraz berba egitten daben gaztiak eztarabixe esamolde hori, «diruak egiñ» eta aberastu bakarrik esaten dabe-eta, baiña guk nausixok oindiok be asko darabigu. Baitta hortik datorren OTXINDU berbua be, hau azkenau Toribio Etxebarriak Lexikoian aittatzen ez badau be. Baiña ikusi gure erabilkera zahar jatorrok:

- *Horrek ez daka biharrian jarraitu biharrik, otxinduta dago-ta.*
- *«Txókua»k darabil jendetza garaua tabernan! Hórrek otxintzen dagoz.*

**PANPANA HARTU / PANPANDU.-** Gure sasoian asko erabiltzen genduzen esakera honek baiña ixa galduta dagoz gaur Eibarren. PANPANA HARTU aditz forma honek zera nahi dau esan: harrotu, jarki, fanfarroitu. Hori erabiltzen da batek beste baten aurrian bildurra kenduta fanfarroikerixa agresibo bat agertzen dabenian. Ikusi esaldi batzuk:

- *Ez zaittez panpana hartuta juan horrengana, hori zu baiño gehixago da-ta.*

- *Aspaldixan panpanduta dabil Joxemiel, baiña arriabiarra datorkixo laster.*

- *Eraten dabenian panpana hartuta ibiltzen da eta atzo ederrak emon detsez.*

Harrigarri begittandu jata Toribio Etxebarriaren lexikoian agertzen ez diralako hain eibartar petuak izan diran PANPANA HARTU eta PANPANDU.

“...eta kitto!” asteroko 126. alian gaurko honen aurreko artikulua argitaratu zan eta beste gauza batzuen artian PANPANA HARTU eta PANPANDU esamoldiak aztertzen nittuan zahar eta jatorrak diralakuan. Baiña lehengo batian Ramon Sarasuakin kalia berbetan niharduala esan zestan hórrek esamoldiok beran adiñekuak be erabiltzen zittuela, baiña eurak baiño zaharraguak ezetz, esate baterako euren gurasuak ez zittuela esaten. Harrezkero 86 urteko neure osaba bati galdetu detsat eta harek be ez ebela eurak erabiltzen. Gero haren kuadrillako nausi batzuekin egon naiz ZATIXA alkartian eta horrek be ezetz esan deste, baiña baietz hórren antzerako AFANA HARTU, AFANDU eta AFANOSUA. Honek esamoldiok geuk (nere adiñekuak) be erabiltzen dittugu, baiña, edozein modutan be badirudi «panpana hartu» eta «panpandu» ez dirala esabide zaharrak eta, dirudixanez, gure belaunaldixan sortutakuak dirala. Jakiña, hizkuntza, edozein berbeta, etenik bako eboluziñuan dago: berba eta esakera batzuk galtzen dira eta beste barri batzuk sortzen eta kanpotik sartzen jakuz. Baiña Jose Ramon Orozkoren iritziz, oster, baietz; hori aspaldikua dala eta beran gurasuak-eta be erabiltzen ebela. Jose Ramon gaztia da oindiok, baiña Eibarko gauza zahar asko daki eta gustua emoten dau berakin berba egittia. Dana dala, hor gelditzen da PANPANTZIA eta abar eta nik ez dot gehixago ikutuko hori, baina kontuz ibilli bihar dogu berba zahar eta jatorrekin, benetan demostrau bihar dira-eta.

**PEKIÑERA JUAN.**- Esamolde honekin zera esan nahi da, gauza bat alperrik galdu dala denporiakin, erabilleriakin edo istripuz, Toribio Etxebarriak Lexikoian adierazten deskunez. Geuk be erabili izan dogu esaera hori, baiña badirudi urrin urriñera juan dan gauzaren baten zentzuna emon nahi detsagula esaeriari. «Juan hari Pekiñera» eta abar, zera, haiñ urriñ juanda galdu egitten dala, bistatik galdu edo danalakua. Ikusi:

— *«Pekiñera juan jataz oñetako onek». (Toribio Etxebarriak).*

— *Aldeik hemendik, juan hari Pekiñera.*

— *Gaztetan bizikleta ederra euki neban, baiña Pekiñera juan zan ha.*

Gaur egunian, zentzun berian, PIKUTARA JUAN erabiltzen dogu, esate baterako, «hau



txamarriau be pikutara juan da» (zahartu, alperrik galdu), «hori pikutan dago, ezta enterau be eitten» eta abar. Hortan (PEKIÑEN = PIKUTAN).

**PEKORA IBILLI.-** Jatorra izan da esaera hori, baiña gaur egunian eztarabigu. Toribiok erakusten deskunez, iñoren kontura ibiltzia da horren esanguria. Ikusi bere ejenplu bat:

- *«Iñon pekora ondo dabill a lotsagabia».*
- *Horrek ez jok txikito bat be pagatzen. Iñon pekora dabik beti.*

**PLE-PLE EGIN(DA).-** Eibarren asko erabiltzen dan esamolde jatorra da hau, baiña ez da lafiau berbuaren esangura berekua, nahiz eta bixak barra-barra erabilli eta bixok ardaue edate gehixegixan eragiña erakutsi. Gaztiak eztarabixe ez batori eta ez bestiori. PLE-PLE (EGINDA) geldittu leike noixian behin ardaue edo txanpana edo danalakua edaten dabena, baiña LAFIAUTA sarri mozkortu samar dabillena izaten da. Orduan, badago bataren eta bestiaren arteko alderik. Ikusi deiguzen esaldi batzuk:

- *Atzo ezkontza baten egon giñan ta ple-ple amaittu genduan.*
- *Majo zatozie zuek, ple-ple eginda, umore ederrian.*
- *«Ple-ple eiñ Katillunian, eta badoyaz etxerutz kantu soñuan».* (Toribiok).
- *Horrek harrapatzen jittuk harrapatzequak; beti lafiau dabik.*
- *Demaseko lafiua daka, koskia be igo ezinda dabil.*
- *«Sapatu guztietan lafiautzen da»* (Toribio Etxebarriak)

Toribio Etxebarriak berak diño ukalondua jasota alegrixiakin pasatzia dala ple-ple eittia, baiña lafiau mozkortzia dala argitzen dau.

**TUTULUKO ESTRATAN EGON.-** Eibarren bada TUTULU baserri ezaguna. Ez dakit zergaittik, baiña badirudi sasoi batian urrin samar edo basamortuan edo zeguala uste zala eta, halaxe bertako estratia. Dana dala, hortik hartuta datoz TUTULUKO ESTRATAN EGON, TUTULUKO ESTRATARA JUAN esamoldiak, aurrerago ikusi dittugun «pekinera juan», «pikutara juan», «pikutan egon» eta abarren antzerako esanguriakin. Ikusi:

- *Alperrik diharduzu horrekin, ez detsu aitzen, tutuluko estratan dago.*
- *Aspertu naiz zurekin, juan zaittez tutuluko estratara!*
- *Berekautaketan jiharduan beti; tutuluko estratan jakan burua.*

**USTE (E)ZE.-** USTE EZE eta USTEZ ez dira bardiñak, nahiz eta lehelengua USTEZetik etorri. Gauza bat da, esate baterako, «nere USTEZ», «zure USTEZ» eta abar, baiña hortik datorren USTE EZE esamoldiak badauka bestelako esangura berezixa, zera, inpersonal zentzunezkua. Ikusi:

- *Harrotuta dabil, USTE EZE erregia dala.*
- *USTE EZE eurixa egin bihar dabela; hórrek dira laiño baltzak!*

**ZEGAITTIK EZE...- ZERGAITTIK** galdekizunetik datoz *zergaittik = zegaittik = zeaittik* eta, atzenian Eibarren, «zeaitxik» ahoskatzen dogu, baiña hórrek danok galderetan erabiltzen badira be, esate baterako: «zegaittik zatoz hain berandu?», euskera jatorrian erantzun geinke «autobusa galdu dotelako», edo «autobusa galdu dot-eta», baiña Eibarren barra-barra erabilli izan dan eta erabiltzen dan beste modu hau be badogu, zera, «zegaittik

eze autobusa galdu dot». Honetara hiru formok darabiguz.

Ikusten dogun moduan, esaldi kausaletan erabiltzen da zegaittik eze. Erderaz «por qué vienes tan tarde?» esateruzkuan, «porque he perdido el autobús» erantzutzen da, zera, lehelengo «por qué» galderia eta, ondoren «porque...» erantzuna, kausal kasuan. Jakiña, guk, euskeraz, «zegaittik eze» edo «zergaittik eze» erabiltzeruzkuan erdal joskera edo syntaxixa darabigu eta, dudarik ez, erdal eragiña dagola esamolde horretan. Baiña ezin ukatu, hala ta guzti be, oso eibartartuta daukagula, zegaittik eze eibartar nagusi peto-petuak be barra-barra darabixe.





## 8.- ARGOTA

ARGOTa frantsesezko “argot” berbatik dator eta bai kastellanuan eta baita euskeran be asko erabiltzen da. Giza edo jente talde batek darabixan berbamodu berezixa da argota. Argota izan leike lan-mundu bateko jarduna, edo famelixa arteko hizkera berezixa, edo umien hizkera aparta edo edozein gizatalderen berbamodu berezixa. Sarri, gauza batek daukan izen edo adierazte berezkua beste gauza bati haren izenakin deitzen detsagu eta, hala, argot eran erabiltzen dittugu. Esate baterako, *a zelako makilla saldia emon detse* esaten badogu, ez da esan nahi makillaz egindako salda bat emon detsenik, gogor jo dittuela baiño, egurra emon detsela, jo-eta apurtu egin dabela. Kasu horretan argotian berba egin dogu.

Gure argota zabal eta aberatsa danez gero, norbaittek gogoz hartu eta goittik behera aztertu biharko leuke. Ez dakit nork, baiña patxadaz eta gogoz egingo leukian baten eskuan lagako neuke. Zergaittik ez Antxon Narbaiza batek edo? Bere EIBARKO GATXIZENAK liburu bitxixa baiño be interesgarrigagua atera leikixo. Hor ba, atia zabalik. Hor dittugu ABOSPOLUA, ABOZIÑAUA... eta zer ez?. Dana dala gaiñetik ez bada be, zeozer emongo dot, baiña luzatu barik.

**ABABA.-** Txotxo, txótxotuta egon. Zahartzaruaren buru galdua.

- *Ababa nok ni ala, ori sinistu deiran! (Toribio Etxebarriak)*

**ABOSPOLUA.-** Mozolotia. Toribiok erderaz “pánfilo”, “alma de cántaro” diño.

- *Beran abospolo arpegixakin mozolua dirudi.*

- *“Ikusi al dozu abospolo hori?” (T. Etxebarriak)*

**ABOZIÑAUA.-** Rarua, berezi xamarra. Toribion ustez trabukuaren aho itxuratik dator nunbait izenori.

- *“Aboziñaua eta besterik ez lakua aiz beintzat eu!” (Toribiok)*

Nik Armerixa Eskolia amaittu eta ondoren lanteixan jardun nebanian, nere inguruan ziharduen eibartar helduak barra-barra erabiltzen zittuen bai ABOSPOLUA eta bai ABOZIÑAUA berbok. Gaur ixa galduta dittugu.

**ALPERRONTZIXA.-** Alperra, nagi hutsa.

- *Ez dok hik asko lagunduko, alperrontzi garau horrek!*

- *“Gizonak, alperrontzi, etxe-kalte negargarri batek urten detsa koittauari”. (Toribio Etxebarriak)*

**AMAMA.-** Zenbait euskalkittan “mauka”, (erderazko “chollo”, “bicoca”, “ganga”).

Edozeiñek daki amandriari/amonari Eibarren amama deitzen jakona, baiña bertako argotian, eta lehenengo silaban azeno prosodikua daroiala, enfasi haundi batez esanda, *ámama*, suerte haundi bat eukitzia da. Esangura honekin, uste dot, Eibarren bakarrik erabiltzen dogula. Ikusi:

- *Taberna barrixa zabaldu dabenetik horrek dauka ámama garaua!*

- *Oiñ hiru hillebete itxuena etara zenduan eta atzo Primitivia, zuk daukazu, zuk,*

*ámama. Horixe da benetan ámama eukitzia.*

**AMANDRIA.-** Amama edo amona bada be beran esangura jatorrian, Eibarko argotian neskatiilla pispiritxa jakinttuntxuari deittu izan jako, baiña baitta gizon afeminauari be. Ikusi adibide bat edo beste:

— *«Bene benetan amandria dozu ume ori» (T. Etxebarriak)*

— *«Zan gizon zerbait amandria» (T. Etxebarriak)*

**ANPORRA.-** Guzur galanta.

- *“Anporra zuk oiñ esan dozuna”.*

**ARIAPEKUA.-** Toribio Etxebarriak bere lexikoian erreka urpian sortzen dan ama-itturrixari deitzen detsa ariapekua. Baiña Jose Ramon Orozko erakutsi desta gaur kalian galduta daukagun eibartar argot-esangura politta.

Jose Ramonen esanetan, Eibarko argot jatorrian, ARIAPEKUA zera da, merezi ez dabenari, adiskidetasunez edo zerbaitten interesez, injustuki, lanpostu bat, sarixa edo mesede bat egin eta merezitta zeukana kanpuan lagatzia. Esate baterako, konkurso batian edo oposiziño batzuetan merezi ez dabenari lahelengo sarixa emon eta merezixa daukana atzian laga. Ikusi:

- *Udaletxian libre geldittu dan plazia zelan emon jetsek horri eta ez Benittori, honek dakixan guztiakin? Epa! hemen ariapekua egon dok!*

**ARIÑA.-** Burutik ariña, kaskariña. Pertsona bapez sakona.

— *Kontuz horrekin, hori ariña dozu-eta.*

**ARRIO (EGIN).-** Bildurtuta atzera jo. (ikusi “7”, 42. orrialdea)

- *Arrio, arrio, bildurtuta etzera eiñ dozue! Arrio eittia dok hori.*

**BUZTANA.-** Pitua, zakilla.

— *Gizon horrek buztana bistan daroia ixa.*

**EKEKEI, EKEKEI.-** Norbaitek ipurdixa bistan daukanean burla egitteko esaten da; burlarako oihua.

- *Ekekei, ekekei, ipurdixa bistan!*

**ERREGIAREN ARPEGIXA.-** Ipurdixa.

— *«Erregian arpegixa agiri jakon fraka apurtutik» (T. Etxebarria)*

**ERRETENA.-** Ipurzulua: atzeko erretena.

— *Emoizoxu ostikada bat atzeko erretenian.*

**GANBARIA.-** Burua.

— *Horrek dauka ganbara garaua! (buru handixa)*

**GAZTAIA.-** Burua.

— *Zer esan dok? hi ez hago ondo gaztaittik.*

**HAIXE ZULUA.-** Izen honen jatorrixa Eibarko metalurgixan fundiziñozko piezetan sortu izan diran barru-zuluetatik dator, baiña pertsona bat gaixo samar edo hondatuta dabillenan be esan izan da argot itxuran:

— *Itxura ona daukatela? baiña barrua haixe zuloz beteta.*

**HAIXIA.-** Burua sano sano euki ez.

— *Buruan haixia daukazu zuk.*

**ITTURRIXA.-** Berba jarixua, berba erreza.

— *Ene! horrek dauka eten bako itturrixa, zenbat berba!*

**KALABAZIA.-** Burua, buru handixa.

— *Ikusiko dozu kalabazan joten bazaitut.*

**LAFIAU.-** Mozkortu.

*Asko edan eta lafiau egin da ederto.*

**LAFIUA.-** Mozkor aldixa, mozkorra.

*A zelako lafiua harrapau eban atzo Ramonek!*

**LAFIAUTA.-** Mozkortuta.

*- Hik asko edaten dok eta aspaldixan lafiauta habil.*

**MAKILLA SALDIA.-** Gogor jo, jo-ta apurtu, “egurra emon”.

*- Ederra makilla saldia emon detsena zuen txakurrari. Jota dago.*

*- Guri emon jeskuek makilla saldia...! bost eta huts galdu juagu.*

*- Euki dozun gaixotasunak emon detsun makilla saldiakin jota zagoz.*

**MOZOLUA.-** Emakumiaren potxoliña.

*- Hain hankazabalik zeguan, eze, mozolua bistan zekan ixa.*

**NARRU GOGORRA.-** Arpegi gogorra, lotsagabia, lotsabakua.

*- Hik daukak narru gogorra, hik, zela esan heike hori!*

**O(BE)IDU.-** Berba hau Jose Ramon Orozko emon detsa. Nere sasoikuak ez dogu erabili izan, baiña bai gu baiño nagusituaguak eta 36ko gerra buelta inguruan galdu genduan, itxura danez. Gero Bartolo Arriola beterranakin egon naiz eta eurak be erabiltzen eben, nahiz eta berbo laguntzaillia desberdin esan destan batak eta bestiak.

Esanguria: nahikua egin, basta, gogaittu, errendidu.

Baiña, bixok esan deste erabillera berian, hau da, gaztetan burruketan egitten ebenian, galtzailliak alto emoten eban «o(be)idu» egin zala esaten. Eta, begira: bik burruketan badihardue, alkarren kontra, jakiña, eta batek, ezin gehixaguan, edo bestiak eziñian jarri eraiñ:

a) - «*Oitzen naok eta kitto, amaittu juagu*» (J. Ramon Orozkoren erara)

b) - «*Oitzen dok ala ez, esaidak*» (Bartolo Arriolaren erara)

**PERRA-HOTSA.-** Antxixiketa azkarra. Sarri hanka edo igesixa adierazteko. Laburduraz PERROTSA be esaten dogu.

- *Harek eruan eban perra-hotsa; ez genduan ikusi be egin.*
- *Lapurrak jo daben perrotsakin ez dabe errez harrapauko.*

**POT EGIÑ.-** Hilda geldittu, gehixago eziñian geldittu.

- *«Munduan jabe zelakuan, eta or, pot eiñ dau» (hil) (T. Etxebarriak).*
- *Anbatora bidian, euan beruakin, gora baiño lehen pot egin genduan.*

**SAPUA.-** Gorrotua.

- *”Ondo gordeta, baña sapua detsa bere bizi guztian” (T. Etxebarriak)*
- *Ño! ze sapua detsagun alkarri gaur egunian. Ezin leike holan bizi.*

**SOJIA.-** Zartadia buruan, urebagixa buruan.

- *Ixildu zaittez, sojia daukazu buruan ala?*

**TAKIAN DA POTIAN/TAKIAN POTIAN.-** Sarritan, noiznahi, behin eta berriro. Beste herrialde batzuetan honen pareko txitean-pitean esaten da.

- *Takian-potian guzurak esaten dittuzu zuk.*
- *«Takian da potian dauka zegozer makiña orrek» (T. Etxebarriak).*

**TANBOLIÑA.-** Persona alaixa, saltserua, danian sartzen dana.

- *Zu zara neska tanboliña! ezin geldi egon, danian sartu bihar.*

**TATAIA.-** Burua, buru haundixa. (Tataia=gaztaia).

- *Horrek dauka tatai garaua! Ederra gaztaia.*
- Hortan, gaztaiak eta tataiak burua nahi dabe esan.

**TRIPA-ZORRIXAK.-** Gosia, gose bizixa eukitzia.

- *Goiz guztian ez dot ezer jan eta itzaleko tripa-zorrixak dittut.*

**TXILIBITUA.-** Pitua, zakilla, pitiliña.

- *Zure granujiak txilibitua bistan daroia.*
- *Ekekei, ekekei, txilibitua bistan!*
- *Horrek berba asko, baiña etxakok txilibitua jaso be egingo.*

**TXIRTXILLA.-** Pitua, pitiliña.

**UKAT EGIN.-** Neke haundi baten aurrian pot egin, behia jo.

- *«Kurutze astunan azpitan, iru bidar ukat eiñ ei eban gure Jaunak, urkamendirako tokira eldu aurretik». (T. Etxebarriak)*

**UREBAGIXA.-** Zartadia, burutik eginda egon, haixia buruan.

Eibarko metalurgixa berbetan galtzairuzko piezak “tenplatzeko” bero gorittik ur hotzegixan sartzerakuan pieziari sortu izan jakozen zartada edo ebagixeri ur-ebagixak

deittu izan jakue, eta piezia hondatu. Hortik dator, gero, eibartarron argotian, burutik ondo ez dagonari buruan urebagixa daukala esatia.

- *Ezin dogu aittu zer diñozun: urebagixa daukazu ala?*

- *Horrek egitten dittu zorokerixak; urebagixa dauka buruan.*

**ZARTADIA.-** Buruko zartadia, burulokia, burutik eginda egon.

- *Hik daukak zartada garaua; holakuak zoruak be ez jittuek esaten.*

- *Hori burutik zart eginda dago; ez dago ondo burutik.*

**ZURIXA.-** Alper hutsa, nagixa.

- *Ez dau horrek golpe haundirik emongo lanian; zurixa galanta.*

- *“Diñuen letz, gazte aura, mardua baña zurixa”. (T. Etxebarriak)*

- *Biharra eik alper horrek, edurra baiño zurixagua haiz-eta.*



## 9.- UME BERBETIA

Ume txikixak egitten daben edo nagusixak umetxueri egitten detsen berbeta modu berezixari deitzen detsagu ume-berbetia. Alde batera lagako dogu, pedagogixa onaren izenian, berbeta modu hori erabili bihar gendukian ala ez eta zuzen-zuzenian nagusi edo helduen hizkeria erakutsi bihar lejakuen ala ez umieri. Dana dala, gure aurrekuak -eta baita gaur egunian be- umieri txakurra adierazteko “txitxi” eta “guau-guau” esaten detse eta txorixa esan biharrian, “pipi”, hau da, ume-lexiko berezixan. Eta hauxe berau dogu beste argot bat, sarri onomatopeia hutsa erabilliaz, esate baterako lehengo “guau-guau” eta “pipi” horretxek berok. Orduan, umien berbeta modu edo argot hauxe ikusiko dogu.

Umien berbetia hain da ume-berbeta eze, zentzunbako eta itxurabako gauzak esaten datorren pertsona helduari zera esan izan jako: “ez egidazu esan ume-berbarik, ume-berbekin aspertuta nago-eta”. Baiña gure bidia galdu baiña lehen, heldu deixogun gaurko gure zerari eta hasi gaittezen ume-berbeta horren hiztegitxua agertzen:

**AIDA-AIDA.-** Behi, idi eta ganadu mota horretako aberiak adierazteko esan izan da:

- *Ikusi, ikusi hor, Mikeltxó, aida-aida!*
- *“Guazen emendik, aida-aida dator gure ganuntz da”.* (T. Etxebarriak).

**APAPA.-** Pasiua (paseo). Apapa joan / Apapara joan = pasioara joan.

- *Hala umetxó, oiñ jantzi eta apapa joango gará.*
- *“Guazen apapara, egualdi ederra dago ta”.* (T. Etxebarriak).

**APATX, APATX EGIN.-** Jarri. Lurrian jarri, aurkixan jarri eta abar.

- *Zer txikí, nekatu egin zara ala? Ia ba, apatx egingo dogu hementxé.*
- *“Apatx eizu amatxon onduan, mama erateko”.* (T. Etxebarriak).

**BEKEKE.-** Bildotsa, ardixa...

- *Umetxó, oiñ bekeke ikusiko dogu zelaixan.*
- *“!Pa eixozu bekekeri!”.* (T. Etxebarriak).

**BILI-BILI.-** Bilixa, paittaa, (aratia, ahatea).

- *Umetxoari bili-bili gustatzen jako, ezta baietz umetxó?*
- *“Ikusizu bili-bili mamatan”.* (T. Etxebarriak).

**GUAU-GUAU.-** Txakurra.

- *Ez egizu egin negarrik, bestela guau-guau etorriko da eta.*

Oharra.- Irakorliak parkatu egin biharko gaittu gure lanetan sarri agertzen diran huts eta okerregaittik. Garrantzi gitxikuak dira letra bat edo beste dantzatuak edo atzekuaz-aurrera agertzen diranian, errez igarriko dabelako «inprentako» hutsak dirana. Baiña beste gauza bat da ortografiatzko okerrak agertzen diranian. Hara, esate baterako, nere 36garren atalian agertu neban argot saillian, EKEKEI berbiaren esanguria azaltzen neban tokixan, adibide edo ejenplo bat zetorren eta nik «burlarako oihua» ondo idatzi baneban be, gero,



maketatzailliaren edo inprentiaren okerre, txarto agertu zan: «ohiua», eta honek bai benetan emoten destana min. Ha, inprentako okerra zan eta hauxe nere azalpena. Dana dala, edozeiñeri gertau leikixo hori eta parkagarritzat laga bihar. Baiña jarraitu deigun, beste barik, lehendik hasitta daukagun UMIEN LEXIKUAKin.

**KIKI EGIN.-** Umiekin ezkutatzeko jokuan jardutzeruzkuan esaten da “kiki”. Ezkutau eta “kiki” esan. “Kiki egittia” ezkutatzia da.

- *Anetxó, kiki, kiki, nun dago?*
- *“Alkarri kiki eitten dabiz jolasetan”. (T. Etxebarriak).*

**KOKOLE.-** Txokolatia.

- *Han, aitatzok kokole ekarri dau zuretzat.*
- *“¿Artuko dozu kokole maittiorrek?”. (T. Etxebarriak).*

**KOKO-MARRUA.-** Úmiak izutzeko erabiltzen dan fantasiako izaki bildurgarria. Bardin da koko-marrua edo kokomarrua.

- *Ia ba, umé, jaizu, bestelá kokomarruari deittuko detsat.*
- *“¡Ixildu zaittez, koko-marruak eruango zaittu ba bestela!”. (T.E.).*

**LOLO.-** Lo egin. Batzuetan, maittasunez, “roro” be esaten da, bustiduraz.

- *Guazen lolo egittera, lastana, lolo, lolo, haundi egitteko.*
- *“¡Lolo eizu maittiorrek!”. (T. Etxebarriak).*

**MAIÑAK/MAIÑAK EGIN.-** Negar egin. MAIÑETAN JARDUN = negarrez jardun. Badirudi “maiña”, “artimaña” eta halako berbetatik datorrela. Umiak, sarritan, zeozer lortzeko, beran artez, azpijokoz eta trebeziaz egitten daben tranpazko negarra izaten da.

- *Ez txiki, ez nerí mañetan etorri, hau ez da zuretzát-eta.*
- *Ez egizu mañarik egiñ, txikitxó, emongo detsut-etá.*
- *“Egun guztian mañak dittu ume orrek”. (T. Etxebarriak).*

**MA.-** Mosúa, lastana:

- *Ala, emon ma amamari eta guazen etxera.*
- *«¡Gaiztu orrek ez desta eiñ gura ma!». (T. Etxebarriak).*

**MA EMON/EGIN/BOTA.-** Mosua emon, lastana bota:

- *Emoidazu ma, maittia, ala, emon ma aittatxori!*
- *Ikusi nun doian Arantxa; botaixozu ma hemendik!*
- *Ia umetxó, egin ma, egin ma zure laguntxuari!*
- *“Ma eixozu amatxori, lastanorrek!” (T. Etxebarriak)*

**MAMA.-** Ura:

- *«Ama, emoixozu mama umiari». (T. Etxebarriak).*

**MAMARRUA.-** Momorrúa, momúa, kokúa, (umien ikaragarria).

- *«Ixildu zaittez, mamarrua dator bestela!». (T. Etxebarriak).*

**MAMELUA.-** Karamelua:

- *Umetxó, hartuizu mamélua eta ezeizu negarrik egin!*
- *«Mamelo eske dago umia». (T. Etxebarriak).*

**MATXUA.-** Mosúa, lastana, pátxua:

- *«Matxua emon detsa bere laguntxuari». (T. Etxebarriak).*

**MISI-MISI.-** Katua. Baitta katuari egitten jakon dei onomatopeikua:

- *Ikusi Jonetxó, ikusi zelako misi-misi polittá! Eixozu misí-misí, misí-misí!*

**MOMÚA.-** Mamarrúa, momorrúa, fantasmia, kokúa:

- *Ixildu! negar egitten badozu momúa etorriko jatzu bestelá!*
- *Lagaixozue umiari bakian, momuakin bildurtu naixan ibili barik!*

**NANAN/NANAN EGIN.-** Jan, jan egin. “Ñañan” be esaten da..

- *Umetxuak oiñ ñañan egingo dau ezta, polittorrek?*
- *“Nanan eizu maittiorrek aundi eiñ zaittian”. (T. Etxebarriak).*

**PA.-** Ma, mosúa, lastana. PA eta MA bardiñak dira.

- *“¡Pa eirazu maittiorrek!” (Toribio Etxebarriak).*
- *Honek umionek beti pa emoten dihardu.*

**PAPA.-** Ogixa:

- *Hartu papa eta jan, neska haundi egin zaittezen!*
- *«Ez da bota biar lurrera papa; pekatua dalako». (T. Etxebarriak).*

**PATXUA.-** PA berbiaren diminutibua. Mosutxua, lastantxua, matxua.

- *“Ixillian patxua emon detsa”. (Toribio Etxebarriak).*

**PITXÍA.-** Gauza politta, joiatxua, edergarri dan edozer.

- *Ené, ze pitxi ederrá ipiñi detsun amatxok atzamarrian!*

**PUPÚA.-** Miña, zaurixa (herídia):

- *Xemeikuan pupúa eta errialan trapúa. (Eibarko esaera jatorra).*
- *Kontuz umé, pupu hartu barik!*
- *“¡Pupua eiñ detsu zatar aundi orrek!” (Toribio Etxebarriak).*

**PURRAK.-** Oilluak.

- *“Atoz, purrak ikustera!”. (Toribio Etxebarriak).*

**PURRA-PURRA.-** Oillúa, oilluak eta baitta oillueri deitzeko onomatopeia be.

- *Guazen purra-purra ikustera. Guazen, purra-purra egingo detsegu.*

**TAKA-TAKA.-** Ibilleria, ibiltzia, umien oiñez ibiltzia.

- *“Taka-taka etorri zaittez amatxo-gana”. (Toribio Etxebarriak).*

**TAS-TAS (EGIN).**- Jo, ipurdikuak emon. (Tas-tas emon, tas-tas hartu).

- *Ez hartú hori, gaiztuorrek, bestela tas-tas emongo detsut.*

- *Laga horí bakián, ipurdixan tas-tas egingo detsu-etá aittatxok.*

**TATI, TATI EIÑ.**- Umiekin egitten dan jokua; zerbait eskiñi eta haren hartzeko erantzunan ondoren kendu edo eskutatzen jakonian esan izan da “¡táti!” Toribio Etxebarriak diñuanetz, gero nausixen berbetara be pasau da.

- *“Borondate barik eskindu, eta tati eiñ zestan gaizto arek, bayetz esan netsanian”.*  
(Toribiok).

- *Hartu hau, umiá, hartu...táti! (Eskindu, baiña emon ez, kendu).*

**TATO/TATO EGIN.**- Jatxi, bajatu, salto.

- *“¡Tato eizu, maittiorrek, jausi barik!”.* (T. Etxebarriak).

**TETE EGIN.**- Jo, norbait jo.

- *Umé, geldí ezpazagóz tete egingo detsút.*

**TXALO-PINTXALO.**- Umetxueri txalotxuak joaz, sarri euren eskutxuak hartuta, egitten dan kantujolastxua. Baitta asko erabili izan dogun kantutxu edo tonadillia.

- *Maittiá, egidazu txalo-píntxalo.*

- *Txalo-píntxalo, txalotxó txaló  
txoritxua mizpillá gáñian dagó;  
bádago begó, bégo bádagó,  
zapatatxó berrixerí bégira dagó”.*

**TXINTX EGIN.**- Mokuak kentzeruzkuan egitten dan zurrutzadia, zaratia eta, aldi berian, mokuak kentzia bera be bai. Jatorriz “zintz” bada, umiekin “txintx” esan izan da.

- *“Txintx eizu orrek kandelok kentzeko”.* (T. Etxebarria).

**TXIO-TXIO.**- Txorixa. Izatez, txori kantuaren onomatopeya hutsa da.

- *Begira, maittiá, zelako txío-txío polittá, hor árbolatxuan.*

**TXITXI.**- Txakurra.

- *“¡Atoz, bestela txitxik jango zaittu!”.* (T. Etxebarriak).

**TXITXIA.**- Okelia. (Aragixa ez, jateko okelia baiño).

- *“¡Jaizu txitxia, maittiorrek, aundi eitteko!”.* (T. Etxebarriak).

**TXUNDA-TXUNDA.**- Musikia, musikako bandia.

- *Guazen kalerá, umetxó, txunda-txunda dator-etá!*

## 10.- METATESIAK

Gramatikan, dakizuen moduan, berba bateko letra nahiz silaba baten lekuz aldatziari deitzen jake metatesia (edo metatesisa). Sarri, oso-osorik aldekoz-aurrera bihurtzen da, esate baterako, toki batzuetan multzo esaten bada be, Eibarren moltzu (moltzúa) eta abar.

Euskeran joera haundixa dago holako metatesiak sortzeko eta, jakiña, Eibarko euskeran be bai. Gaur egunian nahikua erdaldunduta gagoz eta ez dogu holakorik sortzen, baiña lehengo euskaldun zaharrak egitten eben, beti be euskal fonetikaren eragiñez, eta ez bestela. Esate baterako, euskaldun zaharrak “alforja” entzun, jaso, eta “alproja” bihurtuz erabilli izan dau; “bragueta” entzun eta “bargeta” esanaz bereganatu, eta halaxe.

Eta, nik, gaurko honetan, besterik barik, Eibarren gaur arte erabilli izan diran metatesi batzuen zerrendatxua emongo dot. Hona hemen:

- *Agillandua* ..... *Aginaldua*

Eta ikusi, horren lekuko edo testigu, Gabonetako herri-kantutxu hau:

- *“Agillandó, agillandó,  
bizkaitarra Durangón,  
zazpi gaztaiña zortzi-intxaúr.  
Aingeruak gara, zerutik gatóz  
poltsia badogu baiña  
eskian gatoz”.*

- Albidadia	.....	Abildadia (Abillidadia) (bixak)
- Alimanixia	.....	Animalixia (bixak)
- Alproja	.....	Alforja
- Aulmadia	.....	Almuadia
- Arpela	.....	Alperra
- Arpelik	.....	Alperrik
- Bargetia	.....	Bragetia
- Beinke	.....	Bienke / “Bien que”tik?
- Dundurixua	.....	Durundixua
- Edarria	.....	Erradia (“herrada” ontzixa)
- Gergorio	.....	Gregorio
- Irudixa	.....	Idurixa
- Moltzua	.....	Multzoa
- Piedra/piadre	.....	Pierde (jokuan hutsa egittia)
- Zadarixa	.....	Zaragixa



## 11.- ONOMATOPEIAK

Gramatikan Onomatopeia deitzen joko zarata, zaratatxo eta edozelako soinu naturalen adierazpen eta imitaziñua egitten daben berbiari, esate baterako *kirri-kirri / kirrikarria*, *blasta / blastadia* eta abar, edo, sarritan, baitta, mugimendu, jesto edo modu baten adierazpena agertzen dabenari: *zírri egin / zírrixa*, *mara-mara* eta abar.

Onomatopeiak, atzenian, izen edo sustantibuak (kilikilixa) eta aditz edo berbuak (kilikili egin) izan leikez, aurreko adibide edo ejenpluetan ikusi dogun letz.

Euskeran aberatsa dogu onomatopeien mundua eta, jakiña, Eibarko euskeran be bai. Eta, beste barik, gaiñez-gain ez bada be, pillotxo bat aztertuko dogu. Hona hemen:

**ÁJAJA.- ÁJAJA EGIN, ÁJAJAKA JARDUN.** Barre álgaria, barre álgaraka ibili.  
- *Arratsalde osua ájaja eta ájaja jardun eban Joxepak. Beti ájajaka!*

**ÁJAJIA.-** Barre álgaria.  
- *Haren ájajia ederra da benetan; ze gozo bizi dan.*

**APATX / APATX EGIN.-** Jarri. Gehixen be umien berbetan erabiltzen da.  
- *Ia, maittiá, egin apatx hemen, ia, apatx umiak!*

**(H)ÁRRAMARRA / ÁRRAMARRIA.-** Zaratía, drogia, zírriparria, náhastia, saltsía.  
- *Háretariko bat hasarretu zan eta han euki eben izateko hárramarria!*  
- *Andres beti dabill hárramarraka, drogoso hutsa da.*

**ARRAMÚZKA EGIN.-** Umore txarrez egitten dan “bufadia”, zarata eta jesto zakarra.  
- *Ez zetsan ongietorri onik egin, arramúzka zatarra baiño.*

**ARRAMÚZKADIA, ARRÁMUZKETAN.-**  
- *Egin zeskun arramúzkadiakin bildurtuta laga ginduzen.*  
- *“Arramuzketan urten eban uezabagandik”. (T. Etxebarriak).*

**ARRÁPATAKA / ARRÁPATAKIA.-** Príxaka larri, baldar, ibilli. (Modu adberbiala).  
- *Beti arrápataka batian dabill Edurne, beti ántxixiketan.*  
- *Haren arrápatakiak ez daka akaburik; egunero dabil bardin.*  
- *“Arrapataka bizi naiz, ezertarako astirik gabe”. (T. Etxebarriak).*

**ARRATÁDIA(RIA).-** Tarratadia, apurtúa, eregixa, “siétia” egin.  
- *Baldartsu makurtu naiz eta arratádia egin dot fráketan.*

**AXAXA.-** Txakurra norbaiten kontra edo burrukara jartzeko egitten jakon tentaldixa.  
- *Axaxa, axaxa, heldu horri, Txuri!*

**BAR-BAR.-** Gaztaiñak egosten egitten dan zaratia.

- *Gaztaiñak bar-bar egiñaz eta babak pil-pil egosi bihar dira.*

**BARRA-BARRA.-** Asko, ugari, eten barik, errez.

- *Horrek barra-barra dihardu berbetan beti.*

- *Jaionek barra-barra daki ingeles, Londresen ikasitta.*

- *Batzuek barra-barra egin dabe dirua.*

**BIX-BIX-BIX.-** Katueri deitzeko ahuakin egitten dogun zarata berezixan onomatopeia.

**BLAST / BLASTA.-** Golpe zaratia.

- *Asarretuta, blasta! itxi eban atia eta juan zan.*

- *Arpegixan jo eban, blast! eta ixa bota egin eban.*

**BLASTADA/BLASTADIA.-** Golpia. (BLAST onomatopeiaren sustantibua).

- *Harek máixuak blastada gogorrek emoten zittuan.*

- *Emongo detsuten blastadiakin ixilduko zara!*

**BLASTATEKO/BLASTATÉKUA.-** Matraillékua emótiá, golpia (sustantibua). Pertsona batí esku zabalez arpegixan emoten jakon golpia.

- *Blastateko haundixegixa emon detsazu umiari.*

**BLASTIÁDIA.-** Palízia. (BLAST onomatopeiatik datorren sustantibua).

- *Txakurrari emon zetsan blastiadiakin birrinduta laga eban.*

**BLÁSTIAU.-** Palízia emon, egurra, jo-ta apurtu. (Aditz edo berbo forman).

- *«Ganberro eiten ziarduan, eta blastiau eben biar eban neurrixan». (Toribio Etxebarriak)*

- *Ixiltzen ezpahaiz, blástiau egingo haut.*

**BLASTÍUA.-** Palízia. (BLAST-etik datorren egurra emótiaren sustantibua).

- *«Emon detse blastiua, ondo irabazitta eukan». (T.Etxebarriak)*

- *Hárek emon zeskuen blastíua..! Sei-tta bat irabazi zeskuen.*

**BLIS(T)-BLAS(T).-** Jo, matraillékua emon, esku zabalian jo.

- *Blist-blast joko zaittut eta berihalaxe ixilduko zara.*

- *“Nahitta aundixagua izan, blist-blast jo eta bota eban lurrera”. (T. Etxebarriak).*

**BLIST ETA BLAST.-** Aurrekuaren antzera jo.

- *Ez dauka errazoirik, baiña blist eta blast jo dau mutillá.*

**BLISTI-BLASTA.-** a) jo, matraillékua emon.

b) uretan ibilli.

- *Blisti-blasta jo eta arpegixa gorri-gorri laga detsa.*

- *Gústora dabill umiá uretán, blisti-blástaka.*

**BOLO-BOLO.-** Barri edo jardun bat batetik bestera ugarixan ibilli.

- *Ez dakizula zer gertau dan? ba, bolo-bolo dabillen gauzia da.*
- *Diñuena guzurra izan leike, baiña bolo-bolo dabill, egixa balitza moduan.*

**BOLO-BOLUA.-** Bolo-bolo ibiltziaren sustantibua.

- *Zuk diñozuna ez da hain barrixá; danen jakiñeko bolo-bólua da.*

**BOF!.-** Bero zatar, usain txar edo túfuak joten gaittuanian esaten dogu.

- *Bof! hemen dago bero garauá! Ezin da sartu be egín.*

**BOFADIA.-** “Bof” onomatopeiatik datorren sustantibua.

- *“Labatik urtetzen eban bofadiak, itxo biar ninduan”. (T. Etxebarriak).*

**BRIZ-BRIZ.-** Brilloz betia, brílluak, (brillante). Bardin litzake bris(t)-bris(t).

- *Harék izarrák dauka argi bizixá! briz-briz dago!*
- *“Briz-briz agiri zan Zesterukua, Arraten”. (T. Etxebarriak).*

**BRIZTADIA/BRIZTARIA.-** Brizt (brist) egittetik datorren sustantibua.

- *Hori da pitxí polittá; zelakó briztadía daukán!*
- *“Oñaztu baten briztaria izan da”. (T. Etxebarriak).*

**BRIZT E(G)IN.-** “Brizt” onomatopeiatik sortutako aditza (bərbua).

- *“Urriñera, brizt eitten eban euzkittan, diamante ederra balitza letz...”. (T. Etxeb.).*

**BRO-BRO.-** Irakíñak egitten daben zaratia.

- *Kontuz, babak bro-bro daukazuz irákittan eta erre egingo jatzuz.*
- *«Bakillaua pill-pill, eta porruak bro-bro». (T. Etxebarriak).*

**BRU-BRU.-** Zurrumurruan onomatopeia.

- *«Bru-bru dabill erri guztian zeñ dan lapurra». (T. Etxebarriak).*

**BURRUNDARIA.-** «Burrun» zarata onomatopeiatik datorren sustantibua.

- *Gerra denboran Francon abioiak ekartzen eben burrudária bildurgarrixa zan.*

**DAN-DAN.-** Elixako kanpai-hotsa (kanpai bakarrana). Baitta ate jotiana be.

- *Zenbait kanpantorretako kanpaiak dan-dan egitten dabe.*
- *Antxiñan ez euan tinbrerik eta dan-dan joten genduan atia; baitta aldabiakin be.*

**DANBA.-** Ikubillez edo beste zerbaittekin indartsu jotian egitten dan zaratia.

- *Lehelengo politxó-politxó jo genduan atia, baiña geruago danba-danba.*

**DANBADIA.-** “Danba” jotiaren sustantibua.

- *Gau beranduan atian emon zeskuen danbadiakin bildurtu giñan.*

**DANGA/DANGATEKUA.-** Danba-ren parekuak (onomatopeia eta sustantibua).



- *A zelako dangatékua emon detsan atiari, ixa lurrera bota dau.*

**DAR-DAR.-** Hotzak eta, nolabait, bildurrak eragitten daben ikariaren onomatopeia. Hortik datoz DARDARIA sustantibua eta DARDARAZ modala.

- *Hotzaren hotzak dar-dar neukan gorputza; ha zan dardaria, ha!*

**DART (EGIN).-** Zerbait apurtzen danian egin izan dan zarata berezixa. (=Zart).

- *Horrek etxok balio, dart egin jok eta hondatuta dagok, botaik zikiñetara.*

**DARTAU.-** “Dart” egittetik sortutako aditz edo berbua. (=Zartau).

- *Dart egin dabelako dártauta dago. Horixe dakar dártatziak.*

- *“Ez da apurtu baña bai dartau”. (T. Etxebarriak).*

**DI-DA.-** Gogor txamar jotiaren onomatopeia.

- *“Di da burutik bera eta lurrera konort barik”. (T. Etxebarriak).*

Baiña baitta, bada, bigarren esangura batez, erabagi gogor baten seiñale. Hara:

- *Beste barik, berihalaxe, di-da! egin eban eta kitto.*

**DILIN-DALAN.-** Kanpai hotsen onomatopeia.

- *Arrateko kanpaiak dilin-dalan egitten (joten) dabe.*

**DINBI-DANBA.-**

(1) Gure lantegixetako sutegi zahar eta forjetako maillu hotsa.

(2) Norbait edo zegozer gogor jo, goittik behera.

- *“Dinbi-danba suteixan, goritxutako burdiñia tiratu gurarik!”. (Toribiok).*

- *Ha mozkor gizajua eten barik jo eben, dinbi-danba.*

**DRI-DRA.-** Erabagi gogor eta zorrotzaren onomatopeia. (*Di-daren* parekua).

- *“Dri-dra, ez goyaz geixago itxaintzera, eta guazen amendik”. (T. Etxebarriak).*

**DRINGILI-DRANGALA.-** Ibillera baldarra, jarduera baldarra; kankailluaren ibilleria.

**DUM!.-** Kañoian disparo zaratia. Baitta dinamita errebentatziaren zaratia be.

**DUN-DUN.-** 36ko gerran erabilli zan fusil tipo baten tiruak egitten eban Dun-dun, eta haren muniziñuari bala dun-duna deitzen jakon.

- *36ko gudarixeri milla bidar entzun izan netsen bala dundunak txar-txarrak zirala: haren tiruak dun-dun egitten ei eben.*

**DRUNGUN-DRUNGUN.-** Saskarki eta harrapataka eranaz etaratzen dan zaratia.

- *Ez zaittez txitxia izan eta eraizu esniori drungun-drungun.*

**DZA-DZA.-** Edur mamintsu eta bigunetan gabizenian egitten dabe “dza-dza” gure hankak; ibillera horren zaratian onomatopeia.

- *Ha zan edurtzia bota ebana! dza-dza ibilli giñan batetik bestera.*

**EJU-EJU!.-** Eztularen onomatopeia.

- *Ibilli zaittez eurittan eta gero etorri eju-ejuka!*

**FARRA-FARRA.-** Edozer gauza mordo edo ugarixan dabillenian esaten da; esate baterako neurri barik dirua gastatzen ibiltzen darian. Onomatopeia honek modu adberbial zentzuna dauka.

- *“Farra farra darabill dirua, ez dakigu noiz arte”. (T. Etxebarriak).*

**FARRAST.-** Uretan igarixan egitten dan besakada bakoitxaren onomatopeia.

- *Gustora jardun neban igarixan, farrast eta farrast alde batetik bestera.*

**FARRASTADIA.-** Igarixan emoten dan besakadiaren onomatopeia-sustantibua.

- *“Igarixan, farrastada luzia eban”. (Toribio Etxebarriak)*

**FIRI-FARAN (IBILLI).-** Badauka modismo honek onomatopeia zentzunik, eta aurrera eta atzera ganora barik ibiltzia agertu gura dau. Seguru asko gure herrixan erabili izan zan txilibitu antzerako “firi-faria” izenetik dator, edo, bestela, lantegixetan euki genduzen “firi-fara” izeneko tramankuluetatik.

- *“Firi-faran dabill gauza onik eiñ barik” (T. Etxebarriak)*

**FIRIN DA FARAN.-** Aurrekua moduan: batetik bestera ganora barik ibilli.

- *Gaur ez dozu gauza haundirik egin; badirudi firin da faran zabizela.*

**FIRI-FIRI.-** Edozein bittartetatik sartzen dan haixe fresko molestagarrixaren ezaugarria.

- *Itxi atia ondo, hortik datorren firi-firixa ez da-eta gozua.*

**FURRUST (EGIN).-** Hasarre antzian botatzen dan arramuskadiaren onomatopeia.

**FURRUSTADIA.-** “Furrust” onomatopeia sustantibotua.

- *Diru gehixago eskatzen juan jakon, eta bestiak bota zetsan furrustadiakin bildurtuta alde eban.*

**GLOK.-** Larregi janda “glok” egitten da. “Glok egin” modu adberbial bihurtzen da.

- *“Ainbeste jateko aurrian ditturala, ekin baño len glok eiñ dot”. (T.Etx.)*

**GLU-GLU.-** Erateruzkuan eztarri zulotik barrura egitten dan zaratiaren onomatopeia.

- *“Pitxarra jaso eta glu-glu, aldi baten ustu eban” (T. Etxebarriak)*

**IRRIST.-** Labankadiaren onomatopeia. Hortik dator IRRIST EGIN aditz edo berbua.

- *Irrist egin neban eta hankaz gora jausi nintzan.*

**IRRISTADIA.-** Irrist egittiaren sustantibua.

- *Harek egin daben irristadiakin orkatillia bihurrittu jako.*

**KARRAS.-** Eztarriko nolabaitteko laztasunak eragindako zaratiaren onomatopeia.

**KARRASK.-** Zerbait lehertzeruzkuan, apurtzeruzkuan egin izan dan zaratia.

- *Karrask egin zestan eskuetan eta apurtuta gelditu jatan.*

**KARRASKADIA.-** (1) Apurtuaren onomatopeiatik datorren sustantibua. (2) Eibarren erabili izan da, baita, oillarrak eztarri urratu batekin burukatik hanka egiñaz etaratzen daben orrua edo garrasixa: karraskadia jo.

- *Berna-hazurra apurtu ebanian etara eban karraskadiak hotzikaria sartu zestan.*

- *Irrara batian ziharduala urten zetsan karraskadiakin amaittu eban.*

**KARRASPADIA.-** Eztarriko laztasunak eragindako onomatopeiaren sustantibua.

- *Eztarrixan daukazun karraspadia kentzeko pattar trago bat dozu ónena.*

**KIRRI-KARRA.-** Gauza gogorren bat jateruzkuan hagiñetan sortzen dan zaratiaren onomatopeia.

- *Ni ikusitta nago mutil kerten bat bonbillia kirri-karra jaten.*

**KIRRIKARRIA.-** Kirri-karra onomatopeiaren sustantibua.

- *Karamelua jaten darabizun kirrikarriakin badirudi hagiñak be bota bihar dittuzula.*

**KIRRI-KORRO.-** (1) Katarruak iñoiz bular barruan sortzen daben zaratia.(2) Bat gose danian tripetan euki izaten dan zarata berezixa.

- *Katarrua jua dalakuan, baiña ondiok kirri-korro petral bat daukat hemen barruan.*

- *Hau da gosia! Tripak kirri-korro daukaraz.*

**KIRRIKORRUA.-** Kirri-korro zarata onomatopeiaren sustantibua.

- *Zure kirrikórrua be ez da ba errez juaten; hartuizu esne berua eztixakin.*

**KIRRIKADIA .-** Egoera larri batzuetan sortzen dan hagiñetako zaratiaren izena.

- *“An izango da negarra eta agiñen kirrikadia” (T. Etxebarriak)*

**KLIK-KLIK.-** Ulia ebagi.

- *Ebagixok ulia granujioni, klik-klik, bildur barik.*

**KLOK.-** Larregi jaten danian sortu izan dan betekadiaren okadiaren onomatopeia.

Hortik dator KLOK EGIN aditz edo berbua.

- *Hainbeste jan dot eze klok eginda nago.*

**KORROSK.-** Estamanguko haixe bultzadiak ahoraiño dakarren haixe zaratia, (onom.)

**KORROSKADIA.-** Barruko haixia ahoraiño zazkar datorkigun zaratian sustantibua.  
(aupatsa)

- *Larregi jan eta edan dau eta korroskada batian dago. (edo korroskadaka)*

**KRAK.-** Zedozer zartau edo etetzen danian sortzen dan zaratiaren onomatopeia.

- *Ikusi, larregi okertu dozu eta krak egin dau.*

- *Umetan “san blas” opillekin elixara juaten giñanian, batzuetan krak egitten jakuzen.*

**KRAKADIA.-** KRAK onomatopeiaren sustantibua.

- *“Kradia eiñ dau sapaixak”. (T. Etxebarriak)*

**KRI-KRI.-** Txirtxil kantuaren onomatopeia.

- *Txirtxillak udan kri-kri, neguan mutu.*

**KUKURRUKU.-** Oillar kantuaren onomatopeia.

- *Sarrittan norberak nahi baiño lehen egitten dau oillarrak kukurruku.*

**KUKURRUKUA.-** “Kukurruku” onomatopeiaren sustantibua.

- *Oillarrak ez eze, zenbait personak be harrokerrixian kukurrukua jotzen daki.*

**KURRIN-KURRIN.-** Txarrixaren urruma eta txilixo onomatopeikua. Ume-berbetan be txarrixari berari kurrin-kurrin deitzen jako.

**LARRAPAST.-** Labankadiaren onomatopeia dala esango neuke.

- *Larrapast egin eta luze-luze jausi zan.*

**LARRAPASTADIA.-** Larrapast onomatopeiatik datorren sustantibua.

- *Aldats beheran egin neban larrapastadiakin orkatillia bihurrittu neban.*

**KRIS-KRAS.-** Atia ondo ixterunzkuan egitten dan zaratiaren onomatopeia.

- *Otsua barruan sartu baiño lehen, kris-kras itxi eben atia.*

**MIAU.-** Katuan miauaren onomatopeia. Hortik dator miaua sustantibua.

- *Gure etxe ostian katuen miauak ugari; beti miauka batian.*

**MOR-MOR.-** (1)- Errekako urak goxo-goxo doiazan ataratzen daben zaratia. (2)- *Nolabaitt gaizki esateko erabiltzen dan berba-jardunaren onomatopeia.*

**MORMORIXUA.-** “Mor-mor” onomatopeiatik datorren sustantibua; atzetik gaizki esaka ibiltziana. Baiña kontuz, erderazko murmuración bera da.

- *“Mormorixua ez da falta ezkondu zan ezkerik” (T. Etxebarriak)*

**MORMORRA.-** Mormorixua, zurrumurrua; jardunaren zaratia.

- *“Errezuen mormorra eltzen zan geu gengozen lekurañok” (T. Etxab.)*

**ÑI-ÑI.-** Umien negarraren onomatopeia.

- *Ume petral hau beti dago ñi-ñi-ñi, negarrez.*

**PARRA-PARRA.-** Neska-mutikuak goittik-behera ipurdi gaiñian labanka jaixtiari parra-

parra bajatu eta parra-parrian ibilli deitzen jako. Neska-mutil koskorren jokua da. Eta joku-lekuari berari be parra-parra deitzen jako.

- *Gaztetan frakak apurtu artian ibiltzen giñan parra-parrian.*
- *Edozein lekutan parra-parra gertatzen genduan.*
- *Fraka barrixokin parra-parrian habil? Joko haut gero!*

**PARRAST/PARRASTADIA.-** Parrast jausi ura. Ur parrastadia. Dirua parrastadaka.

**PIL-PIL.-** Pil-pil edo pill-pill. Janarixak su motelian, poliki-poliki, irakin geldixan egosterunzkuan sortzen dan zaratiaren onomatopeia.

- *Baba gorrixak eta bakillaua poliki-poliki, pil-pil egosi bihar dira.*
- *Pil-pillian sosiguz egindako bakillaua gozua da.*
- *Hortik datorkigu "bakillaua pil-pillera" platua.*

**PIRRI-PIRRIXA.-** Kaka beherakua ("pirrileria").

**PITX.-** Badirudi pelota jokuan egitten dan dejadiaren onomatopeia dala.

**PITXADIA.-** Pelota jokuko "pitx" onomatopeia hortatik datorren sustantibua (dejadia)

- *Azken tantua, txokuan egindako pitxada ederra izan zan.*

**PLISTI-PLASTA.-** Uretan, eta potzuan, ibiltzen etarutzen dan zaratiaren onomatopeia.

- Batzuetan baldar, txipristiñak etaraz, baiña baitta jolasian gustora be.
- *Ez zan igarilari ona, baiña plisti-plasta ibiltzen zan pozik.*
- *Mendi ibillixan ondoren, potzuan sartu ta plisti-plasta ibilli giñan.*

**PLOST.-** Lehertziaren, errebentatziaren zaratiaren onomatopeia.

**PLOST EGIÑ.-** "Plost" onomatopeiatik sortutako aditz edo berbua: errebentau.

- *"Sutan ipiñi orduko plost eitten dabe onek sagarrok" (T. Etxeb.)*

**PLOST-PLOST.-** Kaka lodixak jaustian egitten daben zarata onomatopeikua.

- *Hik daukak osasuna, hik! horrek dittuk kaka plostada garauak!*

**POSPOLIN.-** Galeperran kantu onomatopeia. Hortik, galeperrari berari be "pospoliña" deitzen jako Eibarren. Galeperra eta pospoliña, bixak.

- *Entzun! han pospoliña kantuan, "pospolin-pospolin".*

**PUF (BUF).-** Aspertiaren, nekiaren eta ezjakiñaren hots edo zarata onomatopeikua.

- a)- *Puf! aspertu naiz gaurkoz.* b)- *Puf! batek daki zeinek egin daben hori!*

**PUM-PUM!.-** Eskopeta, pistola edo-eta fusillaren tiruan onomatopeia.

**PURRA-PURRA.-** Oillueri deitzeko egitten dogun onomatopeia.

**PURRUST.-** Bat-bateko barre zaratiaren onomatopeia.

**PURRUT.-** Puzkar zaratian onomatopeia.

- *Egin purrut-purrut, umetxó!*

**PURRUSTADA.-** “Purrust” onomatopeiatik datorren sustantibua. Barre purrustadia.

- *Ezin izan neban barria eutsi eta purrustadiak urten zestan.*

**RRRRR.-** Motor zarata onomatopeikua, edo elektrikoki zegozer bueltaka dabillena .

- *Motor zahar horren zaratia gortzekua da, rrrrr! belarrixak be mindu.*

**SARRA-SARRA.-** Lo sakonaren onomatopeia.

- *Horrek dauka osasuna, horrek! jan ondo eta lo sarra-sarra.*

**SITS ETA BITS.-** Azkar jan, golpian jan, gogoz eta aguro jan.

- *Gu konturatu orduko, sits eta bits jan eban dana.*

**TARRAT.-** Apurtu baten onomatopeia bat izan leike. (tarrat egin).

**TARRATADIA.-** “Tarrat” onomatopeiaren sustantibua.

- *Makurtu eta fraka estuotan sekulako tarratadia egiñ eban.*

**TART.-** Apurtuaren edo etenaren onomatopeia berezixa.

**TART EGIN.-** Apurtu, eten.

- *Su beruegixan ipiñi dozu ontzixa eta tart egin detsu.*

**TAK.-** Golpe zarata baten onomatopeia. (Eibarren bazan “tak eta erriala” deitzen zetsena)

**TAKA.-** Aurrekuaren antzera, golpe zaratia.

**TAKADIA.-** “Tak” edo “taka” onomatopeiatik datorren sustantibua. Golpia.

- *Suertetsua zan ha, tak eta beti etaratzen eban zegozer.*

- *Taka! jo eban buruan makilliakin, baiña miñik emon barik.*

- *Migel Gallastegi pelotarixa eginda dago 22 tanto takada batian.*

- *“Oiño gaixuak, takada aundixa emon desta” ( T.Etxebarriak).*

**TAKATEKUA.-** Aurrekuan moduan, “tak” edo “taka” onomatopeiatiko sustantibua.

- *Emon zetsan takatekuakin ixa konorta barik geldittu zan.*

**TAKA-TAKA.-** Oiñezkuaren zaratiaren onomatopeia, oiñez ibiltziana.

- *Zela juan zarie Arratera, autuan ezta? -Bai zera! taka-taka juan gaittuk.*

**TAN-TAN.-** “Dan-dan” moduan, kanpai eta erloju hotsa.

- *Kanpantorrian, “tan-tan-tan”, goixeko hirurak jo zittuen eta etxera juan giñan.*

**TAPA-TAPA.-** “Taka-taka” moduan, oiñezko zaratiaren onomatopeia.  
- *“Tapa-tapa, Zaldibar’erañok eldu giñan laurak baño len”.* (T.Etxeb.).

**TARRAT EGIN.-** Erropia apurtu. (tarrat = apurtuaren onomatopeia)

**TARRATADIA.-** Tarrat egittetik datorren sustantibua.

- *Iñaki Perurenari fraka-tarratadia egin jakon, behiñ, harrixa jasotzen. “Tarrat” egin zetsan frakiak atzekaldian, neuk ikusi neban, eta harrixa jausi egin jakon lurrera.*

**TAS-TAS.-** Umiendako berbetan, jo, jotia. (tas-tas emon, tas-tas jo)

- *Umé, formal ezpazabiz tas-tas emongo detsut!*

**TAUPA-TAUPA.-** Bihotzaren odol golpien zaratiaren onomatopeia.

- *Hartu neban sustuakin bihotza taupa-taupa jarri jatan, beran lekutik urten biharrian.*

**TAUPADIA.-** “Taupa-taupa” onomatopeiatik datorren sustantibua. Bihotz taupadia.

- *Ameseta txar harek esnatu ninduanian, bihotza taupada batian neukan.*

**TIKILI-MAKALA.-** Nekez ibiltziaren irudi onomatopeikua.

- *Nahikua txarto dabil gure tia zaharra, tikili-makala, noiz jausiko.*

**TILIN-TALAN.-** “DILIN-DALAN”ekin ikusi genduan moduan, kanpai-hotsa.

- *Arrateko kanpaiak tilin-talan, tilin-talan.*

**TIPIRRI-TAPARRA.-** 1) Papel-tira batian pegautako fosforozko pistoiak horman edo lur latzian arraskatu eta haren txinpartak etaratzten daben zaratiaren onomatopeia. 2) Papel-tira horri berari be “tipirri-taparra” deitzen jako. Gehixen bat mutil-koskorren jolasa da; nekez ikusiko dira neskatiak horretan. Mutikotan gustora ibiltzen giñan tipirri-taparrak erosi eta txinparta batian.

- *Tipirri-taparrak erosi eta, hor dabiz, tipirri-taparra batian.*

- *Granujak gustora dabiz tipirri-taparrekin jolasian.*

- *Tipirri-taparretan jardutzeraz jua dira gure gaztiak.*

**TIPIRRI-TAPARRIA.-** “Tipirri-taparra” onomatopeian sustantibua. Zaratia. Iñoiz, zentzun figurauan, pertsona zaratatsu eta zalapartatsuari be “tipirri-taparría” deitzen jako.

- *Jesus! hik darabik tipirri-taparría; baztarrak apurtu bihar dittuk.*

- *Zuen mutilla da tipirri-taparría!, ez da berori bapez motela.*

**TIRRI-TARRA.-** Baita “tirri eta tarra” be. Puzkar edo uzkar botatze ugarixaren zarata onomatopeia.

- *Baba mordo bat jan dabe eta hor dabiz, tirri eta tarra, puzkarka.*

- *Umé, zer jan dozu gaur? Zuk darabizu eten bako tirri-tarria!*

Gaztetxuak giñala, granuja gaiztuak gu, honako hau kantatzen genduan basarritarren bati adarra jo nahixan.

- *“Basarrittarra, tirri-tarra, jan bedarra ta bota puzkarra”*

**TRAK.-** Gauza trinko bat hausi edo etetzen daneko onomatopeia. Sarritan gorputzeko hazurren zarata txarrari deitzen jako.

**TRAK EGIN.-**Hausi, (eten, apurtu). Hazurrak “trak egin”  
- *Bizikletan nindoiala hormia jo neban eta belaunak trak egin zestan.*

**TRAKADIA.-** “Trak egittiaren” sustantibua.  
- *“Trakadia sentidu dot besuan” (T. Etxebarriak)*

**TRAKA-TRAKA.-** Zaldixen hanka-hotsen onomatopeia.  
- *Zaldi gaiñian traka-traka doiazenak ikusi eta inbidixia emoten dabe.*

**TRAKATAN-TRAKATAN.-** Zaldi trotiaren onomatopeia.  
- *Zaldi gaiñian trakatan-trakatan doiazela ikustiak inbirixia emoten dau.*

**TRIKI-TRAKA.-** Pausoz pauso ibiltze sendo eta “zaratatsuaren” onomatopeia.  
- *Gaztetan egitten genduzen mendi-ibillixak! triki-traka, triki-traka, puntarik-punta.*

**TRIPILI-TRAPALA.-** Zegozer molde txarrez, baldar eta zaratatsu egittiaren onomatopeia.  
- *Gauzak txukun egin biharrian tripili-trapala bazabiz, apurtuko dittuzu, bai, baztarrok.*

**TRIPILI-TRAPALIA.-** Tripili-trapatik datorren sustantibua. Izan leikez, bai egitte bat, baita pertsonia bera be.  
- *Hori da tripili-trapalia darabizuna! Zeu be horixe zara-eta, tripili-trapalia.*

**TUN-TUN.-** Tanbolin soiñuaren onomatopeia. “Tun-tun” edo “ttun-ttun”.  
- *“Atzo ttun-ttun, gaur be ttun-ttun,  
beti ttun-ttun gaittun gu...” diño kantu zaharrak.*

**TUNTUNA.-** Ttunttuna. Tanboliña. “Tun-tun” onomatopeiatik sortutako sustantibua.  
- *“Domeka arrasaldetan tuntunian dantzan”. (Toribio Etxebarriak).*

**TXALAN-TXALAN.-** Etenbako berbetan jardun.  
- *Ikusi, badihardue hórrek bixok, betiko moduan, ixildu barik, txalan-txalan.*

**TXILIN-TXILIN.-** Kanpanilla hotsa. Txilliñaren zaratia.  
- *Txilin-txiliñ egitten dau mezatako txiliñak.*

**TXIN-TXIN.-** 1) Diru-zaratia. 2) Basuekin brindisa egiteruzkuan egitten dana.  
1) - “Txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa...” (herri-kantuak diñuan moduan)  
2) - Eta oin, txin-txin egingo jonagu txanpanakin.

**TXINTXIÑA.-** “Txin-txin” onomatopeiatik datorren sustantibua: dirua.  
- *Ez itxurak bakarrik, horrek txintxiña be euki dauka!*



**TXIO-TXIO.-** Txori batzuen kantu eta txitxen txíuen onomatopeia.

- *Kanarixo hori ez dok bapez ona, txio-txio gehixegi egitten jok. Txitxía jirudik..*

**TXIPLI-TXAPLA.-** Uretan jolasian ibiltziaren onomatopeia.

- *Ene! ze ondo ibilli diran, txipli-txapla egitten, uretan.*

**TXIPLI-TXAPLIA.-** “Txipli-txapla” ibiltziaren sustantibua.

- *Hori da, darabizuen txipli-txaplia, hori! Baiña kontuz urakin!*

**TXIPLI-TXAPLAKA IBILLI.-** “Txipli-txapla” ibiltziaren esamolde edo modismua.

- *Umiak txipli-txaplaka ibiltzera juañ dira.*

- *Umiak txipli-txapla egittera juañ dira.*

**TXIRRIST.-** Berbetaldixan berbiak laban egitten dabeneko onomatopeia. Sarrittan larregi eran danian gertatzen da. Batzuek, eran barik be txirristadia dake.

- *Hainbeste eran dau eze, berbiak txirrist egitten detsa.*

**T X I S T.-** Norbaitti txistadia botatzen jakon onomatopeia. Ixiltzeko be bai.

- *Txist eta txist egiten zetsan mutillak, baiña neskiak kasurik bez.*

**TXIST.-** a)Hagiñak alkartuta egiñaz botatzen dan txistadazko deiza. b) Berbiaren ordezeko hots edo soiñua, baiña ezezeko esaldixetan bakarrik darabiguna.

a)- *Txist-txist! zu, hau papelau jausi jatzu!*

b)- *Ixil-ixilik egon nintzan; ez neban txist bat be egin, txistik be ez.*

**TXISTADIA.-** “Txist” onomatopeiatik datorren sustantibua. Deiza.

- *Ha zan txistadia bota zenduana! Danak begiratu eben.*

**TXITXI-POTXUAK.-** Ixilpeko berba jardunaren onomatopeia.

- *Ez dakigu zer darabixen, baiña (ixilleko) txitxi-potxuetan dihardue.*

**TXORROST.-** Ur apurtxo bat botatzen daneko zaratiaren onomatopeia.

**TXORROSTADIA.-** Ur apurtxo bat botatzen daneko onomatopeiaren sustantibua.

- *Esan netsan esnedunari: botaidazu ba, txorrostatxo bat gehixago.*

Uste dot Eibarren txorrostada eta txorrontada, bixak erabiltzen dirala. Toribio Etxeberriak berak badauka halako ejemplo bat:

- *“Artu eban patxar ontzixa eta bota zetsan txorrontada bat kafíari”.*

**TXOST.-** Nunbaitten gauza bat sartziaren onomatopeia. Umiekin, eta jokuetan be, erabiltzen dan berba onomatopeikua.

- *Ia ba, Loretxó, sartu gauzak hementxé; egin txost!*

- *Gure lagun batek kaniketán ixa beti egitten eban txost potxoluan.*

**TXURRUT.-** Bustiduraz, zurrut bera. Edatiaren edo trago baten onomatopeia.  
 - *Surra moraututa jaukak horrek. - Bai ba, txurrut egitten jok-eta gogor.*  
*Hortik datoz gero, txurrutian ibili (eranian), txurruterua eta antzerakuak.*

**TXUTXU-PUTXU.-** Ixilpeko jardun eta mormorixuen onomatopeia.

**TXUTXU-PUTXUKA.-** Txutxu-putxu jardunaren onomatopeia.  
 - *Horrek andra bixok txutxu-putxuka dihardue: beti dabiz txutxu-putxueta.*

**UJUJU!** - Poztasunezko dei irrintzitsu, zantzu edo aujixaren onomatopeia.  
 - *Erromerixatik zetozen, pozik; haren ujuju! eta aujixak! itzalak ziran.*

**UJUJUA.** - UJUJU onomatopeiaren sustantibua.  
 - *Gure mendi-ibillixetan a zelako ujujuak eta irrintzixak botatzen genduzen.*

**XORROST.-** Txorrost-en bariantia. Ur apurtxo bat botatzen daneko onomatopeia

**XORROSTADIA.-** Txorrostadian aldaera edo bariantia.

**XURRUT.-** Txurrut-en aldaera edo bariantia.

**XURRUTADIA.-** Txurrutadian aldaera edo bariantia.

**ZAPLA.-** Golpia emotian edo matraillekuak etaratzten daben zaratia, onomatopeia.  
 - *Gaztetan euki genduan maixu batek, zapla! joten eban hutsagaittik.*

**ZAPLADIA/ZAPLATEKUA.-** Zapla! onomatopeiaren sustantibuak.  
 - *Hori umiori txarto hazitta dago;azelako zaplatekuak merezi dittuan.*  
 - *Emoixozu zaplada bat eta ikusiko dozu zelan ixilduko dan.*  
 - *Behin aittak emon zetsan zapladia ez jako sekula ahaztu.*

**ZART.-** Zerbait hautsi, eten edo apurtzen daneko zaratia.  
 - *Harek plater ederrak zart egin zetsan esku-eskuetan.*

**ZARTADIA.-** “Zart” edo “zarta!” onomatopeiatik datorren sustantibua. Zentzun figurauan, pertsona batek burua arin darabillenan be erabiltzen da.  
 - *Hori kristalori aldatu egin bihar da, zartadia dauka-eta.*  
 - *Hik esaten dittuk esatekuak!, itzaleko zartadia daukak (buruan).*

**ZARTATEKUA.-** Zartadiaren antzerakua.  
 - *Emoixozu zartateko bat, ia ikasten daben.*  
 - *Horrek kriston zartatekua dauka; ez dabill ondo burutik.*

**ZARTAU.-** Zart egittetik datorren aditz edo berbua.  
 - *Pieza hau zartauta dago; ekarrizu beste bat.*

**ZIPLI-ZAPLA.-** Matrail bixetan emoten diran zaplatekuen onomatopeia.

- *Harro etorren mutilla, baiña zipli-zapla jo eban aittak.*

**ZIRRIN-ZARRAN.-** Oiñak narrazian erabili.

- *Gizon hori be majo zahartu eta narraztu da; hankak be zirrin-zarran darabiz.*

**ZIRT EDO ZART.-** Modismo antzera eraturako onomatopeia. Modu batera edo bestera, baiña erabagixa hartu biharrekua; berihalakuan egittekua.

- *Egizu hori azkar, zirt edo zart, baiña gaur bertan amaittu!*

**ZIRTI-ZARTA.-** Gogor jotiaren onomatopeia.

- *Zirti-zarta emon zetsen makilliakin sagar-lapurretan juan ziranian.*

**ZIRRIN / ZIRRINDARIA.-** Metalezko zarata garrasitsua.

- *“Serrian zirrindariak gortutzen ninduan”. (T. Etxebarriak)*

**ZORRO - ZORRO.-** Lo-zurrutzadaka, sakon lotan izan.

- *Zuk daukazu osasuna! zorro-zorro egitten dozu lo.*

**ZORRUAK.-** Lo-zorruak; lo-zorruen zarata onomatopeikua.

- *“Kaletik entzutzen ziran aren lo-zorruak”. (T. Etxebarriak)*

**ZURRUMURRU.-** (1) Tonu bajuko berbeta modu berezi baten onomatopeia. (2) Errekako uraren ibillixaren kantu onomatopeia.

Hortik dator zurrumurrua sustantibo onomatopeikua.

- *Gauerdixan kaleko zurrumurruak eta txakur zaunkak asko molestutzen nabe.*

- *Errekatxuko uraren zurrumurruak ikaragarritz ikutzen nau bihotzian.*

**ZURRUT.-** Txurrut moduan, trago bat hartzen daneko onomatopeia.

- *Karral pelotarixak arrautza gordiñak zurrut egitten zittuan kale erdixan.*

Zurrut berbatik datoz: zurruta (txurruta), zurrutadia, zurrutian ibilli eta halakuak.

**ZURRUZTADA.-** Eztarrixakin lotan etarutzen dan zaratia. Lo-zorruak moduan, lozurrutzadak.

- *Nere soldau-lagunak etarutzen zittuan lo-zurrutzadekin ezin izaten neban ganoraz lorik egin. Gau osua lo-zurrutzadaka egitten eban.*

## 12. JOLAS ETA JOKUAK

### 12.1 “bat, bi, hiru eta lau”

4-a izan da beti Eibarren jolasetan eta jokuetan hasieria emoteko erabilli izan dogun oiñarrizko numerua, baiña ez jokuetan bakarrik, lan edo biharrian be bai. Eta uste dot, biharbada Euskal Herri osuan erabilli izan dala. Hau, euskaldunon senian eta kulturaren ehundaka urtietan sendotutako oiñarrizko numerua dogu eta, oiñ, bat-batian, belaunaldi bakar batian erderazkua sartu jaku: “uno, dos y tres” eta “un-dos-tres” eta hortik, zuzen-zuzenian “bat, bi eta hiru” esaten hasi gara, betiko euskerazko laukua baztertuta. Penagarrixa. Beti erderiaren bendian jausten gagoz.

Begira, antxixiketa karrera bat egitteko urteerako erreixan jartzen giñanian, urteeria edo “salidia” emoten ebanak esaten eban: “Ia, danok prest: bat-bi-hiru ta-lau!” eta antxixiketalarixak karreran hasten ziran. Edo igarira juaten giñanian eta bateronbat uretara salto egitteko bildur txamar eguanian, ura hotza egualako edo dana dalakua, esaten jakon, ia ba, salto egik, eta erabagi baiño lehen hasiko zan kontatzen “bat...bi...hiru...ta lau” eta orduantxe egingo eban salto. Batzuetan, oso bildurti bazan, berriz kontauko eban lauko zifria, beti laukua, “bat-bi-hiru ta-lau”, baiña behin be ez “bat, bi, eta hiru” erderazkua.

Beste ejemplo bat. Pentsau deigun bi bihargiñek pieza haundi bati bueltia emoteko aldamen bakotxetik helduta diharduela: “Kontuz, bixok batera eh, ia, bat-bi-hiru ta-lau” eta lauaren ondoren egingo eben indar bateratua. Edo sokatiran egin bihar bagenduan, hasi baiño lehen, bat-bi-hiru ta-lau kontauko genduan. Garbi ikusten da, beti 4-a izan dogula edozeri hasieria emoteko kontatzen genduan zifria.

Halaxe dogu, esate baterako, honako herri-jolas kantutxu hau be, lau konpasek markatzen dabena, zera, solfeauko bagendu, konpasilluan jarriko gendukiana:

*Bat, bi, hiru ta lau,  
Txomiñek andria falta dau,  
Txomiñek dauka dendia  
sagar ustelez betia.*

Oso eibartarra izan dogu, peto-petua, jatorra, joku batian edo bestian katigu nor izango dan erabagitzeko kantatzen genduan lau konpaseko beste rexitaziño polittau; korruan giñan danok banan banan eskuz markatzen juaten giñan, bueltan, lau konpasok, eta konpasaren atzen partia zeifnengan tokatzen zan haxe zan katigu. Ikusi:

*“Don, don, Beleron,  
Belerongo herrixan  
zazpi gizon dantzan,  
ni mozkorra, zu mozkorra,  
nahi dabena kanpora!”*

Atal honekin aurrera egin baiño lehen, esan biharra daukat guganaiño heldu diran betiko jolas eta joku izeneko konzeptuak argi eta diferentia izan dirala beti-beti. Gaur egunian euskeraz diharduan edozein gazteri entzutzen jako esaten “pelotan jolastuko dogu?” edo “Retegik ondo jolastu dau”, edo “hórrek androk beti kartetan jolasten dabiz” (hobe dihardue esan, dabiz baiño) edo “Athletixak txarto jolastu eban atzo” eta, guzurra badirudi be, modu horretantxe egitten dabe berba Ikastoletako gaztiak be gaur. Penagarrixa, ez dakixe bereizten edo diferenziatzen zer dan jokua eta zer jolasa. Zer da gertatzen dana?

Jakiña, hori ez da sekula be hola izan. Eibartar petuandako gauza bat da jolasa eta beste gauza bat jokua. Eta gaur eguneko kaskarkerixa hori erderatik hartutako juego, jugar-etik jaso da eta euskerazko aberastasuna galdu dabe gaztiak, erderaz konzepto diferente bixak juego berba bakar berberakin erabiltzen diralako. Badake zer ikasi eta erakutsirik gaztieri euskeraz erakusten diharduenak!

Erderaz, esate baterako, “Retegi ha jugado bien” eta “Retegi ha jugado con su rival como el gato con el ratón” ez dira konzepto bardiñak. Horregaittik, Eibarren, betiko berbeta jatorrian era honetara esango genduke: “Retegik ondo jokatu dau” eta “Retegik katuak xaguakin moduan jolastu dau kontrarixuakin”. Gauza bat da jokua = juego, competición, deporte eta beste bat jolasa = (juego), diversión, divertimento, recreo, broma, eta hau jolasau sarrittan txantxetan edo olgetan jardutzia be izaten da. Gehixenetan, jolasa, umien jarduna izaten da.

Bat ibilli leike norbaiti adarra jo nahixan, broman, olgetan, “drogan”, jolasian, baiña hori ez da jokua, ez dihardu jokuan, jolasian baiño. Ume batek euki leike jolas-guria, edo mútillak neskekin jolasian ibiltzeko (ganas de jugar, de divertirse), baiña batek postura batian dirua jokatu nahi badau, hori jokua da, (juego de dinero) ez da jolasa., Haizkora-jokua, pelotia, fooballa, tenisa, ajedreza eta halakuak jokuak dira, ez dira jolasak, eta horretan diharduenak jokatu egitten dabe, ez jolastu edo jolas egin. Pelotarixa etorri leike etxera nekatuta pelota jokuan jardun ondoren, baiña ume bat nekatuta etortzen da etxera jolas asko egin ondoren. Orduan:

**Jokua** = juego, competición, deporte...

**Jolasa** = juego, diversión, recreo, solaz...

Gure zaharrak esaten eben hau esaldi filosofikua gogoratu deigun: “jokua ez da errenta”, baiña ez leuke sentidurik eukiko “jolasa ez da errenta” zentzunbakua esango bagendu, zegaittik-eze jolasa beti izan leike errentagarri, beti denborapasa alai eta aberatsa, baiña diru-kontuko jokuak jende gitxi aberasten dau eta bai askotxori arriabarra ekarri.

Guk gaztetan, gaurko gaztiak baiño askoz be gehixago jolasten genduan kalia eta gure jolasen artian joku asko egitten genduzen, eta joku bakotxak beran izena eukanez, datorren aletik aurrera banan-banan emotiari ekingo detsat.

Baiña, hori dana galdu zan, edo galdu dala dirudi. Oñ erdal munduan bizi gara, dana erderiari kopixatzen dihardugu eta erderiaren bendian burumakurtuta gabiz. Penagarrixa. A

zelako lan ederra daken gurasuak, edukatzailliak, andereño eta irakasle danak gure umieri eta gaztieri galdu barri dittugun esakera eta esamolde jatorrak berreskuratze jardun horretan. Dei bat egingo netseke daneri: ahalegindu lan horretan, eta gaurko joku eta ekintza kontatze honetan beti “bat-bi-hiru ta lau” erabili eta “bat-bi-hiru” erdalduna baztatu! Eskerrik asko danori.

Lehenago agindu doten aginduta moduan, Eibarko jolas eta jokuak zelan izan diran banan-banan emoten juango gara. Ia ba, ikusi deiguzen:

## 12.2 Afariketean. Afáriketan ibilli / jardun.

Hau, ume eta gaztetxuen jolasa da eta, batez be, neskena, neskatillatxuena, nahiz eta mutil kóskorrek be ñoiz parte hartu izan dabeneurekin, baiña oso gitxittan. Orduan, neska-koskorren jolasa da. Ez da jokua; jolasa da.



Izenak berak diñuan moduan, bere etimologixia afari-ttik dator, zera, afarixa egitten jardutzia; nahiz afarixa, nahiz bazkarixa edo bardin armozua, baiña, dirudixanez, afarixa izan da jolas horren izenaren oiñarrixa. Hortik, ba, afáriketan ibilli, edo jardun.

Horretarako, neska kóskorrek, euren erarako diran ontzitzuak hartzen dittue, dendetan erositta, baiña, sarrittan, harritxo zapal biribilekin, betun edo lustre-kajatzuekin edo eta beste edozer gauzakin ontzixak balira moduan jardun izaten eben orduko úmiak, gaur egunian salgai dagozen jostailu edo jugete eder aiña egoten ez zalako. Gero edozer ohol edo kartoi hartuta “sukaldia” egitten eben ordukuok, gaurko dendetan saltzen diran moduko sukaldetxo apaiñik ez euken eta, janaritarako euren amari eskatutako ogitxuak, barazki zatixak, edo edozein bedar eta landara zatirekin egin izan dittue, neskatillatxuok, euren “bazkari” eta “afarixok”. Eta denbora luzian jardun izaten dabe, aspertu eziñian. Gaiñera, beti egoten da, beste guztien artian, nagusi egitten dabena, harek benderatzen dittu danak eta berak esango dau bera “ama” dala eta zein dan Mirentxu umia eta zein Josetxo aitta, edo kopin bat hartu eta ha txikixena dala esan eta jaten emoten jardungo jako.

Ñoiz, ume tarteko batek esango dau oiñ bera dala “ama” eta lehengua alabatxua, eta bakotxaren funziñuak aldatuz jarraitzen dabe afáriketan. Hor sortzen da beste jolas bat: Amatxoka ibiltzia. -“Amatxoka ibilliko gara?”, -“Amatxoka jolasten gabiz”

Gure ume denporan ez eguan “sukalde”- jostailu edo jugete askorik eta orduko neska kóskorrek, batez be pobre txamarrak baziran, asmau egin bihar izaten zittuen euren ontzitzuok eta “sukaldetxuok”. Baeuken, bai, horretarako irudimen eta asmamen aberatsik. Gaur egunian bai benetako sukaldien itxurako miniaturak saltzen dittuela umiendako: sukaldetxo “elektrikuak”, “gasdunak”, baita arasatxo polittak be, danak modernuak, eta ontziterixa ugarixa be bai. Antxiñan ez eguan gaurko aukerarik eta orduko umetxuak edozerrekin asmau egin bihar izaten eben.

Afáriketa izenak hartu dau, gero, beste esangura figurau bat, eta persona helduen artian be erabiltzen da; bateronbat adarjotzen, edo txantxetan eta brometan datorrenian, edo fundamentu haundi barik diharduanian esaten joko: zer, afáriketan diharduzu ala?

### 12.3.- Asajietan egin / = Tortolosean egin

Badiruri “Asajietan egiñ” izena zaharragua dala “Tortolosean egin” baiño, baiña, izena izen, bixak dira joku bat, joku bera da. Nesken jokua da, eta guk ezagutu genduzen azken tortolos-jokalarixak nahikua neska haundi egiñ arte jokutzen eben. Nik esango neuke ixa hamalau urte arteko neskak jokutzen ebela. Mutillok ez genduan sekulan holako joku batian parte hartzen, ezta pentsau be. Hori nesken joku eksklusibua zan.

Idatzitako aztarrenik zaharrena Toribio Etxebarriaren aittatze laburra dogu beran LEXICON DEL EUSKERA DIALECTAL DE EIBAR izenekuan: “APONE BAT APONE BI.- Términos rituales del juego infantil de las tabas. Apone bat, apone bi, iru apone, lau...”. Geruago, eta alfabeto ordeniari jarraituaz, diño: ASAJE BAT, ASAJE BI.- Términos rituales del juego de las tabas.- ¿Zenbat asaje eñ dituzu aldi onetan?”. Eta ez diño ezer gehiago. Geruago, ASAJIAK.- Tantos en el juego de las tabas.- “Eñ dituran asajiekin irabazi detsut”. Eta azkenik, ASAJIETAN EIÑ.- ver. tran. Jugar a las tabas.- “Eskola neskak asajietan eiten eben, ordura arte, tortolosekin”. Baiña zelan jokutzen zan diñuan orduko aztarren idatzirik bape ez daukagu.

Ni neu gogoratzen naizenez, gure gazte denboran jo-ta-ke egitten eben neskak “tortolosean”. Neure arrebak be asko jokatu eben horretan, batez be nagusixenak, eta beragandik jaso dittut daturik aberatsenak. Dana dala, tórtolosa, bildotsen, ardixen eta adarixen hankako hazurtxo bat da. Gehixenetan bildots-tortolosekin jokutzen zan, baiña adarixarena eukanak gustorago jokutzen eban, eta ez horrekin puntu gehiago irabazten zalako, ez, -puntuak bardiñak ziran-eta-, horrek emoten eban gustuagaittik baiño. Nik berba egin doran larogeittik larogeta-hamar urte arteko emakumiak esaten deste adari tortolosakin jokatzia gauza grandia zala, baiña hori ez ei eban edozeiñek eukitzen.

Eta, zelan da, ba, asajietan edo tortolosean egiñ edo jokatzia? Ia, guazen hori ikusten:

Neska bik, edo hiruk, edo lauk jokutzen eben alkarren kontra. Joku bat irabazten ebanak beste bat egitten jarraitzen eban, jokua galdu artian, jakiña, eta orduan hartzen eban txandia bestiak eta beriari ekitzen etsan. Baiña, esate baterako, lau neska baziran, zein eta

zelan hasten zan jokuan? Horretarako, lauretatik edozeiñek eskuakin lagunok banan-banan markatzen juanaz honako kontatze-kantatze polittau egitten eban:

- *“Don-don kikilimon,  
Don Ramuke San Ramon,  
pike-pike tortolike,  
ban-bun ziriketako bun”*.

Eta atzen “bun” berbia zeñi tokatzen jakon, haxe hasten zan jokuan.

Lau tortolosekin jokatzen zan. Lau tortolos eta trapuzko pelotatxo bat. Lau tortolosok esku batian hartu eta mahai gaiñera botatzen ziran, mahai gaiñera edo, lurrera, lurrian jarritta egitten ba-eben, eta, bota ondoren, tortolosak edozein posturatan geratzen ziran lurrian; bata alde zabal sakona gora begira ebala, bestia bizkarraldia gora, beste bat albo bat erakusten ebala eta, danalakua, bakotxa era ezbaridiñian, edo batzuetan, suertez, laurak arpegikalde bardiña gora ebela. Eta jokua hasitta dago. Joku oso batek lau parte dittu; lehelenguak “putzasajé” izena dauka, bigarrenak “bixák”, hirugarrenak “hirurák” eta laugarren partiak “erregeák”. Ikusi deiguzen laurok:

1<sup>a</sup>- “Putzasajé” esan, pelotia airera bota eta berriz eskuan hartu bittartian “baát” kontau eta tortolos bati bueltia emon bihar jakon alde sakon-zabala gorutz begira ipiñiaz eta esku batian gorde (hori dana pelotia barriz eskuan hartu orduko), gero bota berriz pelotia eta “bií” esanaz beste tortolos bat alde sakon-zabala gorutz begira jarri eta eskuan hartu, gero, pelotia botatzen jarraitu, baiña bakotxian “hirú”, “laú” esaten jarraitzen zan, tortolos bakotxaren alde sakon-zabala beti gorutz ipiñi eta eskuan laurak batu artian. eta horrekin jokuaren lehelengo partia betetzen zan.

2<sup>a</sup>- Gero bardiñ egitten zan bigarren partia, baiña “bixák” esan eta tortolosak mahaira edo lurrera bota, eta oinguan alde bizkar-zabala jarri bihar zan gorutz begira eta eskuan hartu, eta halaxe, beti eskuakin lau tortolosen bizkar aldia, banan-banan gorutz ipintzen juan “baát”, “bií”, “hirú” “laú” kontatzen juanaz, bakotxian pelotia gorutz bota eta eskuan hartuaz, eta lau tortolosok bizkarraldia gorutz dabela ipiñi eta eskuan hartu ahal izan dabenian bigarren partia bete dau jokalarixak.

3<sup>a</sup>- Aurrekuen moduan, baiña hasieria “hirurák” esaten egitten zan eta tortolosen albo luze-estua gorutz bueltauz, “baát”, “bií”, “hirú”, “laú”. Hirugarren parte honetan, beti tortolosen albo luze-estua jarri bihar izaten zan gorutz begira eta berihala eskuan hartu pelotia jausi baiño lehen.

4<sup>a</sup> Tortolosak mahai edo lurrera bota “erregeák” esaten dan bittartian, eta laugarren parte honetan tortolosen albo luze-zabala zan banan-banan (edo bi batera, jokalarixak exhibiziñua egin nahi baeban) gorutz begira jarri bihar ebana, aurrekuen moduan “baát”, “bií”, “hirú”, “laú” kontauaz eta azkenerako lau tortolosok eskuan dittuala.


Danera lau buelta bakotxari, baiña lau tortolos ziranez, lau lauko, hamasei buelta emon



bihar izaten ziran. Hola ba: “putzasajé, baát, bií, hirú, laú”... “Bixák , “baát, bií, hirú, laú”... “hirurák, “baát, bií, hirú, laú”... “erregeák”, “baát, bií, hirú, laú” eta, hola, jokua betetzen zan. Pelotia beherutzian eskuan hartu ez eta jausten bajakon, edo pelotia eskuan hartu bittartian tortolosari bueltia emoteruzkuan huts egitten baeban eta bueltarik emon ez, jokua galtzen eban eta orduan beste neskiak hartzen zetsan bere txandia eta hau hasiko zan aurrekuak baiño hobeto egitten ahaleginduz. Zeiñek joku gehixago betetzen zittuan haxe izaten zan irabazlia. Eta joku oso bat betetzen ebanak bigarren jokuari ekitzen zetsan, galdu artian. Ez uste, eh? begi zorrotz eta esku azkarrak bihar izaten zittuen neskok, hutsik egin barik pelotia gora gora bota eta berriro eskuetan hartu bittartian tortoloseri ganoraz bueltak emoteko.

## 12.4.- “Astoka”

Astoka jokua mutillen jokua da. Guk, gaztetan, asko jokatu genduan astoka horretan eta ixa esango neuke gure belaunaldi edo jeneraziñua izan dala “astoka” jokatu genduan atzena. Gure aurrekuak guk baiño gehixago jokatzen eben. ZATIXA izeneko lagunartian izan naiz 82urtetik 86ra arteko bost-sei lagun beteranekin berbetan: Agustin Arana, Bartolo Arriola, Gonzalo Sarasua, Julio Aristondo, Jose Alberdi eta abarrekin. Neure eta euren buruak freskatzen jardun dogu, momentu batian danok gaztetu garan bittartian. Gustora egon naiz eurekin, baso bat ardau eranaz.



Astoka joku honetan badira bi-hiru aldaera edo bariedade, baiña gaur bat bakarrik aztertuko dot. Nere belaunaldikuak, astoka jokatzen genduanian, hiru modalidadeotatik edozein hartzen genduan lehelengo, baiña ZATIXA-ko lagun nagusixok esaten deste eurak lehelen hartzen eben astoka-jokua “Kuarta-mantaka” izenekua izaten zala. Eta zelan zan ba “kuarta-mantaka” joku hori?

Ba, hasteko, katigua aukeratu bihar izaten zan eta, gehixenetan, -hori edozein jokutarako gaiñera- era honetara erabagitzen eben katiguori. Bi lagun jartzen ziran aurrez-aurre, alkarri begira, bata bestiagandik bost bat metrotara, eta batak oiñ bat aurreratzen eban orpuakin beste oiñaren bihatz muturrak ikutu artian eta geldi hortxe, gero beste lagunak gauza bera egiten eban bere hanka batekin eta geldi hantxe; lehelenguak bigarren pausotxua emoten eban beste oiña aurreratuz eta lehen aurreratutakuaren bihatz puntak


ikutzen jartzen eban aurreratu barri eban hanka-orpuakin eta, halaxe, pausotxoka pausotxoka, batak eta bestiak txandaka jarraitzen eben, baiña, jakiña, atzenian alkarren hurre-hurrian gertatzen ziran eta batak bestiaren oiñ gaiña zapaltzen ebanian haretzek irabazten eban. Oiña zapalduta izaten ebana zan, ba, katigua.

Eta orduantxe hasten zan “kuartamantaka” jokua. Katigua makurtuta jarri eta beste lagun guztiak, banan banan, haren gaiñetik pasatzen ziran esku bixak katiguaren bizkar gaiñian ipiñi eta salto egiñaz, gitxienez lau bidar bakoitza, batek edo bestek huts egitten ez baeban behintzat, eta jausten zana katigu barrixa izango zan.

Lehelengo salto pasa-aldixan “la primera sin tocar” esanaz pasatzen zan, bigarrenian “la segunda culetón” esan eta saltagiñaren ipurdixakin katiguaren bizkar gaiña jotzen zan, hirugarren pasa-aldixan “la tercera pospolin” esanaz hanka batekin katiguaren ipurdixa jotzen zan eta laugarren saltuan “la cuarta manta” (!) eta, halaxe, banan banan lagun danak pasau artian. Iñor jausi ez edo beste hutsik egitten ez baeben, bigarren bueltiari ekingo etsen. Orduan, danak, esaten ebena bete bihar eben; esate baterako, “la tercera pospolin” esan, baiña bere hankiakin katiguaren ipurdixa jotia konsegitzen ez baeban, galdu egitten eban eta bera izango zan katigu barrixa. Gauza kuriosua: ez da iñor gogoratzen la kuartako “manta” hori zer zan.

## 12.5.- (Astoka-2) “Saltalásoka”

“Saltalásoka” deitzen zan hau jokuau “Astoka” saillian sartuko neuke, aurreko atalian emon dotenaren beste modalidade bat moduan. Baiña zegaittik deitzen jakon “saltalásoka”? (salta la soka, ala salta lazoka -lazua- da?). Ez da argi ikusten, soka bariko jokua zan-eta; lazorik be ez euan, iñundik. Dana dala, ZATIXAko “ateneuan” jardun dot hango beteranuekin, hori argitzeko, baiña batek diño “saltalásoka” deitzen ete zetsen joku horri, eta beste lagunok ez dira gogoratzen; duda arpegixa ipintzen dabe. Eta nere sospetxia da, ia izen hori ez ete dan “sokasaltoka” joku izenaren metatesi bat, nahiz eta jokuok ez daken iñundik be alkarren antzik, gaiñera “sokasaltoka” beti nesken jokua izan da (guk mútillok eurekin, batzuetan, egitten bagenduan be).



Dana dala, joku honetarako be katiguak aukeratu bihar ziran eta horretarako aurreko atalian aittatu doten modura egitten zan, “hankaka” deitzen jakona, zera, lagun biren artian

oiñak edo hankak pausotxoka-pausotxoka alkarregana hurreratuz juaan bataak bestiaren oiñ edo hanka gaiña zapaldu artian. Eta jokua hasten da:

Hiru lagun makurtuta, euren buruak alkarren onduan dirala eta besuekin bizkarretik alkarri helduta jartzen ziran triangulo moduko bat egitten ebela. Orduan, beste lagun guztiak, banan-banan asto-hirukote horren gaiñera salto egiten eben eta danak alkarren gaiñian pillotzen juaten ziran, bat edo beste goitik-behera jausi artian. Jausten ziranak azpizian jarri eta asto egin bihar izaten eben gero, eta jokua berriro hasi.

Baiña ez da segurua hala zan, ala hirukotiaren gaiñetik banan-banan beste danak salto egiñaz pasatzen juaan bihar izaten eben. Edozelan be, mutillen jokua genduan hau.

## 12.6.- “M e d i o k a”

“Medioka” deitzen jakon beste joku honetan katigu bakarra jartzen zan eskuak belaun gaiñian jarri eta makurtuta. Bera euan lekutik tarte batera arraixa bat markatzen zan eta beste lagun guztiak arraixa hartatik egin bihar izaten eben salto eta asto-katiguaren gaiñetik airian pasau. Danak pasatzen baeben, arraixia urrindu egitten zan: hanka bateko orpua lehengo arraixan jarri eta ondoren hanka horren muturrian beste hankia (oiña) ipintzen zan trabesetera, kruzauta, horrek hanka eta erdi inguru luzetzen eban aurreko tartia eta berriro banan-banan katigu-makurtua saltuan pasatzen ahalegintzen ziran. Danak pasatzen baeben, atzera be aurreko arraixa barritik hanka eta erdi luzetzen zan tartia eta danak saltuan pasau. Jakiña, horrela, geruago eta salto luziagua egin bihar izaten zan, batek eziña izan artian edo jausi; orduan jausten zana edo astotxua pasau eziñian gelditzen zana zan katigu barrixa. Hau be mutil-jokua zan.

## 12.7.- “Astoka - Txitxaka” (Astoka-3)

Guk asko jokatu genduan “astoka-txitxaka” eta joku hau “txitxaka” izena eukan beste batetik etorren, baiña astokakuari helduko detsagu lehelengo, hasitta daukagun “astoka” sailla amaitzeko.

Lagun talde bi egitten ziran lehelengo eta talde bakoitxak bere asto eta astogaiñekuak eratzen zittuan (zaldixak eta zaldizkuak balitzaz



moduan), lagun bat azpitan eta haren gainian beste bat arretxiko, asto egitten ebanaren gerri inguruan hankalátraba jarritta. Asto egitten ebanak gainekuari honen iztar-zankabietatik gogor heldu bihar izaten zetsan ondo eusteko. Guk, bata bestiaren bizkar gainian hankalátraba jarritta jardutziari “arretxiko” ibiltzia deitzen zetsagun. Horrela, bazirurixan, astuak eta asto-gainekuak gainala, eta bi taldetan banatuta alkarren kontra jardutzen genduan.

Orduan hasten zan alkarren kontrako “gerria”. Asto gainekuak esku bixak alkartuta, baiña atzamar erakusle (indize) bixak zuzen zittuela, arma zorrotza balitza moduan erabiltzen zittuen. Talde bixetako “astuak” jo-ta-ke antxixiketan, ahal eben moduan alkarren kontra hurreratzen ziran eta, orduan, “asto-gainekuak” euren atzamar puntekin - besuak luzetuta- alkar “hiltzen” ahalegindu bihar izaten eben. Asto-gainekuok, alkarri zeinek atzamar puntia bestiari gorputzian “sartu” (ezpatia balitza letz) jardutzen genduan eta, zeinek atzamar punta bikoitz hori “sartzen” zetsan bestiari, haretzek irabazten eban eta bestia “hilda” gelditzen zalako erretirau egin bihar izaten zan. Halaxe, banan-banan alkar “hiltzen” jardutzen genduan eta “bizirik” gelditzen ziranak irabazten eben, jakiña! Bai astuak eta baita asto-gainekuak be azkar eta abillak izan bihar izaten eben.

Guk edozein lekutan jokatzen genduan astoka-txixaka, baiña gehixen be Estaziñokalian, orduan ez zan automobillik be ixa ibiltzen eta kalia libre eukitzen genduan. Lehelengo “txixaka” hasi eta azelako jokualdi luziak egitten genduzen gero “astoka-txixaka” jarraituaz!

## 12.8.- Begi - itxuka

Begi-itxuka deitzen jakon jokua danona zan. Nahiz neskak nahiz mútillak jokatzen eben eta sarritan alkarrekin egitten genduan neskak eta mútillak.

Lehelengo, katigua aukeratzen zan, lehenago esanak doguzen erara, zera “Don-don Beleron...” edo “Don-don kikilimon...” jardunak kantautu, edo beste edozein eratar. Orduan, katiguari begixak tapatzen jakozen trapuzko benda batekin, bendia buru-kokotian zihar lotuta, ahal zanik eta onduen lotuta, jakiña, ezer ikusi ez zeixan.



Eta katigua begixak ondo tapautu zittuala jokua hasten zan. Beste lagun guztiak katiguaren inguruan hasten ziran katigua ikutzen eta zirikatzen, eta katigua bere ahalegintan bateronbat harrapau guran. Ha zirko bat izaten zan; libre ziranak euren aldetik ahalegintzen ziran ahal zanik eta inguruka gehixen egitten katigua zorabixau nahixan, eta katigua bere ahalegintan norbait harrapau artian. Halakoren batian bat harrapatzen baeban, nor zan igarri bihar eban eta

haren izena esan. Igartzen baeban, harrapautakua izango zan hurrengoko katigua, baiña igartzen ez baeban, bera izango zan berriro be katigutzan jarraituko ebana.

Esan biharrik ez dago zelako ixillik egoten zan katiguak bere eskuekin estu-estu harrapauta eukana, katiguorrek harrapautakua ezagutu ez zeixan.

Guk, gaztetxotan, “begi-itxuka” deitzen gentsan joku honi, “jokatuko juagu begi-itxuka?”, baiña geruago erderatu egin zan eta “a la gallinita ciega” deittu jakon.

## 12.9.- Burruketan

“Burruketan” egittia mutillena zan. Neskak, hasarretzen ziranian bakarrik egitten eben burrukan eta orduan, ixa gehixenetan moduan, alkarri ulietatik tiraka jardutzen eben. Baiña gauza bat zan burrukan egittia eta beste bat burruketan jardutzia: hasarretu ezkeru, burrukan egitten zan, baiña burruketan jokatu nahi zanian, ez eguan hasarretu biharrik; “egingo juagu burruketan?” eta baietza bazan, hartan ekitzen gentsan.

Horretarako, bi talde bardintsu egitten ziran eta orduan bi taldiok alkarren kontra hasten ziran burruketan. Jokua ez zan izaten ikubilka, alkarri heldu eta ahal zan moduan bestia lurrera bota baiño, lepotik, samatik, gerritik, hanketatik edo ahal zan lekutik helduta. Horregaittik ez zan odoltsua, alkarrekin hasarretu barik egitten gendualako, baiña iñoiz gertatzen zan bat edo beste hasarretzia eta orduan bai, benetako burrukaldixan bihurtu zeikian joku moduan hasi zana.

Egixa da, bai, joku horretatik aparte, bazala benetako burruketa, kuadrilla batek beste baten kontra egitten ebanian, eta ha bildurgarrixa izaten zan. Orduan ikubilka jardutzen zan eta mingarrixa zan. Normala zan norbaittek begi bat baltzittuta edo hagin bat kili-kolo ebala amaitzia. Batzuetan kuadrilla bi alkarrekin hasarretu ziralako gertatzen zan, baiña beste batzuetan ez; sarri nahikua zan kuadrilla batek beste ez dakitt zein kuadrillaren kontra burrukan egin bihar ebala erabagitzia eta, beste barik, haren billa juaten zan burrukia probokatzeru eta, jakiña, gehixenetan burrukia sortzen zan. Granuja gaiztuak, astokilluak! Halakorik ez eben neskak egitten.


Dana dala, halakuetan ez zan iñoiz armarik erabiltzen, ez kutxillorik, ez makillarik, ez harririk, beso hutsian jardutzen zan beti. Ostera, 36ko gerra ondoren, erdaldunak barra-barra Eibarreratu ziranian, orduan bai, orduan burrukaldi barrixak sortu ziran. “Hablad en cristiano” edo “hablad en español que todos somos españoles” eta halakuak esanaz probokatzen ginduezen, eta eibartar kuadrillak hárekin burrukan egin izaten ebanian, erdaldunak sarritan kutxilluak erabiltzen zittuen, baiña eibartarrak sekula bez, eibartarrak beti esku hutsian. Orduan entzun genduzen lehelengo bidarrez “que te rajo” eta halako berbak.

## 12.10.- Ezpatetan / = Ezapata jokuan

Gure gazte sasoian asko jokatzen genduan ezpatetan (= ezpata jokuan). “Jokatuko dugu ezpatetan?” edo ‘ezpata jokuan egingo juagu?’ esaten genduan.

Ezpatetan egittia antxiñako benetako ezpata-gerria balitza moduan jokatzen zan. Lehelengo talde bi eratzen ziran: hamar hamarren kontra, talde ederrak izaten giñan-eta.

Guk edozein lekutan egiten genduan ezpatetan, baiña leku aukerakuen Jardñeta aldiaren izaten zan. Oñ Institutua daguan lekuan lehen eskola nazionalak eguazen eta haren inguruan, batez be haren gaiñekaldian, edozelako arboladi, sastraka eta lur-mokor ugarixa eguan eta ha bai zala ezpata gerrarako leku aukerakua! Bazkal ostian eskolia hasi baiño lehen, edo errekreo denporan edo, bardin, eskolia amaitsu ondoren jardutzen genduan ezpata jokuan.



Gure ezpatak, gehixenetan, ixa beti, urritxezko (avellano) makilla zuzenenak aukeratuta egitten genduazen. Makilla luzera guztian azala kendu, zuri-zuri eta legun jarri eta eskuandako heldelekuan bakarrik lagatzen genduan azala. Batzuetan, iñoiz, ezpata ganorazkuaguak egitten genduzen, harotzerixan zerra-hondakiñetan listoi zuzenak hartu eta eskuleku gurutzatu eta guzti moldatzen genduan geure ezpata dotoria.

Eta, han jardutzen genduan, benetako gerria balitza moduan, batzuk landara-hesi baten aldetik eta bestiok bestaldetik, edo arbola inguruan, edo aurrez-aurre, bixon bittartian ezer barik, librian, talde bixok alkarren kontra, jo-ta-ke, tikitaka tikitaka! alkarren ezpatak jo eta bestiaren gorputzian “sartzen” ahaleginduaz. Debekatuta eguan samatik gora sartzia arriskutsua zalako, baiña batzuetan batek bere kontrarixua ezpataz gorputzian jo (sartu) eta harek ez zetsala “sartu” esaten ba-eban, orduan ezbaixa eta diskusiñua sortzen zan. Horretarako, ezbai eta dudak kentzeko, ezpata puntia buztiñez zikinduta jartzen genduan eta bestiaren gorputzian “sartzen” genduanian markia lagatzen eban eta orduan garbi gelditzen zan bestia “hil” zala. Eta halaxe esaten zan gaiñera: “hil haut”, “hilda hago” eta, jakiña, “hildakuak” alde egin bihar izaten eban; bat gitxiago. Eta ezpata gerriak aurrera jarraitzen eban batzuek beste danak “hiltzen” zittuen arte. “Bizirik” gelditzen ziranak irabazten eban.

Ikustekua zan zelako gogo eta adolia jartzen genduan geure ezpata-burrukan. Bazirurixan bene-benetako ezpata gerran genbizela. Talde batek aurrera egitten baeban eta bestiak atzera, sarritan aujixak eta botatzen genduzen, “aurrera mutillak, geuria dok-eta!”. Beste batzuetan “zaldi” eta guzti jokatzen genduan. Horretarako, mutil gaztetxuaguak hartu eta “zaldi” egitten ziran, euren besuetan soka bat lotu eta háren atzekaldian ezpatadunak bridia (zaldixaren aho-ugala) esku batakin heldu eta bestiakin ezpatia eta, trote! kontrarixuaren billa. Zaldi egitteko mutil bizkorak aukeratzen ziran.

Fueraka izeneko jokuan sartu baiño lehen, esan biharra daukat aurreko nere atalian azaldu neban “ezpatetan” jokuaen fotografixia ez dala zuzena, eze neska mutiko bi egurmakilla bana hartu eta alkarren kontra balebiltza moduan agertzen ziran, baiña okerrik egon ez deñ esan bihar dot: 1.) gure gazte denboran neskak ez ebela iñoiz be, sekula be parterik hartzen ezpata jokuan, hori jokuori mutillena bakarrik zan-eta, gure artian ez egoan “juana de arcorik”; gaiñera, ha ezpata-jokua hain zan bizixa, batzuetan gogorra eta bitalidade haundikua, neskak ezin izango eben, nahi izan da be, mutillen kontra ezer egin eta bai arriskueta sartu. 2.) argazki edo fotografixa haretan agertzen zan ezpata-jokatze modua ez zan hala izaten, guk esku bakarrez heltzen genduan ezpatia eta ez esku bixekin, beste beso libria atzekaldera luzetuta, zinietako espadatxiñak modura, dotore egin be gero. Dana dala, eskerrik asko “eta kitto”ko fotografuari, beran asmorik onenagaittik, baiña logika pixka bat erabilli bihar dogu joku bakotxeko kasuan, mutillena bakarrik zan jokua zein izan zeikian ikusteko, neskena bakarrik zana zein eta bixena izan zeikiana.

## 12.11.- F u e r a k a

“Fueraka” jardutzia pelota jokua zan. Gazte talde bat, grupo bat, frontoian sartu eta danak alkarren kontra jokatzen zan, bakotxak ahal ebana egiñaz: atzera jo, orma bixak, pitxaria, txokora, zabalera eta abar, eta tantua galtzen ebana kanporatuta gelditzen zan; bat gitxiago. Halaxe, zeñek tantua galtzen eban kanporatu biharra izaten eban eta, jakiña, galtzaille bakotxa banan-banan kanporatu ahala, atzenian bi bakarrik gelditzen ziran. Irabazten ebana irabazle. Orduan “barru” deitzen zan eta danak berriro kantxa barrura sartu eta beste joku bat hasten genduan, atzera be alkarren kontra ekiñaz. Pelota joku honetan mútillak bakarrik jokatzen genduan, nagusi txamar egin arte.

Irabazliak bi joku-aldi jarraixan irabazten bazittuan, bi punturen jabe egitten zan eta, hiru izan ezker, hirurena -jarraixan irabazi ahala puntuak pillatzen zittuan-, eta, orduan, hurrengo joku-aldixan tantoren bat galtzen baeban, pillatutako puntuetatik bat kentzen jakon, baiña ez zan kaleratzen eta pelotan jarraitzen eban puntuen jabe zan bittartian; pillatuta eukazen puntuak galtzen zittuanian bakarrik kaleratzen zan. Jakiña da pelotan gehixen zana ixa beti “finalista” gelditzen zala.

Edozein horma baztarretan egitten genduan pelotan, baita eskolako arkuipietan be, edonun, baiña gustoren Txantxazelaiko frontoi zaharrian egitten genduan.

Bai nere sasoian eta baita gaur egunian 80-90 urte dittuenak “fueraka” deittu izan

detsagu beti polota-joku modu horri, norbera ez beste danak kanpora (fuera) botatzia zalako jokuaen helburu edo finalidadia. Baiña geruagoko jeneraziñuak, euskeria galdu ebanian, harrigarrixa bada be, “vamos a jugar a barrus” esaten hasi ziran.

## 12.12.- “Goitti-beheran”

“Goittibeheran” ibiltzia mutillen jolasa zan, baiña jolasa izan arren, alkarren kontrako bi, hiru edo lau “goittibeheraren” arteko karrera bat egitten zanian, orduan joku bihurtzen zan. Orduan zeñek irabazi jokatzen genduan.

“Goittibeheran” asko ibiltzen giñan gaztetan. “Goittibeheria”, izenak diñuan moduan, goittik behera ibiltzeko tresna, tramankulu edo jostailua zan eta ez eban, ez, edozeñek eukitzen. Gazteren batek aitta edo senideren bat lantegi baten jabe baeban, hantxe egin zeikian goittibehera majua, baiña halakorik ez bazan, norbere etxian eta ahal zan moduan eta, batzuetan bi edo hiru lagunen artian, montatzen zan aparatuori.

“Goittibehera” on bat egitteko, lehelengo errobera onak bihar ziran, gitxienez hiru errobera danera eta ahal bazan bolazko rodamientuak hobe; hórretzek ziran ónenak, rodamientozko erroberak. Besterik ez baeguan, karretilla batenak edo arotzerixa batian zurez (egurrez) egindakuak jartzen genduzen. Goittibeheriak trapezio formia eukitzen eban, trapezio isoszelesa eta ohol landu batzuk ultzez alkarri jositta egitten zan: atzekaldia zabalagua eukitzen eban aurrekaldia baiño, zera esan nahi dot, isoszeles formako trapezio horrek aurreko aldia, muturra, izaten ebalu estuagua eta, edozein modutan be, benetan gogor egindakua izan bihar, bere erabilleran tratu txarra hartzen eban-eta. Batzuetan lagun bakarrak eruaten eban goittibeheria, baiña hurrenguan bi, eta hiru lagun be eruaten zittuan, bata, jarritta zoiana, gidarixa, eta bestiori -edo bestiok- haren bizkar aldian hankak firme jarri eta makurtuta.

Goittibeheriari, esan dogun hiru erroberetatik bat aurrekaldian jartzen jakon eta beste bixak atzekaldian. Aurreko erroberiori egurrezko trabesaren erdi-erdixan jartzen zan eta atzekaldeko beste bixok ertzetan eruaten zittuan. Horrela, hiru hankatan moduan asentatzen zan goittibeheria eta guk, egixa esan, automobilla balitza letz erabiltzen genduan, baiña, jakiña, aldapadan behera bakarrik. Goittibeheriaren aurreko erroberia trabes mugikorrian zoian, zera, trabes giratorixua jartzen zetsagun-eta, horrela, zeroianak, gidarixak, atzekaldian ipurdixa ondo jarritta, hankekin aurreko erroberaren trabesa erabiltzen eban, ointxe ezkertera ointxe eskumara, errebueltak ondo hartzeko. Batzuetan lau erroberadun goittibeherak egitten genduzen, aurrekaldian be bi zittuala. Egixa esan, aldats haundixetan ibiltzia gustatzen jakun eta aparatuorrek goittik behera hartzen eban hegatzadia ikaragarrixa izaten zan batzuetan. Iñoiz zartada ederra be hartzen zan; errebueltia ondo hartu ezin eta etxe ertza be, zarta! josten genduan. Sarrittan itzaleko tratua hartzen genduan, eze, aldapadia jaisten genduan bakotxian trastuori eskuan hartu (pixu haundixa eukitzen eban) eta berriro gora oiñez, atzera be aldats behera jaisteko eta, halaxe, behin eta berriz.

Gu gehixenetan, Pagei (Pagaegi) kalian behera ibiltzen giñan, baiña askoz hobeto egitten



genduan Kalébarrixan. Kalébarrixa zein zan? Ba, Victor Sarasketa eta Grabadores izenak baiña lehen, gure sasoiari Kalébarrixa deitzen jakon Estaziño kaletik Arragueta barreneraiñoko kaliari. Ez dago esan biharrik orduan ez eguala automobillen arriskurik, kale baztarretan ez zan bat bera be aparkauta egoten eta noizian behin pasatzen zan bat kalia zihar. Gaurko gaztiak ezin dabe pentsau be egiñ orduan gure kale baztarretan ez zala autorik egoten, eta ibilli be gitxi-gitxi. Gaiñera, ez eguan trafikoko legerik be eta kale guztiak ziran bi direziñokuak.

Kuriosua da, baiña ordutik hona, erderaz be “goitibera” izena hartu dau antxiñako gure euskal tramankuluorrek eta herri-jaixetako zenbaitt prospektotan irakorri izan dot “...habrá carrera de goitiberas”.

### 12.13.- “H a r r a p a t z e n”

Izenak berak diñuan moduan, alkar harrapatzen jokatzen zan. Talde bi egitten ziran eta alkar harrapatzen ahalegintzen giñan, harrapautakua norbere esparraura eruaten.

Alkarren atzian itzalezko antxixiketak egitten genduzen eta, etara kontuak, talde batak bestia desegiñ artian ez giñan gelditzen.

### 12.14.- “K a t e k a”

Aurreko jokutik sortutakua zan Kateka jardutzia. Hogetamar-berrogei metrorako tartiakin talde aurkalarik bixak aurrez-aurre jartzen ziran, bakotxa horma bazter baten kontra, baiña hobeto zan, oindiok, askoz be hobe, bako-txak arbola edo poste bana baeukan.

Horrela, talde bardin xamarrek eginda, zera, indar eta bizkortasun bardin xamarrekin banatuta, talde bixok alkarren kontra hasten giñan. Lehelengo arbola edo poste bateko norbait urtetzen zan, baiña horren atzekaldetik, edo hobeto esanda, ondoren urtetzen zan kontrarixuak eukitzen eban, beti, aurrekua harrapatzeko indar eta kargia. Zera esango neuke, gutako bakotxa poste edo arboliak emondako argi-indarra balitza moduan urtetzen giñan eta beti ondorengiak eukan aurrekua benderatzeko ahalmena.


Jakiña, ikaragarriko antxixiketa aldixak egitten genduzen, bata igesi eta bestia ondoren, aurrekua harrapau nahixan. Batek beste bat harrapatzen baeban, mantso-mantso eruango eban bere arbolara eta han -arboliari helduta- katigu egongo zan. Baiña horrela, pixkaka-pixkaka, arbola bixetako katiguak euren lagun-sokak sortzen zittuen alkarri eskua emonda, jakiña, arbola bakotxian katigu-soka bana ziran-eta, sokok ez ziran geldi egoten, batera eta bestera bueltaka baiña, baiña, hori bai, ezin zan katigu-sokia apurtu, derrigorrez katiguok alkarri eskua emonda egon bihar.

Baiña oindiok libre ebizenak baeuken aukeria kontrarixuen arbolara iñok ikutu barik heltzeko eta hori lortzen baeben eta euren tarteko katiguren bati eskuakin ikutu, orduan bere tartekoz osaturik eguan kate osua libratzen eben. Ha izaten zan azaña, ha poza! Baiña jokua ez zan hor amaitzen, jarraitu baiña. Eta aurrera berriro be.

Gure gazte denporan hónek jokuok eta bestelakuok euskera hutsez egitten genduzen, baiña gure ondorengo jeneraziñuak erderaz egitten eban: “¿qué, vamos a jugar a katekas?”

# Eranskinak





## I - ARGITARATU GABEKO LANAK

- \* EUSKARA IKASBIDEA. Euskara hobekuntzarako metodo mardula, urte askotako irakaskintza esperientzian oinarritua, eta bost bat urtetan zenbait talderekin erabilia, aurreratuentzat alegia. (546 orrialde makinaz idatzita)
- \* MORFO-SINTAXIA. Amaitugabea. 90 orrialde. Sintagmaz ari da azken 3 orrialdetan. Badirudi hortxe utzi zuela.
- \* EIBARKO EUSKAL DEKLINABIDIA. Gutxi falta da amaitzeko. Osatu eta argitaratu egingo da.
- \* EIBARKO EUSKERIAREN ENTONAZIÑUA. Aurreko lanarekin batera argitaratuko da liburuki batean.

**"EUSKARA IKASBIDEA"ren - AURKIBIDEA**

1	Euskal alfabetoa.....	1
2	Idazker .....	4
3	Izena eta artikulua mugatzailea.....	9
4	Izenlaguna.....	14
5	Aditz .....	17
6	"H" letra NON eta ZELA erabili .....	25
7	Joskera .....	31
8	Deklinabidea (I).....	40
9	Aditz pasakorrak NOR-NORK.....	52
10	Deklinabidea (II).....	69
11	Aditzak.....	85
12	Deklinabidea (III) .....	93
13	Deklinabidea (IV) .....	115
14	Deklinabidea (V) .....	141
15	Aditza.....	164
16	Aditz iragankorrak "NOR-NORK" jokaldiak .....	230
17	"NOR-NORK" adizjokoak .....	294
18	"ELKAR"; Modal portaerazko aditzak eta hitzak.....	325
19	ZER(NOR)-NORI-NORK.....	345
20	Erazi, eragin, eritzi, elkar .....	389
	"ELKAR" izenordearen deklinabidea .....	397
21	Hizkiak / = Afijoa.....	402
22	"NOR-NORI" adizjokoak.....	438
23	Aditz-atzizkiak; Zeren/Zeren-eta...bait; Galdegaiaz zerbait gehiago; Ezezko esaldiak .....	475
24	Ekarri, eraman, erabil .....	497
25	Eduki; Esan(ZER-NORI-NORK).....	503
26	Euskal erkaketa .....	511
27	Ahal izan, Ezin iza.....	523

**OHARRA:** "Euskara ikasbidea" k 546 orrialde ditu. Originalak gorderik zituen Imanolek eta fotokopiak ateratzeko erabiltzen, ikasleei atalka banatzeko. Fotokopia orriak alde biak hartzen ditu; ikus orrialde zenbakia originalean nola txandakatzen den: ezker-eskuin. 10 orrialde original falta dira eta horietatik 8 (7,7b,8,9,10,21,22,23), kopiak direnak, originalen artean sartu ditugu lana osatuz joateko. **Beraz, lana guztiz osatzeko 11. eta 12. orrialdeak falta dira. Komeni da, ikasle-ohiren batengandik-edo, orrialdeok eskuratzea.**

## MORFO-SINTAXIA

GRAMATIKAREN INGURUAN ZENBAIT GOGORAPEN .....	3
<b>IZENA EDO SUSTANTIBUA</b> .....	3
<b>IZENLAGUN EDO ADJETIBUA</b> .....	4
IZENLAGUNEZ ZERBAIT GEHIAGO .....	7
Izenlagun epitetoa; atributiboa. Aposizioa .....	8
Izenlagunaren zenbait kasu. Izenlagunaren konkord. eta sintaxia .....	10
Izenlagun epitetoen deklinabidea. Izenlagun superlatibo osoak.	
Izenlagun konparatzaileak .....	11
<b>IZENLAGUNEN TOKIA. EUSKAL POSPOSIZIOA</b> .....	12
<b>HITZ ELKARTUETAN HIZKI KENKETA, ERANS. ETA ALDAKETA</b> .....	13
<b>IZENLAGUN ATRIBUTOAZ ZERBAIT GEHIAGO. AFIJOAK</b> .....	14
<b>IZEN ETA IZENLAGUNEN ELKARTZE ETA ERATORTZEEN</b>	
<b>ZENBAIT MOLDAKETA. ARIKETAK</b> .....	16
Izenlagun atributiboaren tokia .....	22
<b>HITZ ELKARTU ETA ERATORRIEI AZKEN IKUSI BAT</b> .....	22
<b>DEKLINABIDEA</b> .....	23
<b>IZENORDEAK</b> .....	28
Pertsona izenordeak .....	28
Galdekatzaileak; erakusleak .....	29
Jabekorrak; elkarrekikoak (Elkar) .....	30
Kopuruzkoak (kantitatezkoak) .....	31
Zenbakizkoak (numeralak); mugagabeak; erlatiboak .....	32
Ordezkoak (Zera) .....	33
<b>ADITZLAGUNAK</b> .....	33
Moduzkoak .....	33
Tokizkoak .....	34
Denborazkoak; Kopuruzkoak (zenbatasunezkoak) .....	35
Eritzizkoak .....	36
Ordenazkoak; Konparaziozkoak .....	37
Salbuezpenezkoak; Aditzlagun esaerak / Lokuzioak .....	38
??	39
<b>KONJUNTZIOA / LOTURA HIZKIAK</b> .....	41
Koordinatzaileak .....	41
Menperatzaileak .....	42
<b>INTERJEKZIOAK / OIHU HITZAK</b> .....	45
??	46
<b>ESALDIA, SINTAXIA ETA MORFOLOGIA</b> .....	56
<b>ESALDI GRAMATIKALAK</b> .....	58
Genitiboa; Datiboa .....	60
Akusatiboa .....	61
Esaldi moetak .....	62
<b>ESALDI KONPOSATUAK</b> .....	65
<b>ESALDI KOORDINATUAK: Kopulatibak, Disjuntibak</b> .....	67

Adbersatibak, Kongsakutibak.....	68
Distributibak. ARIKETAK .....	69
ESALDI MENPERATUAK: Erlatibozko adjetibak (-N).....	71
SUSTANTIBAK: Sujetozkoak. Osagarri zuzenezkoak .....	72
Osagarri zeharkakoak / = Finalak.....	74
Osagarri zirkunstantzialekoak / = Kausalak .....	75
Izenaren osagarrizko esaldiak.....	77
ADBERBIALAK: Tokizkoak.....	77
Denborazkoak .....	78
Moduzkoak. Konparaziozkoak .....	80
Moduzko konparatiba .....	80
Kantitatezko konparatibak .....	81
Esaldi kontsekutibo adberbialak .....	82
Baldintzazko esaldi adberbialak .....	83
Kontsesiboak.....	85
GERUNDIOZKO ETA PARTIZIPIOZKO ESALDIAK.....	86
<b>SINTAGMA</b> .....	88

**OHARRA.** Orrialdeok gordetzen dituen karpetan 2.1 eta 2.2 zenbakidun ariketa orrialde batzuk daude. Lana 3. orrialdetik hasten dela dirudi eta honako orrialdeok **falta** dira : **1, 2, 39, 40, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54 55.** **Komeni da ikasle-ohiren batengandik-edo, orrialdeok eskuratzea.**

Badirudi, lan hau utzia zuela, "*Sintagma*" deritzan atalak 3 orrialde soil baititu eta ez dugu jarraipenik aurkitu

## II - LAN ETA ARTIKULU ARGITARATUEN BIBLIOGRAFIA

GUTUNAK .....	98
BERTSOAK, POESIA .....	98
SAIAKERAK eta ITZULPENAK .....	99
ALDIZKARIAK (ASTEROKO, HILEROKOAK...)	100
EGUNKARIAK .....	102
EGIN DIZKIOTEN ELKARRIZKETAK .....	105



## GUTUNAK

### GUTUNAK:

1955/56 *Luis Mitxelenarekin izandako korrespondentzia*. [Eibarko eta Elgoibarko euskara-eskolentzat babes eske]. Koldo Mitxelena liburutegiko "*Fondo gordeak: 091 MIT cor-59. Kopia: 274391 091 MIT cor-59, ( 5 mikrofitxa)*".

### HEGATSEZ:

1968 *Juan San Martin adiskideari gutuna*. 208-212 or.[Granada-Zafarrayako desterrutik 1968.eko azaroaren 29an]. Juan San Martin eta Serafin Basauriren artean prestatuturiko hitz-lauzko bilduma. 1971, Itzaropena -Zarautz, 371 or.

## BERTSOAK,POESIA

### MILA EUSKAL OLERKI EDER:

1954 *Nire erria*. "Laztarri", [Bertsoak], 1083 or.

### EUZKO GOGOIA:

1955 *Hiru ordu Tabiran*. "Laztarri", [Bertsoak], VI, ilb-ots, 15. or.

1955 *Agur eta agur nire aberriari*. "Laztarri", [Bertsoak], VI, 3-4, 39. or.

1956 *Maite-ixiltasuna*. "Laztarri", [Bertsoak], VII, orr-gar, 8. or.

1956 *Eibar euskelduna*. "Maitale", [Bertsoak],VII, orr-gar, 11. or.

1956 *Asko maite nauzula?*. "Laztarri", [Bertsoak], VII, orr-gar, 12. or.

1956 *Barne-oldozmena*. "Laztarri", [Bertsoak], VII, ira-urr, 14. or.

1958 *Ikasi dezagun katalanengandik*. "Laztarri", [Euskararen erabileraz],IX, 378-380 or.

1959 *Betor*. "Laztarri", [Bertsoak], X, 3-6, 128 or.

### OLERTI:

1959 *Gomuta miña*. [Bertsoak], 59-I, 13. or.

## SAIAKERAK eta ITZULPENAK

JAKIN:

- 1968 *Euskal-joskera*. [Ekainaren 28-29-30ean, Gerediaga elkarteak, Ermuan, literatur-hizkuntzaren batasunaz antolatu zuen mintegian aurkeztutako ponentzia], 31/32, 1968, 39-57 or.
- 1972 *Ikastola eta gurasoak*. [Hezkuntza, ideologi arazoa], *Jakin sorta* 6, 1972, 55-90 or.
- 1973 *Eibarko "Máquinas de coser Alfa S.A."*. [Alfako historia, *Jakineko* "Koperatibak" ale berezian], *Jakin sorta* 7, 1973, 101-148 or.

MUNDUAN ZEHAR. HAURREN ENTZIKLOPEDIA OROKORRA :

- 1975 [Itzulpena], Donostia: ALTEA / E.Vascas, 1975, 10 bolumen. Berak 8. bolumena itzuli zuen "*Bidaiak eta Esploraketak*" deritzona. Hamarren artean itzuli zen obra, liburuki bakoitzeko itzultzaile bat. Dionisio Amundarainena da itzulpenaren orrazketa.

EUSKERA (Euskaltzaindiaren lan eta agiriak):


- 1976 *Azentu diakritikoa Eibarko euskaran*. [1975.eko ekainaren 27an izendatu zen Euskaltzaindiko "urgazle" eta 1976-III-27ko batzarrean eman zuen sarrera-hitzaldia da hau]; *Euskera* XXIV, (1979)-1, 24, Bilbo, 175-268 or.

EUSKARA /EUSKALKIAK. EIBAR 85:

- 1986 *Euskara batua/euskalkiak elkarraldien irikiera*. [Eibarko Udalaren "Euskara Batzordea"k antolaturiko hitzaldiak sei egunetan zehar (1984-12-26/27/28 eta 1985-1-2/3/4an)], 15-22. or. Eibarko Udala, 1986, 210 orr.

EIBARKO IKASTOLAREN HISTORIA TXIKIA, 1960-1994:

- 1995 Eibarko Udala-Euskara Batzordea, 1995-11, 220 or. [Juan Antonio Mogel jaio zeneko 250. urteurrena dela eta, haren izena daraman Ikastolaren historia 1960. urtean sortu eta 1994. urtean "eskola publiko" bilakatu zen arte].



## ALDIZKARIAK (ASTEROKO, HILEROKOAK...)

ZERUKO ARGIA: Ikus, hurrengo 2 orrialdetan 44 artikuluko zerrenda.

### "EIBAR" ALDIZKARIA:

- 1959 *Umien euskal sariketa*. [Euskalzaleen Biltzarra dela eta egindako sariketa kronika], 29, 1959-12, 11 or.  
1972 *Nora doa Eibar?*. [Industria, ekonomia], 142, 1972-04, 10. or.  
1972 *Nora doa Eibar?*. [Industria, ekonomia], 143, 1972-05, 10. or.  
1972 *Nora doa Eibar?*. [Industria, ekonomia], 144, 1972-04, 10. or.  
1973 *Eibarko industria gaur*. [Industria, ekonomia], 155, 1973-08, 14-15. or.

### C.D.E. - KEZKA:

- 1969 *Ilmo. Ayuntamiento. ¿Contamos contigo? "Eibartarra"*. [Kirol infraegituraz], 1969-02, 12. or.  
1972 *Nora doa Eibar?*. [Industria, ekonomia], 1972-02, 6-7-8 or. (Geroztik *Eibar aldizkarian* ere argitaratua).  
1973 *Euskal toponimia*. [Toponimiaz], 1973-04, 15-16 or.  
1975 *Iñaxioren zakur azkarra*. [Mendi-kontakizuna], 1975-01, 15-16-18 or.  
1976 *Gaurko gazteria eta kirolak*. [Kirolaz], 1976-02, 43-47 or.

### ANAITASUNA II:

- 1970 *Ez nator bat*. [Z. Argiarekin desados], 192, 1970-07-30, 7. or.  
1970 *Batasuna behar*. [Euskara batuaren beharraz], 197, 1970-10-15, 8. or.  
1970 *Eibar euskalduna*. [Eibarko euskara], 200, 1970-11-30, 9. or.  
1971 *Benetan ote dezentralizazio bat?*. ["C.N.del Movimiento" delakoaren dezentralizazioaz], 1971-08-30, 12. or.

...ETA KITTO!: Hainbat lan egin izan du herri aldizkari honetarako Eibarko euskararen gainean (72 artikulua). Liburu honetako edukia da izan.

**ZERUKO ARGIA:**

- 1958 *Arabako Ulibarri-Ganboako presa-uretan zorigabea*. [Hil-berria], 058, 166-167
- 1966 *Langillen eskubideak-Saizarbitoria Eibarren*. [Hitzaldi kronikak], 191, 1966-10-23, 11.or.
- 1966 *"Nor" gera, bada?* [Euskaldun kontzeptuaz], 192, 1966-10-30, 12.or.
- 1966 *"Gaztedia langille arazoan barruan" F.Azpirozek eta "Emakumea eta kultura" M. Karmen Garmendiak Eibarren emandako izketaldi saioen laburpena*. [Hitzaldi kronikak], 193, 1966-11-06, 9. or.
- 1966 *Akatsa du*. [Euskaltasunaz, langiletasunaz], 194, 1966-11-13, 3. or.
- 1966 *Oñatiko J.E-ren "euskeria"*. [Oñatiko euskara goretsiz], 198, 1966-12-11, 3. or.
- 1967 *Eguberri!!*. [Presoak eta atzerriratuak gogoan], 201, 1967-01-01, 3. or.
- 1967 *Berriz ere puntu berean*. [Euskaldun izateaz, langileriaz], 208, 1967-02-09, 3. or.
- 1967 *Gudarako diru geiago bear*. [Vietnam-eko gerrarako aurrekontuen kontra], 214, 1967-04-02, 5. or.
- 1967 *Azurmendi jauna eta bere zera*. ["Zertako euskaldun?" dela eta], 221, 1967-05-21, 3. or.
- 1968 *Ibon Soduperi bide erdira*. [Zaharrak/gazteak], 261, 1968-04-03, 7. or.
- 1968 *Amerikanoak*. [Vietnam-en alde], 266, 1968-04-07, 3. or.
- 1968 *Ertzetik jo behar*. [Turistei euskaraz], 270, 1968-05-05, 3. or.
- 1968 *Biolentzia... Gogorkeria*. [Herri zapalkuntza, biolentzia], 276, 1968-06-16, 3. or.
- 1970 *Egu, eguberri eta ekain*. [Antropologia, mitologia], 365, 1970-03-01, 6. or.
- 1970 *Penagarria*. [Euskara batuaren alde], 390/391, 1970-08-23/30, 6. or.
- 1970 *Betikoa*. [Euskararen erabileraz, ume atzeratuekin], 399, 1970-10-25, 3. or.
- 1970 *Zuloaga dela-ta*. [Artea, euskaltasuna], 407, 1970-12-20, 7. or.
- 1971 *Hau bai euskera!*. [Liburu iruzkina euskararen aldetik], 419, 1971-03-14, 7. or.
- 1971 *Buruko ileetaraino gaude!*. [Euskaraz egin beharraz], 420, 1971-03-21, 3. or.
- 1971 *Areago*. [Euskaraz egin beharraz (Ikus: Z.A.420)], 426, 1971-05-02, 3. or.
- 1971 *Etsaiak*. [Euskararen alde bultzatu nahiz], 430, 1971-05-30, 3. or.
- 1971 *Euskal entziklopedia*. [Entziklopedia euskaraz behar], 434, 1971-06-27, 3. or.
- 1971 *Eibar euskalduna*. [Eibarko euskara], 456, 1971-11-28, 14. or.
- 1972 *Indaleki Ojanguren*. [Hil-berria], 475, 1971-04-09, 3. or.
- 1972 *Eibar beheraka?* [Demografia, Eibarren etorkizunaz], 508, 1972-11-26, 15. or.
- 1972 *Urtain*. [Kirola, manipulazioa], 511, 1972-12-17, 6. or.
- 1972 *Euskal toki-izenak*. [Toponimia], 513, 1972-12-31, 6. or.
- 1973 *Falta genuena*. [Azentu grafikoaz. (Ikus: Anaitasuna 248)], 521, 1973-02-25, 6. or.
- 1973 *Imanol Laspiurren oharra*. [Moldiztegi akatsak zuzenduz], 523, 1973-03-11, 6. or.
- 1973 *Ameriketako "indioak"*. [Historia, indioekiko elkartasuna], 526, 1973-04-01, 3. or.
- 1973 *Azken zerbait gehiago, buka dezagun*. [Azentu grafikoaz], 541/542, 1973-07-15, 6. or.

- 1973 *Euskara, galzorian ote benetan?* [Euskararen egoeraz eta etorkizunaz], 544, 1973-08-05, 5. or.
- 1973 *Kruzeta-tar Odileri.* [Toponimia], 555, 1973-10-21, 7. or
- 1973 *Betiko leloa.* 1331. urtean bagenuen zaharturik zen pelota leku bat. [Pelota-jokoaren euskaltasuna defendatuz], 556, 1973-10-28, 1. or.
- 1973 *Eureka!*. ["Aditz laguntzaile batua"ri ongi etorria], 559, 1973-11-18, 1. or.
- 1974 *Ikastolaz. Bergarako "Mendikoi"ri karta irekia.* [Ikastolaz], 567, 1974-01-13, 3. or.
- 1974 *Beiztegi-tar Yon-i gutun irekia.* [Euskara batuaren defentsan], 578, 1974-03-31, 6.or.
- 1975 *Iriarte-tar Jose Luis eta Gaztañaga jaunei gutun irekia.* [Euskara batuaren defentsan], 642, 1975-06-22, 8. or.
- 1975 *"Zeruko Argia" asterokoaren zuzendariari gutun irekia.* [Moldiztegi akatsez eta beste aldaketez. (Ikus: Z.A.641)], 646/647, 1975-07-20, 7. or.
- 1975 *"Barbarismo para un parque natural".* [Toponimia: Peñakulo/Atxipurdi], 666, 1975-12-14, 8. or.
- 1976 *Estaduak, Gobernuak eta hizkuntzak.* [Hizkuntza-politika], 693, 1976-06-20, 5. or.
- 1977 *Gure irakaskuntza.* [Solfeo irakaskuntza], 730, 1977-03-20, 31. or.
- 1983 *"Socialismo es libertad" = Gezurra.* [Frankismoaren egitura gordetzen ari], 974, 1983-05, 24-25. or.

## EGUNKARIAK

EGIN. Ikus, hurrengo orrian 29 artikuluko zerrenda.

### EUSKALDUNON EGUNKARIA:

- 1991 *Erronkariko uskara hil da.* [Fidela Bernat 92 urteko andere uztarrozraren heriotzean], 1991-02-24.
- 1993 *Ustegabeko heriotza mingarriak.* [Eusebio Osa eta Estitxuren heriotzeak direla eta], 1993-03-12.
- 1995 *Involuzioa.* [Jose Felix Azurmendik ETB-ko erdal katean Setien Gotzaiari egindako elkarrizketaren ondorioz sortu diren erreakzioez], 1995-11-22.
- 1997 *Euskal komunikabideetako euskara.* [Komunikabideetako euskara hobetzeko ataltxo bat ireki nahiz], 1997-06-03.

**EGIN:**

- 1979 *Telesforo Monzonen zoria*. [Monzon espetxeratu dutela-eta], 1979-02-17.
- 1979 *"Bai = si"....baina ez*. [Euskal parlamentari berrien Batzarrean Estatutoaren berroneste bozketan erabilitako sasibilinguismoa dela-eta], 1979-04-6.
- 1979 *Soria ez, etxera bai*. [Presoen alde], 1979-04-11.
- 1980 *Gehiegiogia*. ["Bar Hendayais"eko sarraskia dela-eta], 1980-12-14.
- 1980 *"Korrika" bukatu da eta... (I)*. [Euskararen normalkuntzarako ekintza "ofiziala" eta baliapideak erreibindikatuz], 1980-12-24.
- 1980 *"Korrika" bukatu da eta... (II)*. [Aurrekoaren jarraipena], 1980-12-26.
- 1981 *Juan Jose Etxabe, burdinazko morala*. [32 egunetako gose greba egin ondoren etxeratu dela-eta], 1981-01-03.
- 1981 *Bagenekien zertzuk gertatuko ziren*. [Udal administrari lanpostu baterako Lesakako udalak euskara jakitearen baldintza jarri izana debekatu eta ezabatu egiten du Nafarroako Gobernuak], 1981-01-07..15?.
- 1981 *Lehen Lesakan, orain Andoainen, euskara auzitan*. [Udalak lanpostu baterako euskara jakitea beharrezkotzat erabaki duelako, Gobernadorearen debekua gaitzetsiz], 1981-01-24.
- 1981 *Kontuz, oraindik ere torturatu egingo gaituzte!*. [Joxe Arregi torturapean hil zutenekoa], 1981-03-04.
- 1981 *Telesforo, abertzale ameslaria, zergatik hil zatzaizkigu?*. [Monzonen heriotzean], 1981-03-14.
- 1981 *Eibartarra eta euskara*. [San Juan egunean Eibarko jaiei zegokien atalean], 1981-06-24.
- 1981 *Hator, hator mutil etxera...* [Presoak gogoan], 1981-12-24.
- 1982 *Cuanto más vascos, más españoles*. [Basaingo PCE/EPK-ko "Jesús Larrañaga" elkarteak EGINen 82-1-31an "Opinión" orrialdean argitaratu duen artikulua dela-eta], 1982-02-24.
- 1982 *Telesforo Monzonekin solasaldia*. [Zendu zeneko urtemugaren aurrean, alegiazko elkarrizketa]. 1982-03-06.
- 1982 *Herrien soberania, ala zapalkuntza?* [Larrabetzuko udal-gizon abertzaleei ezarritako zigorraren kontra], 1982-05-06.
- 1983 *Euskaldunen soldaduzka*. [EGIko gazteen proposamen bat dela-eta], 1983-04-19.
- 1983 *Soziolinguistikako ihardunaldiak urtarrilean*. [Aurkezpena], 1983-12-28.
- 1984 *Agur, Inazio Gaztelurrutia*. [Inazio zendu dela-eta, adiskide agurra], 1984-01-25.
- 1984 *Masakrea*. [Manifestazio batean Polizia Nazionalak izandako jokabidea salatuz], 1984-10-13.
- 1984 *Katua saguaren aurrean tigre, tigrearen aurrean sagu*. [Ertzantzaren zenbait jokabiderekiko idatzi kritikoa], 1984-10-23.
- 1984 *Independentzia!*. [Santi Brouard-en hilketa dela-eta. (Iritzi artikulua honengatik auzipean sartzeko saio bat izan zen: 1985.eko otsailaren leian, Estatuko Fiskal Nagusiak Entzutegi Probintzialari agindu dio, Kode Penaleko 242. eta 467. artikuluei dagokien akzio penala eragin dezan Imanolen kontra; 1986.eko martxoaren 3an hartu zitzaion deklarazioa, baina ez zuten prozesatu)], 1984-11-28.

- 1985 *Iñaki Aldekoa, agur eta zorionak*. [Gartzelatik irtetzean], 1985-01-09.
- 1986 *"Txopi" hil da*. [hil-berria, euskaraz eta gaztelaniaz], 1986-07-24.
- 1993 *Miguel Indurain: "La furia española"*. [Espainolen topiko chauvinistez], 1993-06-21.
- 1994 *Gure presoak, ai ene!*. [Presoak gogoan], 1994-12-24.
- 1995 *Ararteko erdalduna, lotsagarria!*. [Euskaraz ez dakien Arartekoaren izendapenaren kontra], 1995-03-13.
- 1996 *Juan Jose, gudari leial, agur egin diguk*. [Juan Jose Etxaberen heriotzean], 1996-07-16.
- 1996 *Euskaldunak eta espainolak*. [Euskal presoaren arazoaz], 1996-10-03.

**EGIN DIZKIOTEN ELKARRIZKETAK:**

- 1991 "El Correo Español"en. Euskera a pié de fábrica titulupean Oscar Recaldek; De seguir así, el euskera eibarrés desaparecerá en unos años , dio Imanolek. [euskera gazteena ekitaldiaren barruan, Udaletxean eman behar duen hitzaldia dela eta], 1991-11-21.
- 1995 "El Diario Vasco"n. Imanol Laspiur, promotor de la ikastola titulupean Alberto Echalupek egindakoa. ["Ikastolaren Historia txikia" liburuaren argitalpena dela-eta]. 1995-11-16.





### **III - BESTE PAPER BATZUK**

- \* ARGITARATU DENENTZ EZ DAKIGUN ARTIKULU MULTZOA .....108
- \* HITZALDI ETA MAHAI-INGURUAK EUSKARAREN INGURUAN .....109
- \* IKASTOLA. TXOSTENAK ETA HITZALDIAK .....110
- \* EUSKALTZAINDIA. TXOSTENAK .....112

**Argitaratu denentz ez dakigun artikulua multzoa (data falta, non?..)**

**ZERUKO ARGIA:**

- 1968 *"H"-aren inguruan*. Arantzazuko batzarraren ondoren.(4 orrialde).  
1968 *Desterrutik (I,II,III,IV,V)*. [Granadako Zafarrayan desterraturik zenean].  
(10 orrialde).  
1973 *Egipto - Israel*. [Bi herri horien arteko gerraz]. 1973.eko urriaren 23an  
bidalia. (3 orrialde).

**EGIN:**

- ???? *Euskal Herria nazioa da*. (4 orrialde).  
1979 *Ibañez Freire Jauna eta ikastolak*. 79-V-12an bidalia.(3 orrialde).  
1995 *"Gipuzkoa a través de la historia"*. [Teresa Zarcok URTEKARIAn  
idatzitako artikuluari, zenbait iruzkin eta zehaztasun], 1995-urtarrila.  
(2 orrialde).  
1997 *Ortega Lara Jaunaren zoria*. Data: ???? (Orrialde bat).

**EGUNKARIA:**

- ???? *Joseba Arregiren auzi-mauziak eta euskararen praxia*. [J.Arregik  
Ardanza Lehendakariari eginiko gutunaren inguruan].(Orrialde bat).  
???? *Umandi hil da*. (Orrialde bat bakarrik aurkitu dugu; jarraipena badu  
baina aldentuta dago nonbait).

**PUNTO Y HORA:**

- ???? *Giltzapean jarraitzen dugu*. [Euskal Herriaren momento historikoaz,  
Tejerorenaz eta J.Carlos Erregek Gernikako Juntetxera egindako bisitaz  
geroztik; gure historiari gainbegiratu bat ematen dio 1812, 1839, 1841  
eta 1876ko gertakizun historikoen bitartez]. (6 orrialde).

**EROSKI:**

- 1974 *Las ikastolas*. 1974ko udan. (4 orrialde).

**NONBAITEN:**

- ???? *Gerraondoko euskal irakaskintzaren hastapenak Eibarren*. [1952-53an  
hasi eta AEK modu profesionalago batean hasten den arte]. (2 orrialde).  
???? *Torturak eta gezurrak*. (4 orrialde).  
???? *Helburuek zutik diraute*. [Ikurrinaren aldeko manifestazio baten  
ondoren]. (3 orrialde).  
???? *Diktadura, klandestinitatea eta...demokrazia?*. [EGIN egunkariaren eta  
EGIN iratiaren bulegoetan ertzainak sartu direla-eta]. (2 orrialde)  
???? *Bakea posible da, 16an denok Bilbora*. [Negoziazioaren aldeko  
agerraldiarekin bat]. (2 orrialde).  
1996 *Alemania txapeldun, txalo!*. [Eurokopan Alemaniaren garaipena eta eta  
espainolen chauvinismoa]. 1996-07-01. (2 orrialde).

**Hitzaldi eta mahai-inguruak, euskararen inguruan**

*GURE HERRIKO KAZETERITZAZ, MAHAI BOROBIL BATERAKO APUNTE BATZUK:*

???? *Pedro Migel Urruzunoren omenez.* [Moderatzaile egin zuela ematen du (4 orr. zenbait apuntekin); S.C.ONGARRI delakoak antolatuta, Euskaltzaindiaren babesean].

*GAZTEENTZAT: GIZONA, HIZKUNTZA...*

???? (3 orrialde eskuz).

*EUSKARA ETA EUSKAREN BEHARRA.*

???? (4 orrialde makinaz eta 13 eskuz).

*GIZONA, HIZKERA ETA KULTURA.*

???? [Bergarako euskal alfabetatze hasierak nahi duen girotzearen hitzaldia]. (16 orrialde makinaz).

*GIZONA, HIZKERA, KULTURA?*

???? (15 orrialde eskuz).

*RIKARDO ARREGI ETA ALFABETATZEA.*

???? [Rikardo hil ondorengoa izan behar du]. (4 orrialde eskuz)

*ALFABETABIDEA.*

???? [Hizkuntza idatziaz, alfabetatu beharraz, konzientziaz lana] (4 orrialde eskuz idatziak).

*DEBA ARROAN, BERTAKO EUSKALKIAZ:*

???? *Leniz-tik Deba arteko ibarreko euskara.* [Euskaraz eskuz idatzia (23orr.) eta gaztelaniazko itzulpenarekin batera (3 orr. mekanografiatu). Hitzaldia emateko baimena eskatu behar zen sasoi hartan; eta baimen eskaerak bete-behar hori zuen. Hauxe da hitzaldiaren gaztelaniazko izenburua: *Contenido de la charlaintitulada "El vascuence en la cuenca del Deva"*].

1973 *Euskara Eibarren.* [Aurrekoa bezala euskaraz dagoena eskuz idatzia dago (26 orr.) eta gaztelaniazko itzulpena du (3 orr. mekanografiatu). Gaztelaniazko izenburua hauxe da: *Contenido de la charla intitulada "El vascuence en Eibar"*].

*HATXE*

???? ["H"aren erabilleraz, ikaskai laburra]. (5 orrialde eskuz).

*EUSKARA BATASUNA GAUR, EUSKARA IDATZIA GAUR:* [23 orr. eskuz idatziak]

1974 Azpeitian emana.

1975 Zeanurin emana.

*EUSKARA IDATZIA GAUR.*

1974 Errenderian emana.(5 orrialde eskuz).

*EUSKARA BATUA.*

1975 P.Altuna eta S.Garmendiarekin batean Azpeitian emana, 75-5-13an.(9 orrialde eskuz).

*EUSKARA BATUA GAUR, EUSKARA IDATZIA GAUR.*

1978 Galdakaon emana 87.eko maiatzean. (15 orrialde eskuz)

*HIZKUNTZA ETA HERRIA; EUSKARAREN GARRANTZIA EUSKAL HERRIAN.*

1979 Bolibarren emana 1979-4-1ean.(6orrialde eskuz).

*EIBARKO EUSKARA BATZORDAREN "BERBIA EMON" HITZARMENA DELA-ETA:*

1991 Euskararen geroa gaztetxoan eskuetan. [(orr. 1 makinaz); Ikus: "El Correo Español" 1991-11-21].

\*\*\*\*\*

### **Ikastola. Txostenak eta hitzaldiak**

*ARAUDI AZTERKETA:*

1971 Ikastola-federazioko heziketa-saileko partaide zenekoa.  
[Bateratzaileari, araudi-azterketaren berri ematea]. Getarian, 71-4-3an.  
(6 orrialde makinaz)

*GURASO HEZIKETA SAILAREN TXOSTENA:*

1972 Loiolako Batzar Nagusirako txostena. [1971ko sailaren jardunaren berri ematen da, non hitzaldiez diharduelarik urtean zehar 13 hitzaldi eman direla esaten den, honako leku eta gaiokin:

Non - Eibarren, Elgoibarren, Andoainen, Getarian, Deban, Eskoriatzan, Mendaron, Mutrikun, Zumaian, Lasarten, Ataun San Gregorion (2) eta Alegian,

Gaiak - *Gurasoen heziketa* (toki gehienetan), *Ikastola herriaren aurrean, Herria eta ikastola, Giza- emakumeak gaurko euskal gizartean, gazteria gaurko euskal gizartean.*]

*LEGE ALDETIKO ARAZOKETA / LEGEAREN ERRAZTASUNAK ETA ERAGOZPENAK:*

1967 Larrabetzuko mahai-inguruan. (3 orrialde makinaz).

*ZERGATIK DITU EUSKAL HERRIAK IKASTOLAK?:*

- ???? Lezoko ikastolan emana. (11 orrialde eskuz).  
1976 Larrabetzun emana.

*GURASOEN ERANTZUPIDE EDO ERRESPONSABILIDADEA HAURREN HEZIKETAN ETA HERRIAREN AURREAN:*

- ???? ["Información y Turismo"rako gaztelaniazko laburpenarekin]. (10 orrialde makinaz eta gaztelaniazko laburpentxo bat entzuleentzat 3 orrialdetan).

*AMA HIZKUNTZAK HEZIKETAN DUEN GARRANTZIAZ:*

- ???? (5 orrialde eskuz eta 1 makinaz).

*ZERGATIK DITU EUSKAL HERRIAK IKASTOLAK?*

- ???? (6 orrialde eskuz)

*LIZEOA:*

- ???? [Heziketaz, herri-eskubideez, euskara, giza-izatasunaz..].4 orrialdeko galdetegia eta hitzaldia bera 23 orrialdetan, dena eskuz idatzia).

*MAHAI-INGURUAK:*

- 1977 Elgoibarren.[Ikastola berriaren inauguraketa-astean moderatzaile lanean, Carlos Santamaria, Jesus M.Mujika, Iñazio Oliveri eta Juanjo Araolazarekin, hezkuntza dutelarik gai]. 1977-6-21.
- 1977 Eibarko "Kultural"ean.[Eibar, Elgoibar, Soraluze eta Ermuko ordezkariekin batean, moderatzaile lanean. Gaia: Ikastolako arazoak]. (8 orrialde eskuz). 1977-5-24.

*IKASTOLAK, EUSKAL HERRIAREN IZATASUNA, HIZKUNTZA ARAZOA, HELBURUAK: (7 orrialde euskaraz eta 2 gaztelaniaz, guztiak eskuz idatziak)*

- 1974 Durangon emana 1974-10-24an  
1979 Durangon bigarrenez 1979-4-26an

*IKASTOLAZ:*

- 1979 2 orrialde gaztelaniaz eta makinaz idatziak. 1979-maiatza.

*EUSKAL IKASTOLAK:*

- ???? 16 orrialdeko lan mardula, makinaz idatzia.

**Euskaltzaindia. Txostenak:**

*EUSKARA BATASUNARI BURUZ:*


7 orrialdetako txostena makinaz idatzia. (1975-07-10)

*EUSKARA IRAKASKUNTZA INSTITUTOETAN.*

[Eibar eta Elgoibarko Institutoetako irakaskuntza euskaraz jartzeko, Euskaltzaindiak Ministerioan gestioak egin ditzan eskatuz]. 5 orrialdetako txostena, makinaz idatzia, (1977-05-27).

*MUGAGABE TAXUZKO PERPAUSAK ZENBATASUNEZKO ESALDIETAN:*

[I. Jagon Jardunaldietara eramana, baina aipatu gabea]. Komunikabideetan egiten diren akatsen zerrenda luzea, lau orrialdetan.



## IMANOL LASPIUR ZABALA

Bergaran jaixo 1929-2-21ian eta Eibarren hill  
Bzan 1998-12-24an. Armerixa Eskolan  
industri-maisutzako lanbide-ikasketak.  
Lehenengo lan-urtiak industri-lantegi batian  
egin zittuan eta materixal elektriko biltegi  
bateko gerente zala jubilau zan 64 urtekin.  
Eibarren, gerra osteko mogimentu  
euskaltzaliaren aintzindari; euskera irakasle 20  
urtetan baiño gehixago eta “*Euskera  
Ikasbidea*” metodo argittarabakuaren egille.  
Zenbaitt urtetan militanzia abertzaliari lotua,  
kartzelia eta desterrua sufriduko dittu.  
Ikastolaren finkatze prozesuan eragille. Hizlari  
eta konzienzi-suspertzaille. Euskaltzaindiko  
urgazle 1975-5-27tik; Eibarko euskeriaren  
aztertzaile. Saiakera argittaratuen artian:  
*Euskal-joskera, Ikastola eta gurasoak; Eibarko  
“Máquinas de coser Alfa”, Azentu diakritikua  
Eibarko euskeran, Eibarko Ikastolaren historia  
txikia eta Eibarrera jatorraren bidetik* hauxe  
liburuau; argittaratubakuen artian: *Eibarko  
euskal deklinabidia* eta *Eibarko euskeriaren  
entonaziñua*. Itzulpenetan: *Munduan Zehar*-eko  
8. liburukixa. *Euzko Gogoa* eta *Olertin* be  
kolaborau eban. Aldizkari eta egunkarixetan  
hainbat artikuluren egille.